


CSCE  EKGGK

**EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN
KONTSEILUAREN HISTORIA 1983-2009**



Salneurria: 6 €

D. Xabier...
bierno Vasco).
Se da lectura, a continuación, a los Consejeros -
representantes de las Cooperativas resultando serlo D. Francis-
co Javier Mongelos... (Grupo Cooperativo "Ularco"); D. Ro-

.../...



Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

Liburu hau ezin da erreproduzitu, ez osorik ez zati bat, jabetza intelektualaren titularren aurretiazko baimen idatzirik gabe (copyright), Legean aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Eskubide guztiak erreserbatuta.

© Fernando Molina Aparicio, 2009
© Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi-
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 2009
Nafarroako Errege-Erreginak, 51
01013, Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 121155
Fax 945 122263
info@csce-ekgk.coop
www.csce-ekgk.coop

Lan honen lehen argitalpena: 2009ko ekaina
Euskara: EMUN, KOOP.E.
Diseinua eta maketazioa: mccgraphics. Evagraf planta
Inprimatzailea: mccgraphics. Evagraf planta
Lege gordailua: VI-579/09
ISBN: 978-84-934129-4-4
Printed in Spain – Espainian inprimatua

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUAREN HISTORIA, 1983-2009

Fernando Molina Aparicio



**Vitoria-Gasteiz
2009**

AURKIBIDEA

Aurkibidea	5
SARRERA	9
I. KAPITULUA. ERAKETA, 1982-1988	
Kooperatiben Legea	15
Kooperatibismoa eta autonomia	15
Legeria kooperatibo berria.....	21
Kooperatiben Goren Kontseilua	26
Nortasun kooperatiboa	31
Mugimendu kooperatiboaren egituraketa	35
Kontseilua egonkortzea	41
Administrazioarekiko lankidetzaz	41
Administrazioarekiko autonomia.....	45
Langilea propioak	49
Nazioarteko Kooperatiba Aliantzan integratzea	52
II. KAPITULUA. TRANTSIZIOA, 1989-1998	
Kooperatiben Lege berria	61
Kooperatibismoaren etxea	61
Arbitraje kooperatiboa	65
Legeria kooperatibo berria	69
Kontseilua, Federazioak, Konfederazioa	75
Nortasun instituzional berria	75
Konfekoopen sorrera	82
Eraberrituta	89

III. KAPITULUA. HEDAPENA, 1999-2009

Kontseilua mende berrian	95
Finantza autonomia	95
Plangintza eta emaitzak	99
Bitartu.....	104
Berrikuntza eta hausnarketa	109
Sozietate sustatzaile berriak	109
Gestioaren eraginkortasuna	113
Etorkizunera begira	116

ONDORIOAK ETA ERANSKINA

Ondorioak eta eranskina	131
-------------------------------	-----

SARRERA

A mets kooperatiboa betetzea: Mugimendu kooperatiboarentzako deklarazio bat XXI. mendean". Horixe izan zen Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak 1995ean Manchesterreko Biltzarrean egindako gogoeta organikoa laburbiltzen zuen txostenaren izenburua. Biltzar haren ondorioz, nortasun kooperatiboaren formulazio berri bat eratu zen, eta harrezkero horrek gidatu du munduan kooperatibismoa, berezko izaera kooperatiboa duten balioak (elkarrekiko lankidetzeta, autoerantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, zuzentasuna eta elkartasuna), izaera orokor eta etikoagoa duten beste batzuekin osatuz (zintzotasuna, gardentasuna, gizarte erantzukizuna eta bokazio soziala).

Nazioarteko ekitaldi hartan gertatu zen zerbait garrantzitsua "printzipio kooperatiboaren" kontzeptuaren berrikusketa izan zen, eta kontzeptuari aurretiko beste kontzeptu bat esleitu zitzaion: "balioa". Bertan, printzipio kooperatiboak kooperatibek beren balioak martxan jartzeko jarraibide gisa ageri dira. Horrenbestez, azalerratu egiten da edozein ideologia kooperatiboren azpian aurretiazko etika bat egon behar dela dioen printzipioa. Ezaugarri hori barneratua zuen dagoeneko Jose Maria Arizmendiarrietak, 1955ean Arrasaten abiarazitako esperientzia kooperatiboaren bidez, ordu arte existitzen ziren enpresa ereduetan parte hartzeko eta humanizatzekeo tresnak aktiboki bilatuz, betiere bere helburu kooperatiboak lortzeko.

Kontseiluak Manchesterreko bilkura internazionalen parte hartu zuen, euskal kooperatibismoa ordezkatzuz; mendetako irmotasunez osatutako kooperatibismoa, nekazarien eta arrantzaleek lana partekatzeko ahaleginez osatua, lanaren esplotazioa sufritzen zutenentzako gizarte justuago baten alde, militantzia sozialistaz osatua, ideal kristauz eta abertzalez osatua, lan harremanak eraldatzeko nahiarekin eta, akaso, ilusioz gehiago fundamentuz baino, harreman horiek industri iraultzaren aurretik arautzen zituen landa eremuaren unibertso arkadiarrera itzularazteko. Euskal kooperatibismo plural eta multiforme hura, diktadura frankistako falangisten dekretukaden mailuek laminatua, dagoeneko garai hartan Arrasateko esperientzia arrakastatsua berreskuratua, erreferentzia ukaezina izan zen 1980an abian jarri zen Eusko Jauriaritza berriarentzat.

Euskal kooperatibismoaren egungo egoera bere iragan aberats eta probetxugarri horretara egokitzeke, Eusko Jauriaritzak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua jarri zuen martxan, 1983an. Organo hark hiru gaitasun lantzen zituen, hau da, kooperatibismoaren aholkularia, sustatzailea eta hedatzailea izatea, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeko 137 artikularen arabera xedatzen zenez: Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek interes sozialeko eginkizuntzat hartzen dute erakunde kooperatiboaren eta horiek enpresa integratzaileko eta ordezkarietarako dituzten egituren sustapena, estimulua eta garapena.

Egoera hartan, arlo pribatua eta publikoa elkartzen ziren gune egongaitz batean, sozietate kooperatiboen interesak eta ahalik eta aberastasun eta justizia sozialik handiena sustatu nahi zuen Administrazio bat elkartu ziren une hartan, erakunde hau sus-traitzen joan zen. Horri esker, autonomia politikoak lortu zuen kooperatibismoa –euskal gizartearen erreferentzia ekonomiko eta sozial argia–, poliki-poliki, egiatzko integrazio asoziatibora iristea, espazio publiko zabalean ahotsa eta izaera bateratua bermatuko zion integrazioa. Eta orduan izan zen, kooperatiben federazioak jada eratuta zeudenean, baina haiek bildu behar zituztena, Konfederazioa, oraindik lehenengo pausoak ematen ari zenean: orduan kooperatibismoari ahotsa goratzeko aukera iritsi zitzaion, nazioarteko eremuan ahots propioz agertzeko aukera. Eta horixe egin zuen, aipatutako Manchesterreko Biltzarreko agiri bateratuaren lanketan parte hartuz: bertan, euskal herritarren herrialde txikiak kooperatibismoaren inguruan zeukan iritzia eta, batez ere, zeukan esperientzia historikoaren altxorra ezagutarazi zuen.

Kontseiluak agiri hari egindako ekarpenek eta gogoetek bere bizitzako hogeita bost urteetan erakunde hau ezaugarritu duen lan jarduera erakusten dute. Elkarriketan eta interesen adostasunean oinarritutako praktika zen, txostenak eta azterketak lantzerantz zuzendutako batzordeen osaketan oinarritutako praktika, zeinek, bilkuran eztabaidatu eta gero, hainbat agiri osatzen lagundu zuten, esaterako, Eusko Jaurlaritzari legeak prestatzeko eta Federazioei eta Konfederazioari kooperatibismoa sustatzeko eta babesteko elkarteak martxan jartzeko.

Aipatu agirian ohartarazten zenez, beharrezkoa zen kooperatibak etengabeko bilakaeran mantentzeko gauza izatea, hainbat arazori aurre egiteko, horien artean “leherketa demografikoa, korporazio multinazionalaren botere gero eta handiagoa, komunitateek aurre egin beharreko krisiak, ingurumenaren degradazioaren arazoak” eta, oro har, berez kooperatibismoaren urrezkoa arauak esan nahi zuen erronkari aurre egiteko: “aldaketaren dinamikarako egokitzapen” etengabea.

Mendearen amaiera aldean, euskal kooperatibismoak, mundukoak bezalaxe, dimentsio globaleko erronkei aurre egiteko prestatu behar zuen. Erronka horiek kanpotik etorritakoak izan ziren, ekonomiaren globalizazioaren ezagutzaren eta komunikazioaren gizartearen ondoriozkoak, baina baita barrukoak ere, Manchesterren biribildu zen hausnarketa prozesuaren jatorrian zegoen kooperatibismoaren kultura zurrunduta baitzegoen. Zalantzarik gabe, hau izan da nazioarteko kooperatibismoak aurkitu duen arrisku nagusia: ez da elkarte eredu kapitalistarekin merkatuan izandako lehia, hori beti egon baita, oparoaldietan zein krisialdietan, protekzionismo garaietan edo globalizazioan; arriskua kultura propioaren eremuan dago, dibidenduak banatzea baino zerbait gehiago esan nahi baitu, lanaren benetako filosofia bat da, beti norbanakoa gainditzen duen orientazio batekin, esparru komunitarioan isurtzeko, erabat soziala, eta demokrazia, autogestio, justizia eta elkartasun eredu moralekin arautua.

Kulturaren eremu horrek gaur egun erronka are handiagoa dauka, mundu mailako krisi ekonomikoko testuinguru batean jarri behar baita praktikan. Kontseiluak laurogeita hamarreko urteen amaieran helburu hori detektatzen asmatu zuen, ordezkariak lanak egiteko behin-behineko eginkizunak atzean utzi eta bere lana mugimenduaren beharretara eta Administrazioarekiko solaskidetza zuzendu zuenean, guztientzako irtenbiderik ahalik eta onena lortzeko. Eta helburu horrek eragin du estrategiak hantzen hedatzea eta bitartekaritza elkarte berriak martxan jartzea. Hori guztia filosofia mugikor batetik abiatuta: kooperatiba eta kooperatibista orok beti prest egoten ikasi behar du aldatzeko eta gero eta konplexuagoa eta pluralagoa den gizarte batera egokitzeko.

Mende berri honetan, Kontseiluak bateko eta besteko ekintza estrategietan eta hausnarketa prozesuetan islatu duen filosofia horrek erakunde honen esperientzia historikoa sinbolizatzen du, erakunde honek ez baitu besterik egin, bere bizitzako 25 urteetan, bilakatu baino, errealitate ekonomiko eta sozialaren beharrei beti erne egoten saiatuz, horren zerbitzurako sortu baitzen,

ekimen publiko gisa. Horrek ahalbidetu dio euskal kooperatibismoak mende laurden honetan zehar osatu dituen heldutasun estadio desberdinetan parte hartzea. Eta horrek ahalbidetzen dio egunerokotasunera egokitzea, zalantza garai berri hauetan, krisi ekonomiko eta finantzario globalak markatutako garaietan; haatik, krisi horrek eredu kooperatiboan aurkitzen du erantzun posible bat, elkartzasunean, ilusioan eta komunitatean oinarrituta.

Egokitzeko mugimendu hori da, hain zuzen, hemen aurkezten dudana liburuan aurkitzea espero dudana, erakundearen azterketan denbora luzea eman ondoren, bere ibilbide historikoaren ikuspegi ahalik eta aberats eta orekatuena eman nahian, 25 urteko bizitza instituzionala bete dituenean.. Eta mugimendu horri obra hau osatzen duten hiru ataletan zehar egin dakioke jarraipena. Lehenengo kapitulua jatorriari eta sorreran izan zuen zentzuari eskainia da, jaioaurreko fasean zegoen mugimendu bat bultzatu zuen erakundea izan zen heinean, mugimendua desegituratuta eta industri izaera zuen krisi ekonomiko baten gorabeheren menpe zegoelarik. Bigarreanean, euskal kooperatibismoa elkartu eta egituratu zuen mugimendu asoziatiboa abiarazi eta gero, Kontseiluak hori martxan jartzeko eginkizun zailari nola heldu zion azaltzen da, haren eginkizunetako zenbait partekatuz, eta mugimendua behin betiko martxan jarriko zuen erakundea finantzatuz eta sustatuz: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. Eta hirugarren kapitulua, zeinean, mugimendua bultzatu eta gero, Kontseilua euskal kooperatibek eskatzen dizkioten behar askotarikoetan esku hartuz joan den, esku-hartze horretan martxan jarri zuen mugimenduarekin lankidetzan arituz, kooperatibismoa sustatzeko eta kudeatzeko elkarte berrien bitartez, eta izango zuen bilakaerari aurrea hartuz, hausnarketa egiteko eta garai berrietara egokitzeko ekimenak bultzatuz.

Hiru kapitulu horietan hainbat historia kontatzen dira, gizon-emakume zehatzek protagonizatuak, erakundeko kideak ziren heinean elkarlanean bat eginda, langile talde txiki batekin eta hainbat lehendakaritzarekin batera, zeinak, desberdinak izanik, planteamenduetan eta euskal kooperatibismoak zituen arazoak eta eskakizunak ebatzen orobat eraginkorrak izan diren. Pertsona horiek "Kontseiluari" egiten zaion aipamen etengabe eta jarraituaren abstrakzioan geratzen dira bilduta, edo martxan jarri zituzten lan batzordeetan eta gatazkak bideratzeko edo jarduerak sustatzeko ekimenetan. Eta horregatik, abstrakzio hori arintzeko, eta erakusteko Kontseilua ez dela izan erakunde abstraktu bat, baizik eta erakunde guztiz humanoen batura bat, proiektu kooperatiboaren ilusio komunean eta horretan lan egiteko eta sustatzeko ahaleginean elkartutako pertsonen batura bat, irakurleak liburu honetan argazki ugari aurkituko ditu. Argazki horiek ahalbidetuko dute erakundeen azpian gizonak eta emakumeak daudela egiaztatzea, eta horien lan komunitarioa eta kooperatiboa dela bizitza propio baten antzeko zerbait ematen diena. Bizitza horrek, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari dagokionez, 26 urte bete ditu dagoeneko, eta ilusioz beterik doa berrogeita hamargarren urteurrenaren bila.

Bilbo, 2009ko maiatzaren 6a





I. KAPITULUA

ERAKETA, 1982-1988

KOOPERATIBEN LEGEA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua euskal autonomiaren lehenengo urratsen testuinguruan kokatu behar da

Kooperatibismoa eta autonomia

1983ko urtarrilaren 28an, eguerdiko 12:30ean, Eusko Jaurlaritzako egoitza nagusian, Gasteizko Lakua auzoan, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua eratzeke ekitaldia egin zen. Autonomia Garapenerako lehendakarioa zen Mario Fernandezek irakurri zuen 1982ko azaroaren 15eko 207/1982 Dekretuaren Aitzinsolasa, euskal autogobernu hasiberriak bere egitura hornitzeko sortutako erakunde berezi honen araudiaren inguruan. Bertan, Legebiltzarrak onartu berri zuen Euskadiko Kooperatiben Legeak jada aipatzen zuena berresten zuen. Legeak, II. Atalburuan ezartzen zuenez, “Herri-Agintaritzek gizarte-zuduzko egiteko gisa beretzakotzen dituzte Koperatiben eta hoiien laguntzarako erakundeen suztapena, axukatzea eta hezkuntza” (66. atala) (sic). Xede horretarako, Legeak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilu bat eratu zuen: “Kontseilu Nagusia Kooperatiben eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari osatu beharko da”, “Koperatiben eta bere erakundeen goreneko suztapen eta ordezkari-tza-sail gisa”, eta “Koperatibetasunaren suztapena eta azterpena izango ditu bere ihardunaren oinarri-irizpide nagusi”. (70. atala) (sic).¹

Ekitaldiak aurrera egin eta, erakunde berria osatuko zuten kideen aurkezpena egin zen. Azkenik, Mario Fernandezek berriro hitza hartu eta, Lehendakariaren izenean, eskerrak eman zizkien lehendabiziko kideei eskuzabal parte hartzeagatik. Halaber, “ekitaldiaren garrantzi historikoa” nabarmentzeko aprobeztatu zuen, ekitaldiak kooperatibismoaren alde egin berri ziren hainbat ekintza instituzionali buru ematen zielako. Ekintza haiek ziren, funtsean, gaiaren inguruan Autonomia Estatutuan aurreikusitako eskumenak barneratzea eta horiek arautuko zituen Lege bat lantzea, erakunde honen sorrera babesten zuen Lege bera, hain zuzen.²

Horrelako ekitaldietako berezko formulismotik harantzago, bertan agerian geratu zen argudioa izan zen Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua “erabaki politiko” baten gailurra zela, euskal autonomiaren lehenengo urratsen testuinguruan kokatu behar dena. Erabakia Euskadiko Kooperatiben Legeak bultzatuta etorri zen, eta xede nagusia zen Autonomia Estatutuko 10/23 artikulua kooperatiben arloan Eusko Jaurlaritzari ematen zion eskumena edukiz betetzea eta egiazko bilakatzea. Fernandezek gorde antzean aipatutako borondate politiko haren gailurra Euskadiko

¹ *Koperatibei Buruzko Legea*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1982, 33 eta 145

² EKGren Bilkurako Akta (hemendik aurrera A.) 1983.1.28

³ Pablo Buitron, *Análisis estructural y delimitación de funciones del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi*, CSCE, Gasteiz, 1998, 130-132, 135; Jose Maria Susoren Testigantza (hemendik aurrera, JMST), Alfonso Gorroño goitiaren Testigantza (hemendik aurrera, AGT).

Kooperatiben Goren Kontseilua zen; narrazioan arinago ibiltzeko, aurrerantzean, soilik Kontseilu hitzaz esango diogu.³

Edozein ekintza “politikotzat” jotzen denean, oharkabean zabaltzen den ideia da gertaera edo ekintza hori (edo dena delakoa) fakzio baten emaitza dela, berak bultzatua edo gauzatua, eta horren ondarea balitz bezala kokatzen da, beste fakzio politiko batekiko aurrez aurre. Oharkabeko mekanismo hori oso lotuta dago kultura politiko espainolari eta, ondorioz, Euskal Herrian ere bere deribazioak ditu. Politikak, fakzio baten ariketa gisa, “sekta” baten ariketa gisa, XIX. mendeko hainbat buru argik salatzen zutenez, historial zabala du euskaldunen iragan politikoan. Halere, irudi topiko horrek, topikoa baino ez baita (ideia lau bat, oso sozializatua, baina ez horratik egiazkoagoa), nekez funtzionatzen du egitateen eremura jaisten denean eta, noski, nekez aplika dakioko politika autonomikoari kooperatiben gaia dela eta.

1982an, Legea aldarrikatzeko prozesuan zegoela, Eusko Jaurlaritzak lehenengo Euskadiko Kooperatiben Jardunaldiak antolatu zituen. Ekitaldi publikoa izan zen, hurrengo urteetan urtean behin egiten jarraitu zena, eta aurrerantzean Kooperatiben Goren Kontseiluak parte hartuko zuen, gerora ikusiko denez. Jardunaldi haietan Lan Sailean teknikari lanetan ziharduen Emilio Olabarria juristak parte-hartze nabarmena izan zuen, eta prestatzen ari zen Legearen proiektuaren edukia aurreratu zuen. Zehazki, “oinarri-irizpide nagusiei” jarri zien arreta, hau da, azpian zegoen filosofiari. Azkenean, “irizpide” haiek elikatuko zuten, puntuz puntu, geroko Legearen testuan aurki daitekeen “zioen azalpena”.

Bere mintzaldian, Olabarriak azaldu zuen kooperatibismoa ez zela “fenomeno arrotza euskal herriarentzat”, izan ere, herriak “bere historian zehar kooperazio bidezko hainbat jarduera ekonomiko garatu” zituen, hala nola “auzolana”, eta horiek “erakunde bihurtu zirela, arrantzaleen kofradiak kasu, edo herri lurren ustiapen antolatua”. Tradizio horri gehitzen zitzaizkion Gerra Zibilaren aurreko kontsumo kooperatibak eta industri ekoizpenekoak, eta haren ondoren Arrasateko kooperatibismoaren fenomeno sozial ohiz kanpokoak: “elementu erabat garrantzitsua Euskadiko errealitate ekonomiko-sozialean”.

Olabarriak gai horri heldu ez bazion ere, haren arrazoibide historikoari hauxe gehitu behar zaio: bera afiliatuta zegoen alderdiak, EAJk, enpresa eta ekonomia antolatze modalitate horretan izan zuen parte-hartzea. EAJ Euskadiko alderdirik inportanteena zen, bertako biztanleen sentiberatasun politiko zabal-zabal baten ordezkaria. Baina oroz gain, hauteskundeetan izandako emaitza bikainei esker euskal autonomia martxan jartzeko ardua bere gain hartua zuen alderdia zen. Eta kooperatibismoaren kausarekin konpromisozko tradizio luze bat zeukan.

Kooperatibismoa ez zen fenomeno arrotza euskal herriarentzat

Sharryn Kashmir antropologoaren iritziz, EAJK, hasiera-hasieratik, iraganeko euskal lurralde historikoak ezaugarritu zituen berdintasunezko tradizio zaharra berpizteko estrategia aurkitu zuen kooperatibismoan. Hala ere, euskal forma eta portaera sozialen oinarri berdinazale batean sinestea ez da, inondik ere, EAJK ideia kooperatibistekin hartua zeukan konpromisoa azaltzen duen arrazoi bakarra. Askoz ere inportanteagoa izan zen antolaera ekonomiko horrek zeukan dimentsio kristaua, eta baita dimentsio horrek babesten zituen justizia sozialeko eta berdintasun idealak ere. Arrazoi bion erlazioak azaltzen du kooperatibismoak zergatik izan duen betidanik hain garrantzi handia, sinbolikoa eta praktikoa euskal nazio eraikuntzaren proiektuan.⁴

Gerra Zibilaren osteko urte ilunen gaineko txosten zahar bat lagungarria izan daiteke hori berresteko. Baionako Beyris auzoko Villa Izarra eraikinaren sotoan –soto hori EAJren egoitza izan zen erbestean – hainbat hamarkadaz egon ziren gordeta hautsez beteriko karpeta batzuk eta maleta zahar bat, non Juan Jose Basterraren paperak gordetzen baitziren. Basterra Euskal Erresistentziaren eta Euzkadiko Gobernuko Barnealdeko Kontseilu Delegatuko presidentea izan zen. Paper haiek Sabino Arana Fundazioak gestionatzen duen Euskal Nazionalismoaren Artxibo Historikora bidali ziren eta han, teknikariek aipatutako Basterraren txosten bat aurkitu zuten. Txostenak 1947ko abenduko data zeraman eta izenburua "El cooperativismo en Euskadi" zen. Kooperatibismoak EAJn norainoko eragina izan zuen adierazten zuen balantze zorrotz eta xehatua zen, etorkizunerako asmoen gaineko adierazpen baikor batekin ixten zena. Adierazpen horretan, militante abertzale beteranoak hauxe adierazi zuten: "Kooperatibismoak garaitza lortu eta gizarte kapitalista ordeztuko duen itxaropen handirik ez daukagu, baina ez dugu uste kimera bat denik langileak enpresari izan daitezkeen erregimen bat sortzea ere". Xede horrekin, "[kooperatiben aldeko] legezko esku-hartzea beharrezkoa da, justiziak agintzen duen ekitatea bermatzeko". Esku-hartze horrek "elkarte kooperatiboak sortzeko legeria egokia eta botere publikoen aldetiko laguntza" sustatu behar zuen, lau modalitate hauetan: nekazaritza, kontsumoa, kreditua eta produkzioa.⁵

Hau da, erbestealdian zegoelarik, EAJK uste zuen kooperatibismoaren finkapena bakarrik etor zitekeela asoziazio lana bultzatuko zuen sustapen publikotik. Demokrazia iritsi eta alderdi politikoak legeztatu zirenean, alderdi jeltzaleak bere pro-

⁴ Sharryn Kashmir, *El mito de Mondragón. Cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco*, Txalaparta, Tafalla, 1999, 68-69.

⁵ J.J. Basterra, "El cooperativismo en Euzkadi", makinaz idatzia, 1947, 6-7 or. in Leyre Arrieta, Miren Barandiaran, Alazne Mujika, José A. Rodríguez, *El movimiento cooperativo en Euskadi, 1884-1936*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1998.

grama guztietan sartu zuen mugimendu kooperatiboa bultzatu eta babestu behar zela, 1977an Iruñeko Batzarrean agerian jarri zenez. Batzar hartan aurkeztu zen ponentzia sozio-ekonomikoko ondorioetan adierazten zenez, “ekoizpen kolektiboko taldeak, ekoizpen modu Kooperatiboak eta Euskadin jabego komunal tradizionala duten moduak sustatzera eta eratzera bideratutako ekimen guztiak babestu eta bultzatuko dira”. Gerora, printzipio horiek 1980ko Hauteskunde Autonomikoetara aurkeztutako programara bildu ziren (aipatu alderdiak gehiengo osoa lortu zuen) eta, ondorioz, baita Garaikoetxea lehendakariak Gernikan aurkeztutako Gobernu Programara ere.

Gobernu Programa horretan, non lehen Kooperatiba Legearen aldarrikapena kokatu baitzen, kooperatibismoa babestu eta sustatzeko jarraibide zehatzak ezarri ziren, “saneamendu eta berregituraketa industrialak”, “krisian dauden sektore eta enpresak”, “industri programa”, “laneko gaitan jarduteko programa” eta antzeko epigrafeetan. Programan, gainera, hauxe adierazten zen: “enpresa kooperatibak garrantzi handia izan du eta du Euskadin; hori dela eta, Gobernuak lehentasunezko arreta jarri eta laguntza emango dio”. Beste leku batean, zera baieztatzen zen: “Kooperatibak, alde batetik, soluzio egokia izan daitezke enpresa txiki eta ertainaren zenbait krisitan eta, agian, baita enplegua garatu eta sortzeko faktore garrantzitsua ere”.⁶

Behin puntu honetara iritsita, daitekeena da irakurleak Euskadiko Kooperatiben Legea alderdikieriazko arau gisara aurkeztuko dela irudikatzea, euskal gizartearen segmentu politiko batean bakarrik zegoen kezka gisara. Errealitatea, ordea, ez da inola ere hori, hemen aurkezten dugun arrazoibidea justu kontrakoa baita. Kooperatibismoak Kooperatiben Legea bultzatu zuen alderdiaren kultura politikoa zeukan esanahiari buruzko panorama historikoa eskaintzeak zera erakutsi nahi du soilik: lehenengo legealdi hartaz gauza ugari esan daiteke, baina sekula ere ez inprobisazio politikoa egon zenik.

Izan ere, kooperatibismoa beste euskal alderdi handiaren esentzia historikoa-ren parte ere bazen: Espainiako Alderdi Sozialista. PSOEn euskal adarra EAJK ordezkatzeko zuen kooperatibismoaren ildo sozialkatoliko eta abertzale-euskaltzalearen osagarri egokia izan zen historian zehar. Euskadin oso goiz jaio zen klase kooperatibismoa, sozialista, Herminio Madinabeitiak, Tomas Meabek eta lehenengo lider haiek euskal mugimendu sozialistari eskainitako ildo pragmatikoaren emaitza gisa –gerora Indalecio Prieto itzaltsuak jarraitu zuena–. Ildo sozialdemokrata eta adostaile hark aukera eman zion mugimenduari sozialismo ortodoxoak eredu kooperatiboarekiko zituen betiko

EAJK uste zuen kooperatibismoaren finkapena bakarrik etor zitekeela asoziazio lana bultzatuko zuen sustapen publikotik

⁶ Patxi Ormazabal, “Comentarios a la Ley de Cooperativas de Euskadi”, Euskadiko Kooperatiben Bigarren Jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1983, 10-11

erreparoak alde batera uzteko, eta hala, kooperatibismoaren aldeko jarrera sortu zuen; horrek ekimen kooperatiboen sustapen bizkorra ekarri zuen, bereziki kontsumoaren sektorean.

Klaseko elkarte kooperatibo haiek Ibaizabal ertzeko langile auzo guztietan zabaldu ziren eta, sozialismoaren beraren zabalkundearekin batera, Gipuzkoako lurretara hedatu ziren, hala nola Donostia, Tolosa, Eibar edo Arrasatera. Gutxira, 1910eko hamarkadan, estrategia kooperatiboa produkzioaren eremura hedatzen hasi zen, batez ere Eibarrera, sozialismoak armagintzari loturiko herri industrial horretan zeukan tradizioari esker. Euskal sozialismoaren kooperatibarik esanguratsuenak, hain zuzen, eibartar adar horretatik sortu zen, eta Alfa izan zen. Alfa industri kooperatiba 1920ko urrian sortu zen, eta hasiera batean armagintzan jardun bazuen ere, gerora josteko makinak ekoizten zituen. Alfaren ibilbidean, distira berezia izan zuen Toribio Etxebarriaren figurak. Eibartar sozialismoaren lider karismaduna ekimen haren sorreran izan zen, besteak beste. Enpresa ekimen hark ez zuen aurrekaririk, izan ere, eredu kooperatiboa ordu arte aplikatu gabe zegoen lan eremu batean aplikatu zen: industri ekoizpenean. Etxebarriak irmo sinesten zuen kooperatibismoak eskaintzen zituen aukeretan –sozialismorako bidean aurrera egiteko mekanismo gisa–. Jose Maria Arizmendiarrietak Arrasaten sustatutako kooperatibismoari buruz egin zituen hausnarketetan, hil baino lehentxeago, kezka kooperatibo argia islatzen da, non haren obra ezagunenetako batzuei zerien erlijioari eta gizarteari buruzko kezka sakona nabarmentzen den.

Nolanahi ere, kooperatiba gaien gaineko lehen euskal araudi hari eskain dakiokeen oinarri historikotik haratago, kontuan izan behar da Legeak berak, bai prestaketan bai promulgazioan, urte nahasi haietan nekez aurrera egiten zuen autonomia zalantzati haren funtsezko ezaugarrietako batzuk azaltzen dituela. Izan ere, euskal autonomia, eta baita autonomiak babestu zuen Kooperatiben Legea ere, adostasunen emaitza izan zen, oso sentiberatasun politiko desberdineko alderdien artean gertatu zena, eztabaidatu, adostu, amore eman eta proiektuak partekatzearen emaitza.

Kooperatiben Legea ez baitzen bakarrik aipatutako ekitaldi hartan Olabarriak aurreratu zuen ibilbide historikoaren emaitza gisa sortu, ezta sustatu zuen alderdiaren kezka ideologikoaren emaitza gisa ere. Faktore biok beren garrantzia izango zuten, baina ez ziren giltzarriak izan, zeren giltzarria kooperatiba sistemak Euskadin zeukan ezarpen objektiboa izan baitzen, bereziki iragan hamarkadetan Arizmendiarrietak deitu ohi zuen "Arrasateko esperientzia kooperatibo" delako hark izan zuen bultzadari esker. Bultzada hura eztabaidaezina zen, Rafael Puntonet del Rio Talde Harremanetako sailburuordeak azpimarratu zuen legez, aipatutako lehen Jardunaldi Kooperatiboetako akten aurkezpenean. Eta eztabaidaezina zen, halaber, euskal kooperatibismoak biziki

**Kooperatibismoa beste
alderdi handiaren
esentzia historikoaren
parte ere bazen:
Espainiako Aderdi
Sozialista**

pairatzen zuela euskal autonomia zalantziatiak bizi zuen industri krisiaren, langabezia-
ren eta egitura sozialaren degradazio koiuntura.

Euskal kooperatibismoa erabat desantolaturik zegoen laurogeiko hamarkada-
ren hastapenetan. Ez zeukan elkarte integratzaileak eta, ondorioz, haren behar eta
arazoak atomizaturik zeuden, Administrazioarekiko komunikazio eta solaskidetzarako
bide eraginkorrik ez zegoelako. Haren adar industrialak, kuantitatiboki inportanteena
zena, krisiak larri jota zegoen. Mondragonek, adar horretan funtsezko garrantzia
bazuen ere –eta berdin Kontsumokoan (Eroskirekin) eta Kreditukoan (Euskadiko
Kutxarekin)–, ez zuen inolako akuilu egituratzaileak eskaintzen, euskal unibertso koo-
peratiboan betidanik izandako autonomia zela eta. Autonomia hori bere berezitasun
filosofikoetatik zetorkion, baita garrantzi ekonomiko, ezarpen eta egituratzeko eredu
berezitik ere, bereziki Euskadiko Kutxaren kooperatiba taldearen inguruan eratuta.⁷

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Legeak errealitate horretan eragitea bilatzen
zuen, zeren eta Estatuan indarrean zegoena (1974ko abenduaren 19ko Kooperatiba
Elkarteen Lege Orokorra, 1978ko azaroaren 16ko Errege Dekretuak arautua) "askieza"
eta "txarra" baitzen, Patxi Ormazabalek 1983an egindako Bigarren Jardunaldi
Kooperatiboetan esandako hitzetan. Legeria haren pean, euskal kooperatiben "mundu
errealak" ez zituen bere beharrak erabat aseta ikusten. Antzeko zerbait gertatzen zen
Estatu osoan, izan ere, Felipe Gonzalez Gobernuak presidente berriak bere inbestidu-
ra hitzaldian Lege berri bat agindu zuen lehen agintaldiko lehen seihilekorako. Hori dela
eta, Eusko Jaurlaritzak koiunturari aurrea hartu eta euskal Lege bat prestatzea erabaki
zuen.⁸

Eta Lege hura etorkizunera begira prestatu zen, Kontseiluaren sorrera bezala,
honako helburu honekin: krisian murgilduta zegoen gizartearentzat, kooperatibismoa
itxaropenerako bide bihurtzea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzarentzat, formula kooperati-
boa enplegua sortzeko ekimen bat zen, eta formula hori bereziki egokia zen krisi eko-
nomiko eta moralak jotako testuinguru batean, alegia, garai hartakoan. Hala ulertu
zuten gaia, garai hartan, Frantziako Biltzarrak eta Senatuak ere, 1983ko uztailaren 20an
Gizarte Ekonomiaren Legea aho batez onartu zutenean. Ildo horretan, hona hemen
euskal autonomiaren lehen urte haietan kooperatibismoak zuen esanahiari buruzko

Euskal kooperatibismoa erabat desantolaturik zegoen laurogeiko hamarkadaren hastapenetan

⁷ Emilio Olabarria, "Asociacionismo Cooperativo en Euskadi y democracia industrial en la Comunidad Europea", *Euskadiko Kooperatiben Laugarren Jardunaldiak*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1986, 76-77 eta Alfonso Gorroño Goitia, "Experiencia del grupo de cooperativas asociadas a la Caja Laboral Popular", *ibid*, 42-52.

⁸ Ormazabal, "Comentarios a la Ley de Cooperativas", 12. or.

⁹ Jon Azua, "Presentación", *Euskadiko Kooperatiben Laugarren Jardunaldiak*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1986, 5. or.

Eusko Jaurlaritzarentzat, formula kooperatiboa enplegua sortzeko ekimen bat zen

hitz batzuk, Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzako sailburua zen Jon Azuak esanak: “Bortizkeria, langabezia, segurtasun eza eta beldurraren eraginez desmoralizatutako mundu batean, itxaropenean hezteko agintarien betebeharrak morala da”.⁹

Azken batean, Kooperatiben Lehen Euskal Legea euskal herriaren tradizioen iraganera begira jarrita zegoen, eta Lege hori bultzatu zuen alderdiaren ideologia partikularrari erantzuten zion. Baina, oroz gain, orainari begira jarria zegoen, eta orduan, euskal kooperatibismoaren ezarpen ekonomiko eta soziala hain zen irmoa, ezen ekintza instituzional zalantzarik gabea eskatzen baitzuen, zeukan arazo ugariak konpontzeko eta “itxaropenerako” bide bihurtzeko, aurrekaririk gabeko krisia pairatzen zuen gizarte batentzat, non geruzarik ahulena, eta krisiak gehien jotzen zuena, gazteena baitzen. Eta itxaropenaren aldeko apustua izan zen, ez bakarrik alderdi ekonomiko eta sozialean; baita politikoa ere, Lege hark bilatu zuena, eta aurkitu ere aurkitu zuena, adostasun politikoa izan baitzen, sektakeria eta fakzioetatik haratago.

Legeria kooperatibo berria

Adostasun politikoko eta itxaropen ekonomikoko oinarri horiek gidatu zituzten Kontseilua sorraraziko zuen araua prestatzeko ildo nagusiak. Legea 1980ko udazken bukaeran hasi zen idazten, Lan Sailean. Lehenengo lanaldi hartan, Saileko teknikariak ez ezik, euskal kooperatibismoarekin lotutako hainbat pertsona ere lankidetzan aritu ziren. Testua, zirriborrorik zirriborro, mamituz joan zen, harik eta 1981ean Lege Proiektu gisan aurkeztu zen arte Legebiltzarrean. Legebiltzarreko taldeek 15 egun izan zituzten zuzenketak egiteko, behin Legebiltzarreko aldizkarian argitaratu ondoren. Behin epe hori igarota, Batzorde Txostengilea izendatu zen, non talde politiko guztiak ordezkaturik zeuden. Batzordean testuaz eta taldeen zuzenketek eztabaidatu zen. Eztabaidarako eta adostasunerako borondateari esker, akordioak hitzartu ziren, batez ere oposizioko alderdi nagusiarekin, hau da, Alderdi Sozialistarekin. Batzorde Txostengileak bere lana amaitu zuenean, testu idatzi berria eta bertan zeuden desadostasunak aurkeztu zituen Batzordearen aurrean. Adostu ezin izan zirenak, azkenean, talde bakoitzak zuzenketa moduan defenditu zituen Legearen eztabaidan, 1982ko otsailaren 11n Legebiltzarrak egin zuen bilkuran.

Lege aldarrikapenaren data ez zen halabeharrez suertatu, izan ere, nekez izan zitekeen lehenago, autogobernuaren lehen urteetan oso lege gutxi onartu baitzen. Lehen urte haietako Gobernuaren eta Legebiltzarraren lehentasunezko beharra autonomiaren instituzionalizazioari erantzutea zen, funtzionariotza, aurrekontu, transferentzien negoziazio, botereen erregulazio eta abarretan. Legea, beraz, transferentzien edukari eta transferentziok legegintza aldetik formalizatzeko moduari arreta jarri ahal

izan zitzaionean onartu zen. Hala bada, Legearen II. Kapituluak, (kooperatibek eta Administrazioak izan beharreko harreman bereziaz ziharduena) Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua erregulaturik azaltzen zen. Organo horren funtzioa hauxe zen: autonomiako botere publikoek bere egiten zuten "sustapen, estimulu eta garapen" kooperatiboari zentzu instituzionala ematea.¹⁰

Kontseiluak bazituen "nortasun juridikoa eta jarduteko ahalmena" eta bazituen eskumenak heziketa eta prestakuntza kooperatiboan, auzien arbitrajean, botere publikoei eman beharreko informazioan eta kooperatiben sustapen juridiko, ekonomiko eta asoziatiboan. Gainera, behin-behinekotasunez, kooperatiben ordezkariak publikoak ere bere egiten zuen. Orobat, kooperatibak desegiteko eta haien ondarea likidatzeko prozesuetan esku har zezakeen; kontu horrek interes gutxi pizten du orain, baina komeni da gogoan izatea, zeren eta erabateko garrantzia izango baitu erakunde honen etorkizuneko bilakaeran.

Indarrean egon zeneko lehen urteak eta batez ere juristek Legeari buruz egin zituzten iruzkinak, urtero Lan Sailak egiten dituen ikerketa jardunaldien barruan, oso interesgarriak dira jakiteko legegileak zein asmo zeukan erakunde hau definitzeko orduan; eta kontuan har bedi estatuan ez zegoela aurrekaririk. Eta asmo hori, iritzi garai-kideetatik ondoriozta daitekeenez, lauso samarra zen. Izan ere, Kooperatibismoaren eta Administrazioaren arteko erlazioaz diharduen kapitulura iritsitakoan, non erakunde berriaren aipamena egiten baitzen, iruzkingile juridikoak mugatzen ziren Legeak zioena errepikatzen, eta ezer gutxi gehiago. Deustuko Unibertsitateko irakaslea zen eta urte batzuk geroago Kontseiluko Presidentetzara iritsi zen Javier Divarrek bakarrik aurreratu zuen Legearen letra idatzitik aldentzen zen hausnarketa hasiberriren bat, adieraziz erakunde administrazioaren bultzadaz sortu zela, "autogobernu kooperatiboa" bereganatzeko helburuaz, kooperatiben federazioak (zein bere adarrean) eratu arte.¹¹

Baiki, Kontseiluaren eskudantzia abstraktua zen; ez ordea haren helburua, hots: botere publikoen jardunaren bidez, kooperatibismo desartikulatu baten ibilbidea zuzentzea, egituraketa eta sustapen soziala bultzatuz. Eta horretarako, Divarrek aditzera ematen zuenaren haritik, bere ordezkariak propioa inprobisatu behar zuen (bitxia da baina funtzio hori apenas azpimarratzen zen erakundearen zentzuaz egingako iruzkinetan).

Legea aldarrikatzeko data ez zen halabeharrez suertatu. Nekez izan zitekeen lehenago

¹⁰ Javier Corcuera, *Política y Derecho. La construcción de la autonomía vasca*, CEC, Madril, 1991.

¹¹ Javier Divar, "Comentarios a la Ley de Cooperativas de Euskadi", Kooperatiben Bigarren Jardunaldiak, 50. or.; Alfredo Ispizuaren Testigantza (hemendik aurrera, AIT).

**Helburu nagusia hau zen:
botere publikoen
jardunaren bidez,
desegituratuta zegoen
kooperatibismoa
zuzentzea**

Lehen Kontseiluaren ordezkarien eta Presidentetzaren izendapena, Legearen bigarren xedapen gehigarrian azaltzen zena, botere publikoak egin zuen, kooperatibismoa ordezkaturako zuen erakunde baten hutsunea betetzeko sortutako erakunde batean logikoa denez. Bertikaltasun hori joera komuna da erakunde honen lehen garaiei buruz jasotako testigantzetan: hasierako kide haietako batzuek gogoratzen dutenez, kideak "nahierara izendatzen gintuen" Lan sailburuak,¹² "Kontseiluaren berezitasuna zen ordezkari eta ordezkatzailerako arteko estadio batean zegoela.(...) Kontseilua osatzen zuten pertsonak kooperatibismoaren bateko eta besteko taldeak ordezkatzeko zituzten, nahiz eta kide ordezkatzailerak ez izan, zeren ez baitzituzten demokratikoki aukeratu, mugimenduaren adierazpen organorik ez zegoen eta".¹³

Ikusten denez, bai testigantzetan bai dokumentuetan jasotakoaren arabera, kontua zen mugimendu kooperatiboa goitik, Administrazioetik, altxatzea. Hori guztia nagusiki kooperatibistek eratutako erakunde baten bitartez, hots, aldi baterako ordezkariak izateko ahalmena izango zuen erakunde baten bitartez. Naturalena izango zen kooperatibistek beraiek, euren talde sektorialen bidez, erakunde hori sortu izana. Baina hori egitea ezinezkoa zenez, tarteko formula baten alde egin zen: kontseilarien izendapena ezin zitekeen demokratikoa izan, baina horren trukean, kontseilariak kooperatibistak izango ziren nagusiki, politika tartean ez sartzeko eta, bide batez, Kontseiluaren izaera aholku emalea eta sustapen funtzioa bermatzeko.¹⁴

Bultzada politiko bertikalaren eta ordezkariaren borondatearen arteko oreka zaila agerian geratu zen Legea onartu eta gutxira Gobernuak Legebiltzarrari aurkeztu zion osara proiektuan. Bertan hamabost kontseilari, gehi Presidente eta Idazkari bana azaltzen ziren. Horietako hiru Gobernuak izendatuko zituen; bi, unibertsitateek (Deustua eta EHU), eta hamar, kooperatibek (hala, beraz, kooperatibek beste guztiek baino gehiago edukitzearen baldintza bete egiten zen).¹⁵

Presidentzia Eusko Jaurlaritzako kargu politiko gisan eratu zen, normalean jardura kooperatiboarekin zerikusi handiena zeukaten Sailerako goi karguekin lotua, esaterako, Talde Harremanetako sailburuordea, Lan sailburuordea, etab. Izan ere, kargua Talde Harremanetako Sailburuorde Humberto Cirardak hartu zuen. Cirardaz gain, beste hiru ordezkari politikoak Administrazioarekiko negoziazioaren eta elkarrizketaren hari gidariak ziren. Hona hemen euren izenak: Patxi Ormazabal, legebiltzarkidea; Jose Maria Zeberio (Nekazaritza Saileko Teknikaria) eta Xabier Unzurrunzaga (Etxebizitza Saileko

¹² AGT, JMST

¹³ Jose Maria Zeberioaren Testigantza (hemendik aurrera, JMZT).

¹⁴ Buitrón, *Análisis estructural*, 125

¹⁵ Ormazabal, "Comentarios a la Ley de Cooperativas", 23

¹⁶ Buitrón, *Análisis estructural*, 166; A. 1983.1.28.

Zuzendaria). Ikusten denez, kooperatibekin harreman bizia (sektorearen arabera) zeukaten sailetatik zetorren pertsonak ziren eta, hori dela eta, kontseilari kooperatibistekiko izan zuten erlazioa positiboa izan zen. Mundu politikotik etorritako kontseilarien hautapen horri gerora ere eutsi zitzaion, gaur arte.¹⁶

Kooperatibetako ordezkariak Administrazioak izendatu zituen zuzenean, une horretan kooperatibek zeukaten garrantzia eta eragina kontuan hartuta. 1982ko azaroaren 15eko Dekretuak, Kontseilua arautzen zuenak, hauxe xedatzen zuen bosgarren artikuluan, behin-behineko izaerarekin: “Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuak kooperatiben ordezkari diren Kontseilu horretako kideak behin-behingorako izendatuko ditu, Autonomia Elkarreango Kooperatiba mota ezberdinak eta hoiere eragina kontutan hartuta. Kontseilua eratu ondoren, kooperatibetako ordezkarien aukeratze-modua zehazteko, egoki eritzitako araupideak gertatuko ditu” (sic).

Lan Sailak ekonomian eta gizartean garrantzi handiena zeukaten euskal kooperatibetako ordezkariak gonbidatu zituen: “Euskal kooperatibismoaren oso pertsona esanguratsuak ziren, mundu hori ordezkatzeko oro zegoen”.¹⁷ Kooperatibak hautatzeko, gainera, Lan sailburuak 1982ko abenduaren 13an xedatutako Aginduari jarraitu zitzaion. Hala, hamar kooperatiba izendatu ziren: Ularco Taldea, Eguren eta Urssa (produktzioa); Euskadiko Kutxa eta Rural Kutxa (kreditua); Jose Maria Arizmendiarieta (irakaskuntza), Eroski (kontsumoa), Arrankoba (itsasoa) eta Lurgintza (landa eremua). Aipatutako kooperatiba horiek Kontseilura joateko izendatu zituztenak edo, Administrazioak deitu zituenak, hauek izan ziren, ordena berari jarraituz: Javier Mongelos, Roberto Motriko, Jose Luis Raico, Alfonso Gorroñogoitia, Juan Angel Beldarrain, Felix Ormaetxea, Constantino Dacosta, Victor Mintegua eta Valentin Zamora. Unibertsitateek beste bi kontseilari eskaini zituzten; horrela, erakundearentzako babes zientifiko eta akademiko bat bilatu nahi zuten, elkarriketarako eta interes kooperatiboak adosteko zentroa zen aldetik. Kontseilariak hauek izan ziren: Dionisio Aranzadi, Deustuko Unibertsitateko ordezkaria; eta Juan Pedro Landa, Euskal Herriko Unibertsitateetik zetorrena.

Erakundearen osaera idazkari batekin itxi zen. Hasiera batean, eta 208/1982 dekretuaren xedapen bidez, Lan Departamentuko Kooperatiben Saileko Buruak hartu zuen kargua. Pertsona horri Kontseiluaren funtzionamendua eta barne gestioa ikuskatzea zegokion. Postua Emilio Olabarriari esleitu zitzaion. Olabarriak ondo asko eza gutzen zuen kooperatibismoa eta horrek erraztu egin zuen, Administrazioak izenda-

¹⁷ IAT

¹⁸ Buitrón, *Análisis estructural*, 167-168

tutako hiru kontseilariekin batera, Administrazioarekiko erlazioa eraginkorra eta onurgarria izatea.¹⁸

Autonomia Erkidegoko legegileen gogoan, erakundea definitzeko orduan, bi erreferentzia instituzionalek izan zuten garrantzia: bat, Frantziako Conseil Supérieur de la Coopération delakoa, 1918an sortua; eta bestea, Lankidetzaren Goren Kontseilua, Errepublika garaiko Kataluniako autonomia erkidegoak 1934an sustatu zuena. Halaber, biek ere lotura zeukaten, katalana frantziarrean inspiratuta baitzegoen. Dena den, Kontseiluak izan zuen erreferente instituzional nagusia hauxe izan zen: autonomia erkidegoko Administrazioak Administrazioaren beraren eta hainbat solaskide eta eragi-

Emilio Olabarria, Kontseiluko idazkaria, Iradier kaleko egoitzako bere bulegoan



le sozialen arteko topagune izateko eta interes publiko eta pribatuak adosteko sortutako erakundeak martxan jarri izana. Erakunde horien xedea zera zen: autonomia erkidegoko Gobernuak erabakiak hartzeko eta arauak lantzeko modua arinagoa, errazagoa eta eraginkorragoa izatea, horretarako Administrazioaren lana arinduz. Erakunde horiek, batez ere, Lan Harremanen Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua izan ziren.¹⁹

Kontseilua, beraz, esperimentu autonomiko berriaren eta jarduera publikoak arrazionalizatzeko irizpideen zati gisan jaio zen. Baina hala ere, erakundeak bazituen bere berezitasunak. Bai bere formulazioagatik bai lortu nahi zituen funtzioengatik, ez zen 7/1981 Gobernu Legean aurreikusitako egitura juridiko-administratiboetako bakar batera ere ondo egokitzen. Ondorioz, sui generis erakunde zena, Legeak sortua, autonomia erkidegoko diru partidek finantzatu baina, aldi berean, izaera pribatuko enpresa mugimendu bat ordezkatu nahian zebilena.²⁰ Berezitasun hori, beharbada, anekdota hutsa irudituko zaio irakurleari, baina arazo bat baino gehiago ekarri zuen behin martxan jarri zenean, jarduteko autonomia hartzen zuen heinean eta pertsonalaren nahiz bitartekoen hornidura egokia eskatzen zuen heinean; izan ere, ikusi zen bezala, dena oso mantso joan zen, Kontseilua murgildurik zegoen lausotasun juridikoa zela eta.

Gainerakoan, lausotasun juridiko horrek aktibo nabarmena eskaintzen zion erakundeari. Kontseiluak, bere diseinu ireki eta integratzaileari esker, Administrazioaren eta kooperatibisten arteko etengabeko hitzarmen moduko bat bermatzen zuen, zeina, funtsean, partaidetzaren printzipio politiko eta konstituzionala baitzen.²¹ Printzipio hori funtsezkoa izan zen, hala euskal autonomiaren idealean nola mugimendu kooperatiboaren tratamenduan, zeren eta kide anitzeko erakunde honen eskutik, interes kolektiboa zeukaten kontuetan herritarrek parte hartzeko diseinu batean kooperatibak sartzeari bilatu baitzen. Horrenbestez, Kontseiluaren antolaera demokratikoa ez bazen ere, bertako kideek zeukaten ordezkaritzari esker, herrialdean kooperatibismoaren presentzia indartu zeneko sektoreetan parte hartzea aktibatu egin zen, eta elkarritararako, adostasunerako eta elkartzeko lana gauzatu egiten zen bertan biltzen ziren interesen artean.

Autonomia Erkidegoko legegileen gogoan bi erreferentzia instituzionalek izan zuten garrantzia: bat, Frantziako Conseil Supérieur de la Coopération eta Kataluniako 1934ko Lankidetzaren Goren Kontseilua

Kooperatiben Goren Kontseilua

¹⁹ Ibid, 21-22, 129-130, 136-137

²⁰ Ibid, 147-151

²¹ Ibid, 102-107, 163

Kontseiluak, bere diseinu ireki eta integratzaileari esker, Administrazioaren eta kooperatibisten arteko etengabeko hitzarmen moduko bat bermatzen zuten

1993ko urriaren 23an, Kontseiluak bere hamargarren urteurrena bete zuten; horren harira, Gasteizen izan zen ekitaldi xume-xumean, karisma handiena duten kontseilarietako batek, Alfonso Gorroñogoitiak, erakunde honen bizitzako lehen aldiko giltzarriak ulertzeko funtsezkoa den hitzaldi bat eman zuten. Oroipen hitzaldiaren izenburua “Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren oraina eta geroa” izan zen. Mintzaldiak funtsezko ardatz bat izan zuten, eta ardatz horren inguruan mamitu zuten erakundearen bizitzako lehen hamarkada markatu zuten jardueren eta eztabaiden gaineko interpretazioa: erakundeak izan zituen presidentetzak. Gorroñogoitiaren iritziz, Kontseiluaren historia markatzeko modurik onena ondoz ondoko presidentetzak bereiztea zen. Kontseilari gehienek egonkortasuna dela eta, presidentetzak ziren, aldatuak zirela tarteko, erakundearen aldien gaineko zenbait berezitasun agerian uzten zutenak.

Gorroñogoitiaren interpretazioa tentuz irakurri beharra dago. Kontseilari gutxi izan zuten Arizmendiarrietaren dizipulu beterano eta Arrasateko esperientziaren kortsuak honen protagonismoa eta karisma. Orduan, Euskadiko Kutxako presidente gisan parte hartzen zuten. Euskal kooperatibismoaren figurarik nabarmenenetakoa zen, Arrasateko esperientzian Arizmendiarrietak txertatu zuten umiltasun printzipioei erabat leiala. Horregatik, Kontseiluaren ibilbidea presidentetzan aritutako pertsonetan zentratzea, neurri batean, protagonismoa alde batera uzteko modu bat zen, zeren bestela, protagonismo hori kontseilariengana zuzenduko zen eta, beraz, Gorroñogoitiari berari egokituko zitzaion oso modu nabarmenean. Gorroñogoitiak oso argi zeukan Kontseiluak ez zeukan zerbait, hain zuzen, orientazio presidentzialista zela. Presidenteek, ez orduan ez orain, ez zuten inoiz erakundearen gobernu erpina ordezkatu, ez beren hautapenagatik ez beren funtzioengatik. Aitzitik, Kontseiluak beti jardun izan zuten (eta hala diseinatua zegoen) kide anitzeko organo gisan eta barne demokrazia tentu handiz zainduz funtzionatzen zuten. Kontseilari bakoitzak boto bat zeukan, eta horietako gehienak kooperatibetako ordezkariak zirenez, haien borondateak kooperatibismoarena ordezkatzeko zuten.

Hala ere, prebentzio hori gorabehera, Alfonsoren interpretazioa, guztiarekin ere, zuzena zen. Erakundearen bizitzako lehen urte haietan parte hartu zuten guztien memorian, beti dago faktore pertsonalak jokatu zuten rolari eskainitako espazio garrantzitsu bat, hasierako definizio eta helburuan oso lausoa zen erakunde haren traktzio gakoa izan zena: “Kontseiluan beti utzi zuten arrasto handiagoko erakunde bultzatzea eta presidente izatea egokitu zitzaizkien pertsonen arrasto pertsonalak, bultzada politikoak baino”.²² Horrek azalduko luke zenbait kontseilari izan zuten garrantzia; esaterako, Gorroñogoitiak izandako garrantzia. Eta horrek justifikatu egiten du, nolabait, pre-

²² JMZT

sidentetzak bereiztea, gerora presidente izandako batek iradokitzen duen bezala: “Nire ustez, [Kontseiluak] zeuzkan gauza onen artean bat, zera zen: ekimen handiko presidentea izanez gero, hainbat gauza irabazita zeneukala. Ekimena zeukatenek [gaiak eta eztabaidak proposatzeko], azkenean, beren ekimenen %95ek aurrera egiten zuela ikusten zuten”.²³ Izan ere, ekimen horrek kontseilari gehienek lanerako konpromisoaren bermea eta pizgarria izaten zuen; eta baita kontseilariok presidentetzekin partekatzen zuten ahalmen exekutatzaila ere. Hori hala, erakunde honetako oraingo arduradunak arrazoiz esan dezake lehen urte haietako historia “konpromiso pertsonalaren historia” izan zela.²⁴

Badira Gorroñogoitiaren planteamendua babesten duten beste faktore bi ere, hemen egindako kontakizun historikoan eragingo dutenak. Lehena, erakundearen etapa bakoitzean bai lehendakariak bai kontseilariak izandako “izaera komunikatiboa”.²⁵ Presidenteei dagokienez, erakunde kolegiatu, demokrata eta parte hartzaile batean ziharduten izendapen politikoko pertsonak ziren, eta denak zeuden jabeturik soilik erabakimenez eta adostasunez egindako lanak egin ziezaiokeela mesede Kontseiluaren gestioari, izan zezaketen baldintzatzaila politikoa gaineko edozein zalantza ezabatuz. Bigarrena, are inportanteagoa, erakunde honen funtsezko ezaugarria baita, Kontseiluko bilkurek izan zuten “exekutibotasuna” izan zen. Kontseilari guztiek, lehendakariak eta idazkariak hilean behin egiten zituzten bilera haiek “Batzorde Betearazlearen” rola betetzen zuten, benetako euskarri betearazle baten gabeziaren lekua hartuz, kontseilari aitzindarietako askok eskaini zioten dedikazioari esker: “Inportantea da garbi gelditzea hastapenetan kontseilari horiek egindako lana, zeren eta lan horrek ez baitzuen behin-behineko ordezkaritza lan batekin inolako zerikusirik izan; lan hartan, ordezkaritza eta exekuzioa uztartzen ziren, eta han zebiltzanak ‘aitzindariak’ ziren, ‘kontseilari’ bainoago.”²⁶

Kontseiluaren lehen urteak eztabaida zentral batek markatu zituen. Eztabaida hura bilkura guztietan egon zen presente: Kontseiluaren izateko arrazoia. Izan ere, “jaio berri den erakunde orok lehenik heldu beharreko gaia, bere identitatea zehaztea da, hau da, zehaztu behar du, eta jabetu, zer den, zein den edo zertarako den. Zeren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eraketa argitaratzea jaiotza agiria argitaratzea baino ezer gutxi gehiago baita, kasu honetan euskal Legegintzaren erditzea

Erakundearen funtsezko ezaugarrietakoa Kontseiluko osoko bilkurek izan zuten exekutibotasuna izan zen

²³ Javier Sanzen Testigantza (hemendik aurrera, JST)

²⁴ AIT

²⁵ Juan Luis Arrietaren Testigantza (hemendik aurrera, JLAT)

²⁶ JLAT

²⁷ AGT



Humberto Cirarda, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko lehen presidentea

Lehen urteak eztabaida zentral batek markatu zituen: Kontseiluaren izateko arrazoia

zorionekoa izan bazen ere”.²⁷ Izan ere, 1982ko Legeari horrenbeste leku eskaintzeko arrazoia hauxe da: erakundearen “gurasotasuna” hari zor zaiola.

Kontu egin Lege horrek eman ziola Kontseiluari “jaiotza agiria”, Gorroñogoitiak urte haiek oroitzean adierazi zuen bezala. Dena den, gerora, kontseilari beteranoak ohartarazi zuen legeaz, benetako identitate propio bat modu kolektiboan, parte hartzearen eta eztabaidaren bidez egituratzeko beharra etorri zen, zeren hori ez baita “desio noble bat formulatzearen ondorio espontaneo besterik gabe, baizik eta lan saiatu eta jarraiki baten emaitza, jaiotzeko ‘helburu sozialaren’ edukia betetzera zuzendua, lehentasunak eta sekuentziak ezarriz eta, azken finean, erakundeari antolakuntza, bitartekoak eta portaera ildoak eskainiz”.²⁸

Kooperatiben Goren Kontseiluan identitateari buruz izandako eztabaida prozesu mantsoa izan zen, eta eztabaida horretan sekulako eragina izan zuen erakundearen zeregina soilik modu iragankorrean zegokion jarduera batean zentratu behar izateak, hots, artikulazioan eta, horrekin batera, mugimendu kooperatiboaren ordezkartzan. Horrek azaltzen du prozesua horrenbeste luzatu izanaren zergatia, mugimendu kooperatiboa federazio eta Kontseilu moduan egituratuta, bere ordezkaritza funtzioa galdua, bere benetako funtzio berezietan erantzuten gogoia bildu ahal izan zuen arte. Erabateko eskasian hasitako eztabaida hartan zeharo murgilduta egon ziren ia hamar urte haietan izendatutako berrogeita bat kontseilariak. Izan ere, hasieran, kontseilari aitzindari haiek ez zuten eduki gaur egun egintzat jotzen dugun guztia, erakundeak lortu duen egonkortasun materiala nolakoa den ikusita. Egoitza propiorik ere ez zuten izan. Lehen hiru urteetan egoitza ibiltaria izan zen eta horren eraginez, bilkura egiteko, hiru euskal lurraldeetan sakabanatutako eraikin publikoak erabili behar izaten ziren. Lehen bilkura, esaterako, Gasteizko Udaletxeko areto eder batean egin zen.²⁹

Hara eta hona ibiltzeak bere ondorioak izan zituen zeren eta, Humberto Cirarda lehen lehendakariaren hitzetan, horrek “Kontseiluaren eraginkortasuna mantsotu” egiten baitzuen.³⁰ 1984an egindako komentario horrek egoerak ez zekarrela ondorio positiborik berresten du. Ezer gutxi gehiago egin zitekeen, azken finean, aurrekontu falta baitzen arrazoi nagusia, urte haren amaieran aitortu zuen legeaz.³¹ Baina ez zen diru kontua bakarrik izan, zeren garai hartan bazegoen esplizitu bihurtu gabeko borondate

²⁸ AGT

²⁹ A. 1983.2.17; Alfonso Gorroñogoitia, *Presente y futuro del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi*, Gasteiz, 1993ko urriaren 23a. Alfonsori eskertu nahi diot dokumentu bikain hau lagatzea. Dokumentuaren berri Javier Sanzen bitartez izan nuen.

³⁰ A. 1984.5.16.

³¹ A. 1984.10.16.



Kontseiluaren lehen lokalaren inaugurazioa, Manuel Iradier kalean, ezkerretik eskuinera: Javier Divar (EKGK-ko presidentea); Jose Antonio Ardanza (Eusko Jauriaritzako lehendakaria); Jon Azua (Lan sailburua)

instituzional bat, Kontseiluaren bilerak autonomia erkidegoa egituratzen zuten hiru lurralde historikoetan fisikoki txertatzean zetzana. "Alkimia intelektual" lausoko arrazoiak izan ziren baina, aurrekontu faltarekin batera, egoera hiru urtez luzatzen lagundu zuten. Orduantxe, Kontseiluak goraka zihuan eraginkortasun bat lortu zuen unean, 1986ko otsailean, Javier Divar presidentea zelarik, Gasteizko Manuel Iradier kalean lehengo bulegoak inauguratu ziren. Lorpen horretan garrantzi handia izan zuen Ignacio Uribarri kontseilariaren lan nekaezinak. Uribarri etxebizitzeko kooperatibetako ordezkaria zen, eta denetariko gorabeherei egin behar izan zien aurre; horrek irekitzeko lizentzia eskuratzea atzeratu egin zuen; baita lokala erosi eta egokitu ondoren ere.³²

Urte haiek ez ziren errazak izan. Hutsalena ere falta egin zen. Hala, Kontseiluak hilabete bete zuenean, Presidenteak Eusko Jauriaritzari proposatu behar izan zion, aho bateko onarpenez, zigilu bereizledun "folio propioak eduki ahal izatea". Eta logo bereizle baten faltan, gabezia estetikoak betetzeko Euskadiko armariaren zigilura jo zen, hau da, euskal autonomiaren ikurrera.³³ Anekdotak arrunt hauetan ikus daitezkeen, Kontseilua euskal autonomiaren adar txiki-txiki bat baino ez zen; hain txikia ezen

Kontseilua euskal autonomiaren adar txiki-txiki bat baino ez zen

³² Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 6; A. 86.2.12.

³³ A. 1983.2.17.

proposamenak eta bilkurak idazteko orriak ere Gobernuarekin partekatu behar zituen; eta ez gara orain eraikinez eta lan egiteko lekuez luzatuko... Izan ere, orduan inporta zena, Arizmendiarrietak jo eta ke gogoratzen zuen Machadoren esakun hari jarraiki, "ibiliz bidea egitea" zen.

Nortasun kooperatiboa

Intendentzia eta azpiegitura kontu horietatik harago, hasierako urte haietan, bilkuren ardatza Kontseiluaren identitateari buruzko gaiak hartu zuen. Eztabaida, erakundearen "jaiotza agiriaz" kontseilariak egiten zuten interpretazioan zentratu zen, hau da, Kooperatiben Legearen 70. artikuluan, non haien izaera eta xedeak zehazten baitziren. Eztabaida bilkurarik bilkura luzatu zen, kontseilariz kontseilari, paragrafo bakoitzaren analisi xehatuaren bidez. Aipatutako analisi hartatik ondorioztatu zen denek ematen ziotela funtsezko garrantzia mugimendu kooperatiboaren funtzio ordezkatzailerik eta sustatzaileari, funtzio horrek baldintzatu beharko baitzuen, batetik, euskal Administrazioarekiko solaskidetzaz; eta bestetik, legezko araubide kooperatiboa hobetzeko eta interes komunekiko zerbitzuak sortzeko lana, hasi arbitrajetik eta zerga eta marketin aholkularitza eta abarrekin buka.³⁴

Ez da zaila irudikatzea proposatutako eztabaida zailtasun ugariakoa zela, ia-ia "eratzeko" aldian hasi baitzen, asmoetan handia baina asmo horiek gauzatzeko gaitasunean txikia zen legegintza mandatu baten pean. "Ez zen erraza izaten Kontseiluak heldu beharreko lehentasunak zein ziren erabakitzea. 'Hasiberrien karrarekin' nola edo hala jantzirik, eta Zuzenbidearen diziplinak dakarren hersturara ohitu barik, hamaika bidezidor irekitzen ziren (iradokitzaileak, desberdinak eta dibergenteak), kontseilariak bertatik ibiltzeko gonbidapena eginez".³⁵

Bidezidor horiek guztiak Kontseiluaren lehen urteetan ibili ziren. Urte horiek, gutxi gorabehera, aipatutako Cirarda eta Divarren presidentetzetan bil daitezke. Eztabaidak biziak izan ziren; horren fede ematen zuten Emilio Olabarriak jasotzen zituen bilkura aktek. Akta horiek, batzuetan, ordutegi atzerapenekin hasten ziren quorum falta zela eta: Kontseiluaren aldi ibiltariaren ondorio logikoa.³⁶ Baina, behin quoruma lortuta, eta hori bilkura guztietan gertatu zen, ordu asko ematen ziren hizketan eta iritziak trukatzeko; eta aktek horren fede ematen dute baita, bilkura bakoitzaren itxiera ordua idatziz emana dago eta.

Gasteizko Iradier kaleko egoitzako Ekitaldi Aretoa



³⁴ A. 1983.2.17 eta hur.

³⁵ AGT; antzeko hausnarketa JLATn

³⁶ Ikus, eta askoren artean adibide dira, A. 1984.1.26 edo A. 1984.5.16.

Hala bada, batzuentzat Kontseiluak izan behar zuen "kooperatibei eragiten zieten arazo guztiak, jainkozkoak zein gizakizkoak, konpondu behar zituen halako 'ukendu hori' bat, hasi finantzaketatik, eta barne antolakuntza, merkaturatze eta lehiakortasunarekin buka, kooperatibek haren aginduz bereganatu beharreko ildo argien bidez". Beste batzuentzat, berriz, "garbitasun kooperatiboa' egiaztatuko zuten praktika funtzionalak aldarrikatzeko foro bat" izan behar zuen. Eta bukatzeko, ez zen falta izan "Kontseiluaren funtzio bakarra kooperatibentzako ahalik eta sos gehien ateratzea zela uste izan zuen buruargirik".³⁷

Alfonso Gorroñogoitiaren testigantza argigarria da ikusteko kontseilarien artean bazirela askotariko buruerak erakundea ulertzeko, eta haren azken komentarioa gogoan hartu beharko dugu hurrengo hamarkadako lehen urteetan kooperatiben federazio berrien babesa ekarriko zuten eztabaidak hobeto ulertzeko. Gainerakoan, bilkuretako aktetan, halako ideia handientsuak, handinahi samarrak eta ametsezkotik gutxien daukatenak azaltzen dira. Ikus, bestela, etxebizitzaren kooperatibismoarekin lotutakoak. Zenbait kontseilarik Kontseilua "etxebizitza berriak eraikitze eta jabeen eta auzokideen kooperatibak eratze" erakundea izan zitekeela pentsatzera iritsi ziren. Kooperatiba horien bidez, gainera, "euskal hirietako alde zaharrak" berreskuratuko zirela pentsatzen zuten.³⁸

Eztabaidarik sutsuenen artean sutsuena, zalantzarik gabe, Kontseilua euskal kooperatibismoa ordezkatzeko izan zezakeen ahalmenari buruzkoa izan zen. Kontseilari askok uste zuen ahalmen hori abiarazteak, artean asoziazio mugimendurik ez zegoelarik, murrizturik uzten zuela ahalmena hasieratik, nolabait esateko. Horrek eztabaida gehiago ekarri zuen, ordezkari, ordezkagarritasuna eta halako kontzeptuak ahalmen horri egokitzearen gainean. Laneko lehen bilkuran bertan, Humberto Cirarda eztabaidan murgiltzera behartuta sentitu zen. Eztabaidaren hastapenak ziren, eta Cirardak argitu zuen Kontseiluaren "ordezkari instituzionala", batez ere, Administrazioarekiko eta erakunde publikoekiko harremanetara zuzenduta zegoela, eta ez zegoela zertan berez "ordezkari eta are gutxiago ordezkagarritasuntzat hartu behar, bere izaera propioa zela eta". Eztabaida horiek garrantzi handiko kontu batetik abiatzen ziren: nolatan egingo zuen bateragarri Kontseiluak bere izaera publikoa, izaera pribatuko asoziazio erakunde batzuen funtzio ordezkatzailerekin? Huraxe izan zen, bilkura hartan, Dionisio Aranzadi Deustuko Unibertsitate ordezkariak planteatutako gaia, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren integrazteko asmoa zalantzan jartzen zuena, izan ere, Aliantza "nazioarteko erakunde pribatu" bat zen.³⁹

Eztabaidarik sutsuenen artean sutsuena Kontseiluak euskal kooperatibismoa ordezkatzeko izan zezakeen ahalmenari buruzkoa izan zen

³⁷ AGT, Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 4-5

³⁸ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 5

³⁹ A. 1983.2.17.

**Eztabaidagaia zen
Kontseiluak zein ahalmen
eman beharko ote zion
bere buruari mugimendu
kooperatiboaren
egituraketan esku
hartzeko**

Eztabaidaren garrantziaz jabetzeko, kontu egin hiru urte geroago artean bilkuretako programazioan jarraitzen zuela. Hala, 1986an ondo sartuta, "Kontseiluaren kanpoko partaidetzei buruzko ildoen" inguruko eztabaida batean, orduko presidentea zen Javier Divarrek bere aurrekoaren ildotik esku hartu behar izan zuen, gogoratu "Kontseiluak Euskadiko mugimendu kooperatiboa ordezkatzeko duela baina ez dela ordezkatzailerik", eta kontraesan hori erremediatzeko beharrezkoa zela "mugimenduari ordezkagarritasuna izango zuten federazio pribatuak" abiaraztea.⁴⁰ Eztabaidari ekin zion kontseilariak antzeko interbentzioak gogoratu zituen umorez, eta "kontzeptualizazio juridikoko benetako perlatzat" jo zituen, eztabaida nabarmen alferrikakoak ekarri baitzituzten. Izan ere, "Goren Kontseilua 'ordezkagarritasunik gabeko ordezkari organo bat' izateak ezinago harrigarria iruditzen zitzaion nire 'sasiletradu' burmuinei, zeren eta dirudienez, ordezkariaren Legeak dohainik ematen eta aitortzen duen eskumena baita, baina horrek ez du esan nahi Kontseiluaren erabakiek kooperatibentzako agindurik dakartenik, ezaugarri hori 'ordezkagarritasunetik' eratortzen baita".⁴¹

Baina, "kontzeptualizazio juridikoaren perla" horietatik harago, eztabaidagaia zera zen: Kontseiluak zein ahalmen eman beharko ote zion bere buruari mugimendu kooperatiboaren egituraketan esku hartzeko. Izan ere, lantegi horretan barruraino murgiltzen bazen, hartu beharko zituen erabakiek ez zuten kooperatibetan oso harre-
ra ona izango, eta seguruenik, ezta kooperatibok ordezkatzeko zituzten kontseilarien artean ere.

Bestalde, eztabaida horiek, era berean, erakundeari dagokionez kontseilarien artean zeuden bi jarreraren arteko borroka (guztiz dialektikoa, jakina) islatzen zuten: "alde batetik, halako ekimen bat mantsoa zela eta gauzak herri administrazioaren erritmoak errespetatuz egin behar zirela konturatzen zirenean", eta bestetik, "hala edo hola organoa lehenbailehen gauzak egiten hastea nahi zutenena, erakundearen eraginkortasuna, zentzua eta abar agerian gera zedin".⁴² Eta borroka horretan, erakundearen ordezkariaren ahalmenaren gaiak hor zirauen, zeren ordezkagarritasun horrek ahalbidetuko baitzuen erabakiak bizkor edo ez hain bizkor hartu ahal izatea.

Aipatutako jarrera biok bilkuretan gauzatu ziren, izan ere, identitate kontuen inguruan eztabaidatzeko denbora luzea izan bazen ere, denbora horrek ez zituen bilkurak amaitzen, eta, 1983ko otsailaren 17tik bertatik, erakundearen laneko makineria abian jartzea ibiliz egiten deneko" esakunea hasieratik egon zen hor erakundearen funtzionamenduan. Hain zuzen ere, lehen saioan bertan "Azterketa Batzordeak" eratzea proposatu eta onartu zen, planteatutako lehen helburuak gauzatzeko jardun zuten. "Bidezko xedez

⁴⁰ A. 1986.9.2.

⁴¹ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 5

⁴² JMZT

(hala filosofikoak nola praktikoak). Bost ziren helburuak: Instituzionalizazioa, ordezkagarritasunean eta funtzioei lotutako gaietan sakondu zuena; prestakuntza, kooperatibetako estatutuak legeria berrira egokitzera bideratua; zerbitzu komunak, kooperatibentzako interes komunekoa zerbitzuak programatzera zuzendua; legegintza eta araugintza garapena, kooperatibismoari eragingo zioteten legeria eta arauetan esku hartzeko prozedura prestatzera bideratua; eta barne araudia, barne funtzionamendurako araudi bat eta Gobernu nahiz Administrazioarekiko komunikazio araudi orokor bat diseinatzea helburu zuena.⁴³ Batzorde horietan, lana oso dinamikoa zen eta horrek aukera ematen zien kontseilari aktiboenei edo karisma handikoenei bertan parte hartzeko, aztertu beharreko gaiak gidatuz, lehenetsunak eta metodologiak iradokiz, etab.

Batzordeetako lan hasiberri horri esker, erakundeari esleitutako zerbitzu eta epai betearazle asko martxan jartzen hasi ziren. Hala, 1983ko azaroaren 17an, Kontseiluaren funtzionamendu Araudia argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Hura izan zen Kontseiluaren lehen gestio tresna, horretarako aukeratutako Batzordearen marko barruan landu eta eztabaidatu zena. Kontseilua, bitartean, administrazioaren organo aholkulari aktibo bat bihurtu zen. Behin eta berriro, dokumentu publikoak kontseilarien eskuetatik pasatzen hasi ziren, aztertu, orraztu eta legebiltzarrean aurkezteko. Dokumentu gehienon zeregina, herrialdean beherantz zetorren ekonomia eta enpresa jardura dinamizatzea zen; hortaz, kooperatibismoari ere eragiten zioten. Lehenengoari dagokionez, esperientzia profesionalik gabeko gazteak eta familia ardurak zituzten emakumeak elkarrekin kooperatiboetan integratzea sustatzeko neurriak arautzeko dekretu bat izan zen, 1983ko irailean jaso zena. Hari beste asko gehitu zitzaizkion, esaterako, kooperatiben asoziazionismoa arautzeko dekretu bat, 1984ko abenduan, etab. Horiek guztiak erakundeek kooperatibismoaz zeukaten kontzeptu batera biltzen ziren, alegia, kooperatibismoa bide ekonomiko positibo eta itxaropenezkoa zen ideia.⁴⁴

Aldi berean, Cirarda presidente izan zeneko urte haietan ere, kooperatibei aplikagarri zitzaien diziplina erregimenaren gaineko Legearen aurreikuspenen garapena gertatu zen, batzordean. Gai labaina zen, kooperatiba gaietan eta legeriak ematen zion ordezkaritza ahalmenari buruzko gaietan erakundeari emandako "sustapen juridikoari" loturiko zereginetik abiatuta. Zenbait kontseilari ezin zuten ahalmen hori bere gain hartu, horrek gai labainetan jardutea eskatzen zuen eta. Izan ere, Gorroñogoiak azpimarratu zuen legez, Kontseiluaren bilkurak diziplina gai horretan esku hartzeko egiten zuen ahaleginak "kontseilariaren bat ikaragarri gogait eraginda uzten zuen, nahiz

⁴³ 1983.2.17 B.

⁴⁴ A. 1983.9.29; 1984.10.16; 1984.12.4.

⁴⁵ Gorroñogoiak, *Presente y futuro*, 6; A. 84.1.26.

⁴⁶ *Ibid.*, 6-7

Gorroño goitiak ohartarazi zuen bezala, helburu nagusia mugimendu kooperatiboaren egituraketa instituzionala zen

eta ez zen sekula Aldizkari Ofizialean agertu".⁴⁵ Aitzitik, "kooperatibetako estatutuak Lege berrira egokitzeko dekretu famatua" bai zabaldu zen esparru publikora. Dekretua kooperatibak halako ezinegon giroan zeudela landu zen, zeren eta "denbora gutxi zen Estatuko legerako beste egokitzapen bat bukatu zela".⁴⁶

Mugimendu kooperatiboaren egituraketa

1984aren hasieran, Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren ikurra zeramaten folioak erabiltzen hasi zen, ordurako bere izen propioa ere bazeramatenak. Anekdotak horrek islatzen duena da erakundea egonkortasunera iristen ari zela poliki-poliki, etengabe gorantz zetorren jardura dinamika bati esker. Baina dinamika hark, 1984. urte hasieran Gorroño goitiak ohartarazten zuen bezala, ez zuen helburu zentraletik arreta galazari behar, eta helburu zentrala hauxe zen: mugimendu kooperatiboaren egituraketa instituzionala, "horrekin, kooperatibei eragiten dieten proiektu arauemaileen irizpen proiektuei inportantzia kendu barik".⁴⁷ Hala, urte hartako udaberrian, gai horri buruzko eztabaida hasi zen, non aipatutako kontseilariak aktiboki parte hartu baitzuen: "Euskadiko mugimendu federalistak ez du bultzadarik izan kooperatiben eskutik. Zalantza izpirik gabe, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bere egituraketaren alde egin behar du behar funtzionalak eta operatibotasun beharrak direla eta, zeren eta asoziazionismoa doktrina kooperatiboari berez dagokion zerbait baita (eta) hala, kooperatibismoak indar politikoa izango baitu".⁴⁸

Ikus daitekeenez, Kontseiluaren edozein ekimen, bere izaerari nahiz funtzioei oso lotuta egon arren ere (eta gutxi izango ziren egituraketa kooperatiboa bezain lotuak), beti pasatzen zen kontseilarien arteko nahitaezko eztabaidatik, non ekimen horren gaineko interbentzioaren ildo nagusiak diseinatzeko baitziren, gero batzorde bereziek gauzatu eta, azkenik, bilkuran eztabaidatu eta onartzeko. Elkarrizketa eta demokrazia, erakundearen jarduna dinamizatzen zuten funtsezko tresna biak ziren. Dena zegoen eztabaida eta onarpena eskatzen zuten aukeren pean.

Esate baterako, asoziazionismo kooperatiboari buruzko gaian, berehalaxe berretsi zen Estatuan ez zegoela eredu asoziatibo bakarra, baizik eta bi. Mugimendu federatibo bat egin zitekeen adarka edo sektoreka, eta ondoren denak konfederatu, Kataluniako ereduan egiten zen bezala; edo kooperatiba guztiak hartu eta federazio

⁴⁷ A. 1984.1.26.

⁴⁸ A. 1984.5.16.

bat egitearen aldeko apustua egin zitekeen, Andaluzian egin zuten bezala. Eredu bakoitzak bere abantailak eta alde txarrak zituen, eta denak hartu ziren kontuan.

Era berean, lehen aukeraren aldeko apustua egin zenean, Arrasateko esperimentuak ordu arte sustatutako lurralde ereduarekin kontrastatu egin behar izan zen, nahiz eta garai hartan eredu hori norabide sektorialerantz aldatzen ari zen. Eztabaidaren puntu gorenetako askotan parte hartu zuen Emilio Olabarriaren iritziz, eredurik egokiena sektoriala zen, “merkatuaren errealitaterako funtzionalagoa eta egokiagoa baita, eta kooperatibak merkatuko eragile ekonomikotzat jotzetik abiatzen baita, eta ez izaera alternatiboa edo erreformatzailea duten enpresa eredutzat jotzetik abiatuta”. Bien bitartean, jarraitu beharreko politikari buruzko orientazio hauekin paraleloan, gai horri heltzeko beharrezkoa zen neurri bat abiarazi zen, alegia, kooperatiben errolda fidagarri bat lantzea eta ondoren asoziazio adar bakoitzaren araberako estatutuen eredu bat egitea.

Horri guztiari iraganetik jarauntsitako beste arazo batzuk gehitzen zitzaizkion, esaterako, urte amaieran Olabarriak ohartarazi zuena. Izan ere, azkenean hautatu zen federazioen proiektuak Francoren garaian sortutako “federazio eta uteco-etatik geratzen den hondar egiturari” gainjartzeko arriskua hor zegoen, eta horrek zera zekarren: edo arazoari ezikusi egitea, edo “hondar” egitura horietako ordezkariekin negoziatzea.⁴⁹

Gai horiei guztiei buruzko azterketak egiteko, lan batzorde bat jarri zen martxan eta federazioan sartzeko moduko sektore bakoitza ikertzeko enkargua egin zitzaizen kontseilari ospetsu batzuei, identifikazio historikoari eta ingurunearen ezagutzari erreparatuz. Helburua, egituraketa prozesua gidatuko zuten estatutuak prestatuz joatea zen. Hala, Alfonso Gorroñogoitia lan elkartuaren sektoreaz eta kredituaren arduratuz; Valentin Zamora eta Juan Angel Beldarrain landa sektoreaz, eta Constantino Dacosta, berriz, kontsumoaren sektoreaz. Ondoren, bilkurak, federazio estatutuak lantzeko eta jardunaldi kooperatiboak prestatzeko batzorde bat izendatu zuen. Jardunaldi horiek asoziazio prozesuaren hasiera jendaurrean zabaltzea ahalbidetu zuten.⁵⁰

Egituraketa prozesuak, Cirardaren presidente aldiari hasi zenak, ez zuen fruiturik eman hamarkadaren amaierara arte. Bitxia da: gaur egun taldekatze horien natu-

**Egituraketa prozesuak,
Cirardaren presidente
aldian hasi zenak, ez
zuen fruiturik eman
hamarkadaren
amaierara arte**

⁴⁹ A. 1984.5.15; 1984.9.13; 1984.10.16.

⁵⁰ 1984.9.11 B.

⁵¹ JMZT; JST



Hezkuntza Kooperatiben Federazioen eraketa, ezkerretik eskuinera: Jose Ramon Zubizarreta, lehen presidentea; Luis Irazabal (Kontseiluko presidentea), Jose Ignacio Arrieta (Lan sailburua); Hezkuntza Saileko ordezkaria, Txema Valdecantos (idazkaria) eta Luis Maria Mallona (Kontseilu Errektoreko eta Federazioko kidea)

raltasunak eraman gaitzake kooperatiben artean halako bulkada bat zegoela pentsatzera, eta bulkada horrek ez zuela adierazpiderik izan Kontseilua martxan jarri zen arte. Eta hori inondik ere ez zen hala izan. Kooperatiben arteko egituraketa prozesuak interes gutxi edo bat ere interesik ez zuten sortu, behintzat sorrera garai hartan: “Inork ere ez zuten gogo beroz hartu, bai ordea eszeptizismoz”.⁵¹

1986ko urtarrilean, Kontseiluko bilkura kooperatiba federazioen estatutuaren zirriborroaz eztabaidatzen ari zen jadanik. Apirilean, Javier Divar Presidente zelarik, federazioak eratzeko lan metodologian zentratzera pasatu zen eztabaida. Eztabaidetako aktetan, kontseilari guztiek euren lanean jarritako gogoberoa ikus daiteke. Jarraitutako metodologia oso ondo azaldu zuen Gorroñogoiak, eztabaida horietan izandako interbentzioetan: eratzeko aukerarik handiena zeukaten federazioak hautatzea (landa, lan elkartua eta etxebizitza), “federazio gutxi baina ondo eginak” sortzeko, eta federazioon errolda eguneratua lantzea; interesdun guztiak sektoreko ordezkariekin

⁵² 1986.1.15; 1986.4.16 B.



kontaktuan jartzea Kontseiluan, laguntza eta informazioa jasotzeko xedez; aurrez bilera bat deitzea, eta ondoren talde bakoitzeko batzorde gestore bat izendatzea.⁵²

Nekazaritza Kooperatiben Federazioaren eraketa, Luis Irazabal buru

Prozesua geldoa izan zen, kooperatibismoaren arlo bakoitzean arazoak askotarikoak baitziren; izan ere, horixe adierazi zuten sektore bakoitzeko lan taldeetako bozeramaile gisa ari ziren kontseilariak. Kontsumoaren arloan, aipagarriena zen kooperatiba txikiak beldurra zeukatela Eroskik federazio proiektuan izan zezakeen eragin nabarmena zela eta; etxebizitzaren arloan, borondate politiko ezari zioten beldurra; eta hala jarrai genezake, federatutako sektore bakoitzean garbituz joan ziren errezelo edo arazoak zerrendatuz. Bilkura bakoitzean, Kontseilua aurrerapenak baloratuz joan zen, federazio prozesuari pausoz pauso jarraituz, lan eremu bakoitzeko arduradunek egiten zuten deskripzioaren arabera: Dacostak, kontsumoaren arloan; Gorroñogoitiak, lan elkartuaren arloan; Ulibarrik, etxebizitzenean eta Zamorak, berriz, nekazaritza arloan. 1986ko Kooperatibismoaren gaineko Jardunaldietan, Emilio Olabarriak aurkeztutako txostenean erakundeak garatutako jarduera anitza azaltzen zen: kooperatibak federazio elkarteak zituen abantailez sentiberatzea; elkartzearen printzipioaren eta, era bere-

⁵³ Emilio Olabarria, "Lineas para la reforma del marco legislativo con especial referencia al cooperativismo", *Hirugarren Jardunaldiak*, 1986, 78

Lan prozedura: arazo bat detektatzea; arazoa aztertzeke batzorde espezializatu bat sortzea; osoko bilkuran emaitzen gaineko bateratze lana, eta haren proposamenei buruzko eztabaida eta onarpena.

an, zenbaitetan izaten zen ez elkartzeko borondatearen gaineko pedagogia publikoa; federazioaren estatutuen prestaketa...⁵³

Kontseiluaren jarduna ez zen asoziazionismoa sustatzeko eta egituratzeko ildo horretan agortu; ez eta lehenago aipatu dugun Administrazioarekiko aholkularitza jardunean ere. 1984an, ekimen multzo hau guztia martxan jartzen ari zen bitartean, Kontseiluak bereganatua zuen arbitraje funtzio ahul bat arazo kooperatiboetan. Funtzio hori berari ez zegokion arren, euskal kooperatibei buruz bildutako ezagutza eta informazioari esker, jakin zekien zeregin horren eskaera handia zela: "zenbait erakunde kooperatibotan gatazka jakin batzuk arbitraje prozeduren pean jarri nahi direla ikusi denez, horretarako, proposatzen dena da dagokion arbitraje prozedura egituratuz joango den Batzorde bat egotea". Izan ere, "legeria kooperatiboa oso konplexua da eta epaileek oso gaizki ezagutzen dute. Epaiak oso desberdinak ziren eta, gainera, kooperatibismoak, betidanik, komunitate barruan konpondu nahi izan ditu bere arazoak".⁵⁴

Ikus daitekeenez, laneko prozedura beti zen berdina: arazo bat detektatzea, ingurune kooperatibotik etorritako behar edo eskaera; arazoa aztertzeke batzorde espezializatu bat sortzea; Batzordeak emandako emaitzen gaineko bateratze lana bilkuran eta haren proposamenei buruzko eztabaida eta onarpena. Kontuan izanik Kontseiluak ez zuela artean arbitrajearen inguruko eztabaidarik abian jarri, ordu arte hainbat kontutan murgilduta egona baitzen, eztabaidan argi geratu zen, Gorroñogoiak esan zuen legez, "beharrezkoa da zuzenbideko profesionalak parte hartzea, bilduko lirakeen arazoen espezifikotasuna dela eta". Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari zen Juan Pablo Landak, bere lan akademikoa eta kontseilari zeregina bateragarri egiteko zituen zailtasunak zirela eta, Kontseilua utzi egin zuen. Hala, arlo horretan funtsezkoa izan zen ordezkaria etorri zen: Jose Maria Suso. Kontseilari berria 1985ean sartu zen, horren ezezaguna eta mundu kooperatiboentzako horren beharrezkoa den alor horretan Kontseiluaren zeregina gidatzeko eztabaidaren erdi-erdian sartu ere.

⁵⁴ A. 1984.11.13; JMST.

KONTSEILUA EGONKORTZEA

Administrazioarekiko lankidetzeta

Javier Divarren presidente aldia 1986. urtean hasi zen, eta Kontseiluak ekintzarako espazio berri bat egokitu zuen legeria autonomikoak emandako eta ordu arte geroko utzitako beste funtzio batzuk bideratzeko, hots: prestakuntza eta heziketa kooperatiboa. 1986ko otsailean, bilkuran lankidetzeta akordio bat eztabaidatu eta onartu zen Lan Sailarekin, gradu ondoko unibertsitateko ikasleentzako heziketa kooperatiboko programa bat prestatzeko. Presidentea, unibertsitate mundutik zetorrena, oso sentibera zen ekimen harekiko.

Baina, berria izanik ere, proiektuak bazuen aurrekaririk. Aipatu dugun legez, 1982an Eusko Jaurlaritzaren kooperatibismoaren gaineko eztabaidarako jardunaldi akademikoak egiten hasi zen, eta urtero antolatzen zituen. Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak sustatutako jardunaldi horietan, Emilio Olabarriak modu aktiboan parte hartu zuen, eta nahiz eta Lan Saileko teknikari moduan agertu, edonork zekien Kontseiluko Idazkari ere bazela. Gauza bera egin zuten beste kontseilari batzuek ere, hala nola Javier Divarrek berak edo Kontseiluko lehenengo Presidente izandako

Kontseiluko bilkura Manuel Iradierreko egoitzan, ezkerretik eskuinera: Alfonso Gorroñogoitia, Constan Dacosta, Felix Ormaetxea, Juan Angel Beldarrain, Jose Luis Areico, Jose Maria Zeberio, Javier Mongelos, Jose Maria Suso, Javier Divar, Ignacio Uribarri



Humberto Cirardak. Hain zuzen, Cirardak, Talde Harremanetako sailburuordea zen alde-tik, 1983an argitaratutako akten liburuaren hitzaurrea sinatu zuen. Hitzaurre horretan, topaketa horien garrantzia aipatu zuen, zeren eta hala, Lan Sailak “urtean behin behintzat, unibertsitateko irakasle, tituludun, Legebiltzarreko nahiz Eusko Jaurlaritzako kide eta kooperatibistekin (...) HEZIKETA KOOPERATIBOKO topaketak egiteko” borondatea erakusten baitzuen: “elkarte kooperatiboetako gaiak aztertzeke interes eta ahalegin partekatu-tua”.⁵⁵ Urte haiek oroitzean, Gorroñogoiak aipatu zuen Administrazioarekin lankidetzan aritzeko zeregin hori ez zela behar beste kontuan hartu, nahiz eta oso garrantzitsua izan, zeren, izan ere, Espainian garai hartan egiten ziren Jardunaldi bakarrak baitziren.⁵⁶

Lan Sailarekiko 1986ko akordioak, beraz, aurrez abian jarria zegoen kooperatibismoa hedatu eta aztertzeke lan bat zabaltzea ekarri zuen, aipatutako jardunaldietan parte hartuta. Akordio horren emaitza hauxe izan zen: Kontseiluak heziketa kooperatiboko urteroko ikastaroak martxan jarri zituen, kontseilariak eta Idazkariek ematen zituztenak. Hala, Felix Ormaetxeak “pentsaera kooperatiboari” buruzko ikastaro bat prestatu zuen; Emilio Olabariak “legegintzari” buruzko beste bat; Gorroñogoiak, berriz, “kredituko kooperatibismoaren” gainekoa; Zeberioak “nekazaritza kooperatibismoari” buruzkoa, etab.

Ikastaroak 1987ko udazkenean eman ziren eta jarraipena izan zuten hurrengo urteetan. Aipagarria den mugarrri bat osatu zuten, zeren eta Kontseiluak bere funtsezko eskudantzietako batekin zeukan konpromisoa formalizatzen baitzuten. Baina, batez ere, ekimen horren prestaketak erakusten duelako erakundeko kide guztiak kontuz-kontuz ibili zirela baliabide publikoak xahutzea -xahutzerik txikiena ere- ekar zezakeen gehiegizko eskudantziarik nahiz egiturarik ez bereganatzeko. Erakundearen ezaugarri horrek gaur egun arte iraun du eta berriz agertu zen aurrerago, pertsonal propioa izateari buruzko gai labaina aztertu zenean.

Aurrekontuaren kontrolarekiko sentiberatasunaren adibide dugu Gorroñogoiak egindako ohartarazpena, “hezikuntza jardueraren finantzaketa publiko-ari eta kostu-eraginkortasun mailari zor zaien errespetuaz” jardun zuenean. Izan ere, zalantzarik gabe, Alfonso Gorroñogoiak izan zen, kontseilarien artean, erakundearen identitatearen tasun sendo hori gordetzen gehien saiatu zenetariko bat. Juan Luis Arrietak ederki adierazi zuen legez, moraltasun “frantziskotarra” baino ez zen, kooperatibismoaren bizkarrezurrean txertatua zegoena eta Arizmendiarieta maisuak formulatu zuena, baina, era berean, euskal kooperatibismoaren tradizio nagusian hor zegoena. Beti botere publikoarekiko autonomiatik eta konpromiso sozialetik eraikitako

Erakundeko kide guztiak kontuz-kontuz ibili ziren baliabide publikoak xahutzea -xahutzerik txikiena ere- ekar zezakeen gehiegizko eskudantziarik nahiz egiturarik ez bereganatzeko

⁵⁵ Humberto Cirarda, “Prólogo”, *Segundas Jornadas de Cooperativas de Euskadi*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983, 7

⁵⁶ Gorroñogoiak, *Presente y futuro*, 8, 17

**Moraltasun
“frantziskotarra” zen,
kooperatibismoaren
bizkarrezurrean txertatua
zegoena, betiere botere
publikoarekiko
autonomiatik eta
konpromiso sozial
aktibotik eraikia**

kooperatibismoaz ari gara, non austeritatea funtsezko balioztat jotzen baitzen. Eta balio horrek oso presente egon behar zuen bere elkarte egituraketa sustatu behar zuen erakundeetan.⁵⁷

Hedapen eta heziketa kooperatiboaren arloan, baita ere, urte haietako beste mugarri bat aipatu beharra dago, alegia, Kontseiluaren parte hartzea Euskal Mundu Biltzarrean. Eusko Jaurlaritzak antolatutako saio akademiko horrek aukera eman zion autogobernurako eskubidea berriz ere aitortu berri zitzaion komunitate honi nazioartean ezagutzera emateko eta bere errealitate ekonomiko, politiko eta kulturala aurkezteko. Han izan zen Kontseilua ere, Javier Divar ordezkari zuela, batzorde antolatzaileko kide gisan, eta Gorroñogoitiaren hitzetan, Biltzarra “elkarri ekarpenak egitearen, kalitate zientifikoaren eta nazioarteko komunikazioaren erakuskari berezia izan zen, eta arlo batean, Kooperatibismoaren Biltzarrean, Kontseiluaren parte-hartzea inportantea izan zen”.⁵⁸

Gainerakoan, aipatutako ekimenek betetzen duten hedapen kooperatiboaren arloa estuki hartuta, detekta daitekeena zera da: Kontseiluak konpromiso irmoa hartua zuela Administrazioarekiko lankide gisan, Administrazioak kooperatibismoaren alde abiarazitako ekimen guztietan. Berriz ere, aholkularitzarena izan zen konpromiso hori ondoen islatu zeneko arloa. Horren erakusgarri, 1986an Eusko Jaurlaritzak abiarazitako garrantzi handiko ekimen publiko batean izandako parte hartzea, “zeina, nire ustez, gurearen homologoa den erakundeen artean bakarra den”, eta “Enplegurako Euskal Konpromisoa” izenburua zuena.⁵⁹

Ekimen hori ez zen izan Kontseilura aldizka bidaltzen ziren agiri horietako beste bat, Administrazioetik aginduzko txostena egiteko. Proiektu publiko hark ez zion kooperatibismoari bakarrik eragiten; izan ere, kooperatibismoa hausnarketa orokor batean integratzen zuen, hain zuzen ere, herrialdea jasaten ari zen krisi ekonomikoari aurre egiteko hausnarketa batean. Proiektuan, Eusko Jaurlaritzaren apustua hauxe zen: kooperatibismoa aholkatzeko moduko formula bat zen, autoantolaketan zetzana, krisian zeuden enpresetako langileentzat baliagarria, lehentxeago Lan Sailburuordeak kooperatibismoaren gaineko Jardunaldietan adierazi zuen legez.

Urte haietako industri krisiaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak hasieratik txertatu zuen kooperatibismoaren sustapena bere enplegu politiken ildo nagusietan. Ildo horiek honela gauzatzen ziren: langabeziaren aurkako eta kontratazio zuzeneko

⁵⁷ JLAT; A. 1986.2.12.

⁵⁸ A. 1986-6-19; Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 16

⁵⁹ A. 1986.6.19; 1986.11.12; Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 16

epe laburrerako programetan, eta baita epe ertainekoetan ere, irakaskuntza ertainen modernizazioan eta lanbide heziketan, gazteen lan prestakuntza hobetu eta garai berrietara egokitzeko. Garai hartako Enplegu Zuzendari izandako Carlos Aldasororen hitzetan, "Euskadi enpresariak, enpresari gazteak eta behar besteko gaikuntza teknologikoa behar ditu, munduko merkatuei aurre egiteko". Eta, eremu horretan, kooperatibismoaren rola funtsezkoa zen, "alternatiba izan daiteke eta". Hortik dator "formula kooperatiboaren egokitasuna gazteentzako enplegua sortzeko erakunde gisan", adierazi zuen aipatutako jardunaldietan Emilio Olabarriak, izan ere, horixe zen Eusko Jaurlaritzaren enplegu politikaren printzipio gidarietako bat. Formula horren aldeko sostengua agerian geratu zen 42/1983 Dekretuan. Dekretu horrek zera biltzen zuen: kooperatibek edo lan sozietateek sustatutako erakundeak sortu eta indartzera bideratutako ekintzak; aholkularitza tekniko iraunkorra gestioaren arloan; eta enpresetako arduradunei zuzendutako prestakuntza jarduerak. Jarduera horiek guztiek Kontseiluaren beharrezko aholkularitza jaso zuten.⁶⁰

Testuinguru horretan sartu zen aipatutako enplegu zuzentaraua. Jon Azua Lehendakariordeak aurkeztu zuen 1986an izandako bilkuran, eta hurrengo bilkuretan eztabaida sakona izan zen haren inguruan. Eztabaida hori amaitzeko "gure ikuspuntua jasotzen zuen txosten luze bat egin zen, bai dokumentua osatzen zuten elementuei zegokienez, bai ezartzeko proposatzen ziren mekanismo praktikoei zegokienez. Txostena 1987ko otsaileko bilkuran onartu zen. Hura izan zen Alfredo Ispizua joaten zen lehenengoetako bilkura. Ispizua, garai hartan, Kooperatibetako Zuzendaritza eta Gizarte Ekonomiako teknikaria zen, eta akten Idazkari gisan joan zen, zeren eta Idazkari titularrak, Olabarriak, zailtasun handiak baitzituen funtzio hori eta betetzen hasi berria zen kargu politikoa (Madrilgo parlamentarioa) bateragarri egiteko.

Bere txostenean, Kontseiluak konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzaren - "bere eragin eremuan bertan"- enplegu politikarekin lankidetzara aktiboan aritzeko. Asoziazio mugimenduaren egituraketa zen lankidetzara hori funtsatuko zuen bitarteko-etako bat, behin federazioak eratuta, "horien bitartez, jaitsieran edo geldiketan eragin lezaketen kausetan eta, betiere (eta bereziki sektore kooperatiboan), enpleguaren hazkunde oztopatzen duten faktoreen diagnostikoan sakondu liteke eta". Beste kasu batzuetan, lankidetzara honelaxe formalizatu zen: "prestakuntza ikastaroak eta heziketa kooperatiboko gainerako jarduerak enplegu sorkuntzara bideratuz", "gradu ondokoak hobetzeko, kooperatiben eta Euskal Administrazioaren arteko hitzarmenak finkatuz" eta, azkenik, "Euskadin erroldatutako kooperatiba guztietara 'Enplegurako euskal kon-



Javier Divar, EKGG-ko presidentea 1986an

⁶⁰ Cirarda, "Prólogo". 9; Carlos Aldasoro, "Política de empleo del Gobierno Vasco y Cooperativismo", Euskadiko Kooperatiben Hirugarren Jardunaldiak, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1984, 18-19; Emilio Olabarria, "Líneas para la reforma del marco legislativo", 30-31

promiso bat' sintesi didaktikoa transmitituz, kooperatibok beregana lezaketan erronkaren zatia onartzera bultzatuz".⁶¹

Ikus daitekeenez, Kontseiluak ez zuen ezer berritza bilatu; soilik nahi izan zuen, kooperatiba gaitan, bere pedagogia eta hezkuntza, sustapen eta lankidetzaren publikoko funtzioak enpleguari buruzko ildo autonomiko berrira egokitzea. Laburbilduz, bide egokian aurrera egiten ari zen, beraz, eskumen edo erronka berriak hartzea ez zen beharrezkoa; kontua zen Kontseilua sortzeko aldiaren propiotzat jotako helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean praktikan jartzea, besterik ez. Eta, paradoxikoa badirudi ere, lan horrek, Administrazioarekiko gero eta lankidetzaren handiagoa ez ezik, Administrazioarekiko gestioaren progresiboki autonomia lortuz joatea ere eskatzen zuen.

Administrazioarekiko autonomia

Kontseiluak lana eta funtzionamendua antolatzeko jarraibide argiak lortu eta egonkor-tuz zenean, eta lorpen hori Humberto Cirarda presidentea izan zen garaian koka daiteke, orduan jarduera handiko etapa bat gertatu zen, Kontseiluak Administrazioetik jaso zituen eginkizunetan oinarrituta. Hori ezinezkoa izango zen batzordeen eta aldizkako bilkuren mekanismo eraginkorra barik, mekanismo horrek erakundearen "nortasun propioa" argitzea ahalbidetu baitzuen, eta hori hizkera soziologikoan borondate "proaktiboa" esaten zaion horretan funtsa liteke; hau da, kooperatibismoari buruzko eztabaida eta hausnarketari uko egin gabe, erakundeak kooperatibismoaren aldeko zeregin zehatzak egitea bilatu zuen, bere ardurapeko bateko eta besteko arloetan.

Horren adibidea dugu enplegurako politika publikoaren sustapenean aipatutako lankidetzaren, izan ere, lankidetzaren horrek zereginak dimentsio horretara bideratu beharra ekarri zuen bakarrik; ez ordea zereginon birformulaziorik. Hala, Administrazioarekiko aholkularitza eta lankidetzaren lanak bere eragina zeukan, gainerakoak berrelikatuz. Lan hori aipatutako enplegu politika publikoaren sustapenean, Euskal Mundu Biltzarrean, prestakuntza kooperatiboko jardunaldietan, lege proiektuei buruzko aldizkako informazioan eta abarretan islatu zen. Hala bada, Herri Administrazioarekiko lankidetzaren gero eta handiagoa zen, eta gero eta ageriagoa, Divar presidente izan zeneko aldiaren.

Pentsa litekeenaren aurka, botere publikoarekiko goranzko lankidetzaren hori ez zen oztopo izan, aldi berean, erakundearen autonomia progresiboa gerta zedin.

Botere publikoarekiko lankidetzaren gero eta handiagoa ez zen oztopo izan, aldi berean, erakundearen autonomia progresiboa gerta zedin

⁶¹ A. 1987.2.25; El Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi ante 'Un compromiso vasco para el empleo', Gasteiz, 1987ko otsailaren 25a

Aitzitik, aipatutako mekanismo berrelikatzaile eta proaktiboaren ondorioz, lan arlo bateko errefortzu positiboak azkenean bere eragina izaten zuen gainerakoetan eta, azkenik, baita Kontseiluaren berezitasunean ere, kooperatibismoa sustatzeko erakunde autonomoa zen aldetik. Jakina, prozesu hori ez zen pertsona zehatz baten obra, erakundea kide anitzekoa baitzen. Hala ere, ezin da ahaztu prozesuan pertsona batzuek izan zuten eragina, Javier Divarrek izandakoa, esaterako. Urte haietako kontseilari batek gogoratzen duenez, Divarrek “oso ideia argia zeukan Goren Kontseilua / Administrazioa erlazioei buruz. Ideia horrek gainditu egiten zituen Gobernu bakoitzak Kontseiluan proiektu zitzakeen mendekotasunak, Kontseiluaren osaera mistoa zela eta; hau da, enpresa kooperatiboaren independentzia Herri Administrazioarekiko”.⁶² Seguruena, Divarrek, berritzen bainoago, aurreko presidentetzatik jarauntsitakoa laburbiltzen asmatu zuen, eta jarauntsitako hori erakundearentzako onuragarriena zen bidean jarri zuen, hau da, jarduteko autonomian. Bien bitartean, kontseilarien ekintza eta asmo orokorrak bideratu zituen, horiek baitziren erakundeari ekintzaren jarraitutasuna ematen ziotenak. Izan ere, Presidentearen kargua lotuegi zegoen artean politika autonomikoaren gorabehera eta politika hori baldintzatzen zuten oreka politikoei.

Divarren Presidente aldiaren Kontseiluaren eta Administrazioaren arteko erlazioak izandako eztabaidetatik eratorritako “Autonomia arduratsuaren” kontzeptua giltzarri dugu Kontseiluaren eraketak, erakunde autonomo gisan, une hartan izan zuten aurrerapen berezia ulertzeko. Kontzeptu horrekin, euskal kooperatibismoaren nortasuna berresteko premia aipatu nahi zen, kooperatibismoaren eta Administrazioaren arteko erlazio marko zuzen bat taxutuz, non “lankidetzaren” printzipioa izan beharko zen nagusi, balizko “mendekotasun” paternalista bat bainoago.

Hondo-irudi horretan bildu ziren, urte haietan, lehen aipatutako administrazioarekiko lankidetzaren zereginak osatu zituzten ekintza ugariak. Alde batetik, erakundearen lehen egoitza soziala prestatu zen Gasteizko Manuel Iradier kalean, atzerapen askoren ondoren, azkenean 1986ko ekainaren 19an inauguratu zena, Lehendakaria bertan zela. Ignacio Uribarrik etxebizitzaren kooperatibetako kontseilari ordezkari gisan eskainitako azken zerbitzua izan zen, sei hilabete geroago bere kargua utzi baitzuen, 1987ko otsailean, zehazki. Gertaera harekin, azkenean, erakundearentzako espazio propioa eskuratu zen. Horrek autonomia eskaintzen zion automatikoki, zeren eta azkenean inoren lokalak erabiltzetik eta identitate propioa izateko beharra duen edozein erakundearentzat horren kaltegarria den batetik bestera ibiltzetik libratu baitzen.⁶³

Divarren “autonomia arduratsuaren” kontzeptuak euskal kooperatibismoaren nortasuna berresteko premia aipatzen zuen, kooperatibismoaren eta Administrazioaren arteko erlazio marko zuzen bat taxutuz

⁶² Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*, 7.

⁶³ JLAT; Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*, 8; A. 1987.2.25.

Urte horietako neurri izar gisan, Kontseiluaren lehen Estatutua prestatzeari ekin zitzaion

“Autonomia espazialaren” testuinguru horretan, Kontseiluaren jarduerak aurrerapen nabarmena izan zuten. Hala, lehen aldiz, nazioarteko kooperatibismoarekiko erlazioak hasi ziren, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzarekin eta Europako Lan Kooperatiben Konfederazioarekin, zehazki. Estrategia argi baten hasiera izan zen, hots: Kontseiluak erakutsi nahi zuen euskal kooperatibismoa ordezkatzeko nahikoa garrantzia zeukala, nazioarteko estamentu kooperatiboetan ahots propioa izan nahian. Era berean, Cirardaren Presidentetzako proiektu izar bati amaiera eman zitzaion, zeina 1982ko Legeak kooperatibismoa arautzeko zuen grinan kokatzen zen: zehapenen araudia. Hori gertatu izanaren arrazoia zera izan zen: “lehentasun urgenteagoak zeudela eta gai horiei buruzko arauketa bereziki jarraitzen ez zieten bestelako elkarte batzuekiko konparaziozko bidegabekeria gerta zitekeela ulertu izana”.⁶⁴

Eta, urte horietako neurri izar gisan, Kontseiluaren lehen Estatutua prestatzeari ekin zitzaion, bere bizitza organikoaren segurtasun juridiko ahalik eta handiena bermatzeko asmoz. Zoritxarrez, Gobernu Kontseiluak zirriborroa ia onarturik zuela, azkenean ez zen formalki gauzatu, Eusko Legebiltzarra deuseztatu eta 1986ko urrian hauteskundeak izan zirelako. Gertakizun horrek proiektua berrikustea ekarri zuen Kontseiluaren bilkuraren eskutik, eta izapidetzea erabat gelditzea erabaki zen, federazioak eratuta egongo ziren unera arte. Izan ere, behin federazioak martxan jarrita, Kontseiluaren estatutuak berriz aldatu beharko ziren, egin beharreko eskudantzi purga zela eta. Hori dela eta, kontseilariak, baldintza politikoak hartararuta, ulertu zuten hobe zela erakundeak zituen funtzioen behin-behinekotasunarekin amaitzea erakundeak arautzeko dekretu bat landu aurretik.⁶⁵

1986ko ekainean Iradier kaleko lokaletan izandako Kontseiluaren lehen bilkura bukatzeko, inaugurazio ekitaldi bat izan zen, non Jose Antonio Ardanza Lehendakariak kontseilariak hartu baitzituen. Bilkura hura horregatik gogoratzen bada ere, horretaz gain, bilkura garrantzizkoa izan zen askoz ezezagunagoa den arrazoi hau dela eta, hots: bilkura horretan ordu arte Eusko Jaurilaritzari proposatutako aurrekontuko partidarik handiena onartu zen. 56 milioi pezetatik gorako eskaera zen. Eskaera hainbat partidatan banatua zegoen eta partidok horretarako sortutako Batzordeak finkatu eta arrazoitu zituen. Batzordea presidenteak, Ignacio Uribarrik eta Juan A. Beldarrainek osatzen zuten.⁶⁶

Certaera horrek garrantzi handiko esanahia izan zuen Kontseiluaren autonomia estrategiarako, agian egun bereko egoitza inaugurazioaren esanahi sinbolikoak

⁶⁴ Gorroñogoitia, *ibid.*, 8.

⁶⁵ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 8; 1986.1.12 B.

⁶⁶ A. 1986.6.19.

baino handiagoa. Izan ere, erakundearen funtzionamendurako aurrekontuaren hazkunde handiak erakusten du sendotuta geratu zela administrazio autonomikoaren organigraman; eta horrek erakundearen funtzionamendu autonomo eta eraginkorra indartu egiten zuen. Horren adibide argigarria dugu pertsonal falta zela-eta planteatutako arazoa. Eta ez zegoen halakorik, erakundearen funtzionamendu eraginkorra, non administrazio eta gestio lanak, bilkuren eta batzordeen deialdiak, aktak betetzea, idatziak, txostenak, inprimakiak, gutunak eta abar idazteko lanak biltzen baitziren, Emilio Olabarriak egiten zituen eta; eta Olabarriarekin batera, Lan Saileko beste lankide batzuk ibiltzen ziren lanean, hala nola Txema Zaldua eta Alfredo Ispizua. Azken hori, aipatu dugun bezala, Olabarriaren zereginenez gero eta gehiago arduratzen hasi zen, izan ere, Olabarriaren zereginotan Madrilgo kargua interferitzen hasi zen 1986tik aurrera. Bilkuretako aktek Olabarriaren hutsegite justifikatuak jasotzen dituzte. Hutsegite horiek Ispizuaren parte hartze gero eta handiagoak orekatu zituen, bereziki urte berriko otsailetik abiatuta, harik eta Ispizuak "idazkari akzidental" gisan jarri arte, 1987ko maiatzean. Hala ere, Ispizua bera eta administrazioko nahiz kontabilitateko teknikari guztiak, Sailak lagatako teknikariak baino ez ziren. Hala bada, Kontseiluaren jarduera eta lanak ikaragarri hazi baziren ere, hazkunde hori zurrundu egiten zuen pertsonal propioaren faltak, batez ere erakundearen eguneroko gestioaren garapenean inplikaturako idazkari nagusi baten eta administrari baten faltak.⁶⁷

Zaila zen gaia ebaztea, eta gaia tratatzeko modua oso argigarria da lau urte beteak zituen erakundearen mugak norainokoak ziren ikusteko. Muga horiek, alde batetik, barnekoak ziren, erakundearen izaera "frantziskotarretik" eta, ondorioz, baliabide handirik ez izatetik eratorritakoak, baliabideok ez xahutze aldera. Hori oso eraginkorra zen, baina zaildu egiten zuen soberakineko aurrekontu bat izatea eskatzen zen Idazkari Nagusi Teknikoaren kargua hornitzeko. Bestalde, kanpoko mugak, Kontseiluaren araudi erregulatzailaren estutasunaren ondoriozkoak, hor zeuden. 1987an izandako bilkuretan agerian geratu ziren muga horiek. Testuinguru hartan, argi zegoen Olabarriak ezinezkoa zuela bere lanekin jarraitzea eta Sailarentzat zaila zela eskudantzia gehiago izango zuen teknikari egonkor bat erakundeari eskaintzea. 1987ko martxoaren 25eko bilkurako aktan Alfredo Ispizuak jasotakoaren arabera, piztutako eztabaidaren berri eman ostean, "Kontseiluak funtziona dezan dedikazio eskusiboan jardungo duen pertsona baten premia itzela bada ere", jakina zen, baita ere, izaera juridikoko arazo handiak zeudela. Araudiak ezartzen zuenez, hala presidentea nola idazkaria "gobernuak izendatuak" izan behar baitziren.⁶⁸

Gai horren konponbidea konplikatu egin zen, beste arazo bat ere bazegoen eta. Arazoa hau zen: egindako ahaleginak gorabehera, Kontseiluak halako baldintzapean

Kontseiluaren jarduera eta lanak ikaragarri hazi baziren ere, hazkunde hori zurrundu egiten zuen pertsonal propioaren faltak

⁶⁷ A. 1986.9.2; 1986.11.12; 1987.2.25; 1987.5.6.

⁶⁸ A. 1987.1.22; 1987.2.25; 1987.3.25.

Interregno luze bat hasi zen, eta Javier Mongelosek jarduneko presidentearen kargua bete zuen

politiko bati lotuta jarraitzen zuela. Esan dugun bezala, Javier Divarrek urte bukaeran utzi zuen bere postua, 1986an autonomia erkidegoan izandako hauteskunderen ondorioz izandako aldaketak tarteko. Hala ere, 1987ko lehen bederatzi hilabeteetan ezin izan zen presidente berririk izendatu, EAJk eta PSE-PSOEK osatutako lehen koalizioko Gobernua osatzearen ondoriozko inguruabar politiko-administratiboak zirela eta.

Hori dela eta, interregno luze bat hasi zen, non Javier Mongelos presidente lanean aritu baitzen eta hainbat kontseilarik euren kargua utzi baitzuten. Orduan erakundearen gerorako garrantzi berezikoak izango ziren pertsona berriak iritsi ziren, esaterako, Javier Sanz. Egoera iragankorra zen baina ez zuen garrantzizko erabakirik formalizatzeko aukerarik ematen. Hori dela eta, hil horietako jarduna organoaren mantentze administratibora eta Lan Saitetik formulatzen ziren eskakizunei irtenbidea ematera murriztu zen. 1987ko udazkenean konpondu zen dena, urriaren 14an Juan Luis Martinez Ordorikak (Lan eta Gizarte Segurantzako Administrazio Sailburuordea) Presidente berriaren kargua hartu zuenean. Hala, erakundeak bere lan erritmoa eta jarduerak berreskuratu zituen, bereziki asoziazionismo kooperatiboa egituratzeko prozesuari dagokionez.

Gainerakoan, iragan hilabeteetan erakundearen izandako egoera zein izan zen ikusita, denak bat etorri ziren erregulazio juridikoa modu eraginkorrean erreformatu behararen inguruan, zeren eta pertsonal hornidura egokia zailtzeaz gainera, presidentetzen egonkortasunari eragiten baitzion. Beharrezkoa zen administrazioarekiko autonomia prozesua amaitzea, 208/1982 dekretuan ezarritako erregulazioa indargabebetuz, Kontseiluari presidentetza automatiko bat eta dedikazio osoko pertsonal profesionalizatua emateko. Prozesuaren sustapena, interregno hilabeteetan martxan jarri zena, kontseilariak egindako gaiari buruzko azterketa kontuzko baten bidez, behin Martinez Ordorikak erakundearen gidaritza hartu zuenean amaitu zen, Martinez Ordorika Sailburuordea baitzen, eta horri esker, kargu horrek ematen zizkion autoritatea eta jarduteko aukerak balia zitzakeen. Hori hala, presidentetza berriak irekitako aldia, kontseilari berrien etorrerak aberastu zuena, bereziki dinamikoa izan zen.⁶⁹

Langile propioak

Presidentetza berriaren zehar, azkenean, Kontseiluaren autonomia gauzatu egin zen. Kontuan izan behar da interregnoaren esperientziak biziagotu egin zuela prozesua. Autonomiak, gainera, araudi erregulatzailleak Presidente karguari erantsitako "inplika-

⁶⁹ Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*, 9; A. 1987.2.25; 1987.3.23.

zio politikoa” apaltzea ekarri zuen.⁷⁰ Horrek, aldi berean, pertsonalaren gaia ebaztea ahalbidetu zuen. Urriaren 27ko Dekretu berriak 208/1982 tradizionala aldatu egin zuen, eta ezartzen zuenez, karguagatiko Presidentetza Gizarte Ekonomikoko Zuzendariari egokituko zitzaion. Era berean, dekretu berriak ezartzen zuenez, “Idazkaria Kontseiluak kontratatuko du eta, laneko pertsonal izaera izango du, ondorio guztiekin”. Idazkariaren aukeraketa (eta hori gai inportantea zen, eztabaida luzea izan baitzen hautagaiak funtzionario izaera izan behar zuen ala ez erabakitzeko) “Euskadiko Autonomia Erkidegoan, lan kontratudun langile finkoa aukeratzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituz” egingo zen. Hala, 1987ko udazkenean, erakundearen autonomia eraginkorra zailtzen zuten bi oztopo nagusiak ebaztea lortu zen, hots: Presidentetzaren izendapen automatikoa, gertatzen zen aldaketa politiko bakoitzaren arabera; eta Kontseiluko pertsonalari aplikatzeko araubidea; baita Kontseiluak pertsonala aukeratu, izendatu eta bereizteko ahalmena ere.⁷¹

Udan hasita zegoen jadanik, dekretu arauemailearen aurretik, aukeratu beharreko hautagaiak izan beharreko profilarren gaineko eztabaida. Haren ezaugarri nagusien artean, erabaki zen euskalduna izan behar zuela, ezagutza juridikoduna eta alor kooperatiboan eskarmentuduna.⁷² Azken eskakizun hori izan zen, hain zuzen, hautagaien bilaketa gehien zaildu zuena. Hala, 1987ko azaroko lehen deialdia jabegabe geratu zen, eta bigarren deialdi bat egin behar izan zen. Bigarren deialdian, epaia Juan Luis Arrietaren aldekoa izan zen, aurrez hautatutako zazpi hautagaien artean.

Idazkari Nagusi Tekniko berria Euskadiko Kutxako enpresa Dibisiotik zetorren, non kontu ikuskaritza lanak, kontabilitate egoeren egiaztapen eta kontabilitate sistemen ezarpen lanak egin baitzituen.⁷³ Gainera, Dibisio horretako Interbentzio Departamentuan lan egindakoa zen, enpresa elkartuen bideragarritasun finantzarioa ebaluatuz. Mundu kooperatiboan nabarmentzeko moduko lan ibilbidea egin zuen profesional teknikoa zen. Izan ere, hautaketa egin zuten kontseilariak bilkuran azaldu-tako epaiaren arrazoibideak azpimarratu egiten zuen hautagaiaren “konbentzimendu ideologiko kooperatiboa eta kooperatibarekiko lotura”; haren “maraztasuna, ardua eta jarraitutasuna”; “zehaztasuna eta argitasuna, egin beharreko lanean, eta solaskide [kooperatibo] posibleekiko harreman bizia”. Azkenean, beraz, “aspalditik sentitzen zen gabezia handi bat” bete zen Arrietarekin.⁷⁴

**Idazkari Nagusi Tekniko
berria Euskadiko Kutxako
Enpresa Dibisiotik zetorren**

⁷⁰ JMST

⁷¹ Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*, 9-10; Buitrón, *Análisis estructural y delimitación de funciones*, 165; A. 1987.2.25; 1987.3.25.

⁷² A. 1987.6.11.


⁷³ A. 1988.3.9; 1988.6.8; Buitrón, *Análisis estructural y delimitación de funciones*, 167-168

⁷⁴ A. 1988.8.6; Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*, 10

Arrietak Kontseiluaren funtzionamendua eta barne gestioa ikuskatu eta garatze-ko lanak bereganatu zituen. Arrietaren lanerako aztertu ziren ereduaren artean bat, Bulego Buruarena izan zen; hala ere, laster eredu hori motz geratu zen, haren erantzukizunak nabarmenki konplikatatu ziren eta. Haatik, hautapenez arduratu zen Batzordeak, printzipioz, Arrietaren egiteko nagusia horixe zela erabaki zuen eta halaxe jakinarazi zitzaion. Arrietak ezin hobeto asimilatu zituen egiteko horiek, eta hura hautatu zutenek, beren erabakiaren gaineko azalpenak ematean, halaxe gogoratzen zuten.

Hala ere, bere lana asimilatzeke baliatu zuen "zehaztasuna eta argitasuna" laster hasi zen arrakalatzen, kargua hartuaz batera aurkitu zuen lan ikuspegiarekin. Kontseiluarekin gehien kolaboratu zuten Gizarte Ekonomiako Departamentuko teknikarien aholkularitza nahikoa jaso zuen, batez ere Alfredo Ispizuaren eta Txema Zalduaren eskutik. Bi-biek, gogoratzen du, "lagundu egin zidaten, gairik inportanteak nola aurrera atera adieraziz", bereziki kontabilitate publikoko zirituen inguruan, horixe baitzen nik aurre egin beharko nuen erroka nagusietako bat. "Gogoratzen dut hiru estamentutan oinarritzen zela: baimenak, sortzapenak eta ordainketa aginduak. Gastu posible bat detektatu eta baimentzen zen arte, hiru instantziatako obligazioak bete behar ziren. Prozesua oso-oso konplikatua zen".

*Juan Luis Arrieta, EKGK-ko idazkari nagusi
teknikoa 1988an*



Arlo horretan Vicente Zubizarretaren laguntza handia izan zuen. Zubizarreta Arrietaren kide izan zen Euskadiko Kutxan eta Kontseiluaren kanpo ikuskaritzaz arduratzen zen kontsultoretza pribatu batean lan egiten zuen. Biek erabaki zuten ibilian jartzeko ezin zirela erreforma iraultzaileak martxan jarri; egindako bidea, kontabilitate publikoko kontuen planean funtsatua, errespetatu beharra zegoen. Behin erakundean kokatuta eta bere obligazio guztiak kontrolatuta, gestioa malgutu eta errazten lagundu zuten erreformak abiarazi ahal izan zituen Arrietak. Horra hor, aurrekontuaren kontabilitaterako sistema, partida biko printzipioan oinarritua, Euskadiko Kutxan egondako alditik ezagutzen zuena eta Kontseiluaren kontabilitate gestioa arintzea ahalbidetu zuena.⁷⁵

Gainerakoan, bere lanaren antolaketan poliki-poliki aldaketak egiteko prozesu bat aurrera atera zuen. Prozesuaren ardatza Presidentearekin egunero egotea zen, eta egokiena suertatu zen, segituan bete behar izan zituen funtzioak denetariokoak zirela kontuan hartuta. Izan ere, Arrietak hartu zuen itsasontzia uretan zebilen, bai, baina eskifairen zati handi bat maileguz hartutakoa zen. Horregatik, Saileko teknikariak, Arrietari aholkularitza profesionala eskaini ondoren, desagertu egin zirenean, orduantxe hasi zen haren benetako lana.

Bateko, funtzioen zehaztasunik eza, eta besteko, kooperatibismoarekin lotutako dena beraiei zegokiela irudi lezakeela-eta, lehen kontseilariak eta presidentea

⁷⁵ JLAT

lehen urteetan bezain itota sentitu zen Kontseiluak kontratatutako lehen langilea, erakundearen jarduna funtsatzen zuen oro berari zegokiola iruditu zitzaion eta. Hala, haren egunak bere karguari lotutako gutxi-asko lotutako zereginen segida batean murgilduta pasatzen ziren, hasi ebazpenei, txostenei eta abarrei irteera emateko presidentearekiko egonaldiekin, eta segi bilkura eta batzordeetako akten prestaketa, espedienteen biltegiatze eta sailkatze, kontabilitatearen gestio eta abarrekin. Dena den, horri guztiari gehitzen zitzaizkion soil-soilik administraziokoak ziren kontuak, gutunak igorri eta jasotzea, bilera deialdiak, ebaluazioa eta kontseilariei bidaia sariak ordaintzea, etab.

Arrietak gogoratzen du nola "Alfonso figura ezaguna zitzaidala eta hori gehiegi baliatuz [Euskadiko Kutxako Presidentea zelako, eta ni han lanean ibilia nintzelako], nahiz eta ordu arte aurrez aurre ezagutzeko atsegini izan ez, Idazkari Nagusi Tekniko berri gisan izan behar nituen funtzioez galdetu nion zintzoki, eta hark hau erantzun zidan: Metal-mekanika enpresa bateko administrazio zuzendari baten egitekoez galdetuko bazenit, goitik behera esango nizkizuke, baina galdera hori egiten badidazu, esango dizut funtzio horiek Tenplarioen Ordenako Priore batek izan ditzakeenen antzekoak iruditzen zaizkidala. Hau da, ibilian fabrikatuz, ia asmatuz, joan beharko nukeen kontu bat zela esan zidan. Kontseilua bizitasun bereziko erakunde bat zela erakusten bazuen, hori idazkari berriaren zereginera aldatuko zen, eta horrexegatik beragatik idazkariak arduratu behar zuen bizitasun hori bideratzeaz eta bere karguari zegokiona eta horrenbeste ez zegokiona bereizteaz. Geroxeago Lourdes Igartua administraria sartu zen. Kontseiluak aurreikusitako bigarren langilea zen eta, pertsonaleko dekretu berriaren arabera, Arrietaren beraren irizpide pean kontratatu zuten. Lourdesek, beraz, horren beharrezkoak ez ziren funtzioetatik libratu zuen Arrieta, eta hala, bere kategoria profesionalari zegokion guztian (eta ez zen gutxi) gogobildu ahal izan zen.⁷⁶

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzan integratzea

Martinez Ordorika presidente izan zeneko urte haietan, asoziazio mugimenduaren egituraketa prozesuan funtsezko aurrerapenak izan ziren. 1988ko udan, zehazki, federazio berrien finantzaketa sistema eta, horretarako, Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren enkarguz administratzen zituen funtsak nola erabili zehaztu zen. Gaia, finantzaketa horren pausoak ezartzen zituen dokumentu orokor batekin itxi zen. Helburua zen batez ere federazio bakoitzaren eraketa aldia estaltzea eta behin federazio horretan bildutako kooperatibek karga horri eusten zioten neurrian, murriztuz joango zen; hori, aurrerago ikusiko dugunez, ez zen betetzeko samurra izan.⁷⁷

Martinez Ordorika presidente izan zen urteetan asoziazio mugimendua egituratzeko prozesuan funtsezko aurrerapenak izan ziren

⁷⁶ JLAT; 1988.11.8 B.

⁷⁷ *Criterios determinantes de las subvenciones a las federaciones del CSCE*, 1988ko urria; 1988.6.8 eta 1988.9.13 B.

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren bilera Madrilen, 1990eko irailaren 16tik 22ra, Luis Irazabal presidente zela (eskuinetik lehenengoa)



Egituraketa prozesuari emandako bultzada berri horretan, zerkusi handia izan zuen kooperatiben estatutuak 1982ko Legea egokitzeko dekretu famatua gainditu izanak; dekretua Martinez Ordorikaren aurrekoak onartu zuen. Araudi horrek nabarmenki asaldatu zituen kooperatibak, zeren eta promulgatu zenean denbora gutxi igarora baitzen kooperatibak estatuko legeriara egokitu behar izan zirenetik, eta estatutuen trantsizioa bermatzeko eskakizunei dagokienez, hain zegoen hobeturik "ezen ziur bainago Euskadin ez zela egon eskakizun guztiak zorrozki betetzen zuen dozena batetik gora kooperatiba".⁷⁸

Presidente berriak 1987ko apirilean bukatzen zen araudia malgutzea erabaki zuen, kooperatiba guztiak gaindi zezaten, eta bien bitartean egokitzeko egutegiaren bukaeraren hurbilpena publikoki ezagutzera emateko ahalegin handia egin zuen.⁷⁹ Estatutuetara egokitzeko politika hori, malguagoa zena, arrakastatsua izan zen, eta horrek aukera eman zuen kooperatiba guztiak estatutuak egokiturik izateko eta, beraz, federazio talde sektorialerako azken pausoari ekiteko. Hori dela eta, orduan, asoziazio konbergentziaren bukaerako prozesua finantzatzeko aipatutako formula ebatzi zen. Gainerakoan, asoziazio sustapenaren alor horretan ekimena berreskuratu izana eta oso

⁷⁸ AGT

⁷⁹ A. 1987.5.6 eta 1987.6.11.

erroturik zeuden funtzioak mantendu izana -esaterako, funtzio aholku emailea- aldi berean gertatu ziren; izan ere, funtzio aholku emaileak zerga araubide kooperatiboaren, kreditu kooperatibismoaren erregulazioaren edo arbitraje kooperatiboaren lege proiektuei eragin zien.⁸⁰

Jardueren eta ekimenen bultzada orokor horrek Martinez Ordorikak eta haren kontseilari taldeak egindako beste lorpen bat ahalbidetu zuen, alegia, euskal kooperatibismoa Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren integratzea. Eskaera izapidetzeko espedientea, 1986ko abenduan hasitakoa, geldirik zegoen, Espainiako Estatuko beste lurralde batzuetatik zetozen erakunde horretako kideen nahitaezko aldeko txostenik ez zegoela eta. Horrek zaildu egiten zuen berez konplikatu zen prozesuaren gestioa, zeren eta Kontseiluaren alderdi publikoa ez baitzen, egia esan, nazioarteko kooperatibismoaren interes eta oinarriak biltzen zituen erakundearen erraz sartzen laguntzen zion faktore bat. Hala ere, arazo nagusia barneko sostenguen faltatik zetorrela berretsi zen. Eta gai horrek ekarri zuen Martinez Ordorika eta bere kontseilarietako bat, Jose Maria Suso, 1988ko ekainean Elkarteak Stockholmen izandako bilera batean egon izana: "Presidentearen politikari trebetasunak aprobetxatuz, [Estatuko] gure kideen babesa lortu genuen, haietako bakoitzarekin pasilloan banan-banan egon eta gero". Borondate kontua izan zen, non Martinez Ordorikaren erabakitasunak garrantzi handia izan baitzuen, izan ere, oroz gain politikari bat zen eta gai hori ezinbesteko helburutzat jo zuen. Gasteiza, atxikimendu-ziurtagiria besapean itzuli beharra zegoen. Eta halaxe egin genuen!".⁸¹

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren integratzeak irudi publikoarekin lotutako alderdi garrantzitsua izan zuen, eta horretan oso sentibera zen Euskal Administrazioa: "Alfonso [Gorroñogoitia] eta halako kontseilarietzat oso garrantzi txikikoa izan zitekeen zerbait oso gai labainkor eta garrantzitsua zen Gobernuarentzat". Izan ere, "Kontseilua espazio bat hartzen ari zen eta, hori justifikatzeko, oso inportantea zen nazioarteko instantzia kooperatiboetan ere egotea".⁸² Nazioarteko dimentsioa ematea zen kontua, ez bakarrik euskal kooperatibismoari, baita Eusko Jaurlaritzak Kontseiluari eskainitako ordezkariaren ahalmenari ere, federazioak martxan jarri artean. Hala bada, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren integratzea funtsezko helburu bihurtu zen, behin Presidentetza berriak erakundeari egonkortasuna eman zionean. Dena den, presidenteari nortasunak berak garrantzi handia eduki behar izan zuen eta, bereziki, politikari profesionala izateak; izan ere, presidentea bereziki sentibera zen irudi publikoari lotutako gaietan, eta gai horiek funtsezkoak dira politika garaikidean, nahiz eta kontseilari kooperatiboaren edo akademiko gehienek artean hori apenas baloratuko zen.

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren integratzeak irudi publikoarekin lotutako alderdi garrantzitsua izan zuen

⁸⁰ A. 1988.3.9; 1988.9.13; JMST

⁸¹ JMST

⁸² AIT; JLAT



Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren aldizkariaren azala, erakunde horren mendeurrenari eta Manchesterreko biltzarrari

NKAren Manchesterreko Biltzarra prestatzeko parte hartu zuten erakundeen artean Kooperatiben Goren Kontseilua izan zen

Kontseiluaren eta Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren arteko lankidetzaren emankorrena Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak 1995eko irailaren 23an Identitate Kooperatiboari buruz egindako azken adierazpena izan zen ("Manchesterreko Adierazpena" ere esan zioten). Adierazpen horrek, hain zuzen, identitate kooperatiboa erreformatu eta eguneratzeko elkarte barruko eztabaida luze bati eman zion amaiera. Aliantzak euskal kooperatibismoaren iritzia ezagutzeko interes handia erakutsi zuen, Euskal Herrikoa nazioarteko esperientzien artean aberats eta indartsuenetakoa baita, eta Kontseiluak, bere izaera ordezkatzaila garai hartan eratu zuen Konfederazio berriari lagatzeko puntuan zegoela, artean aukera izan zuen bere azken ekarpena egiteko kooperatibismoaren ordezkari gisan.

Manchesterreko Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak ehun urte bete zitueneko Biltzarrak identitate kooperatiboaren gaineko azterketa amaitu zuen. Erakunde hori 1988ko Stockholmeko Biltzarretik aritu zen azterketa prestatzen, eta tartean 1992ko Tokioko Biltzarra egin zen, non "Aldatzen ari den mundu baterako balio kooperatiboak" izeneko azken dokumentu bat zabaldu baitzen. Biltzar horren markoan, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren adierazpena erreferente berri batean zentratu zen: balioak. Izan ere, aldaketa hori planteatu zenean, aldaketa munduko kooperatibismoa ordezkatzeko zuten ahalik eta erakunde eta elkarte gehienekin adostea erabaki zen. Gainera, erabaki zen printzipio kooperatibo berrien azterketa eta plangintza balioetatik abiatuta egitea, aurreko jarduteko modua aldatuz ("printzipioetan" oinarritzen zena). Izan ere, azken hamarkadako bukaeran, jadanik garbi geratu zen printzipio kooperatiboak etika propio batean, oinarritzeko balioetan, oinarriturik zeudela, eta horiek haien geroko erreforma orientatu behar zutelako zutela. Berez, Manchesterreko azken adierazpena honela definitzen zituen printzipioak: "Jarraitbideak dira, eta horien bidez kooperatibek beren balioak praktikan jartzen dituzte".

Nortasun Kooperatiboari buruzko adierazpen hori, eta adierazpen horren oinarrian zegoen txostena, Victoria Unibertsitateko (Kanada) Ian MacPherson buru zuen lan talde batek landu zituen. Lantze prozesuan munduko milaka kooperatibistak eta adituk parte hartu zuten, kontsulta prozesu eraginkor baten bidez, eta hainbat zirriborro egin zen 1995eko Manchesterreko Biltzarrean aurkeztutako azken dokumentu-ira iritsi arte. Dokumentuari zenbait zuzenketa egin ostean, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak bere egin zuen. Kontsulta prozesu horretan parte hartu zuten erakundeen artean bat, Kooperatiben Goren Kontseilua izan zen, kooperatibismoaren esperientzia berezi, arrakastatsu eta nazioartean aitortuenetakoa ordezkatzuz: alegia, euskal kooperatibismoa ordezkatzuz.

Hala, 1993ko martxoaren 3ko bilkuran, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak proposatutako printzipio kooperatiboaren azterketa prozesuari buruzko hausnarketa organikorako oinarri dokumentua lantzeko Batzordea eratu zuen Kontseiluak. Batzordea hauek osatu zuten: Alejandro Martinez Charterinak, Deustuko Unibertsitateko kontseilari ordezkari



Otaloran, Arrasateko Ikerketa Kooperatiboen Zentroan, egindako bilera. Hor daude Ian McPherson, 1995eko Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren Adierazpenaren txostengilea (ezkerretik eskuinera, hirugarrena) eta euskal kooperatibismoko kideak, besteak beste, Juan Luis Arrieta, Javier Sanz, Alejandro Martinez Charterina eta Otalorako ordezkari bi

kari zenak eta bozeramaile nahiz koordinatzaile gisan jardun zuenak; eta baita Alfonso Gorroñogotia, Arantza Laskurain eta Javier Sanzek ere. Nabarmentzeko datua da hau: azterketaren lehen fasea prestatzeko helburuaz bakarrik, Batzorde horrek sei bilera egin zuen bost hilean (horietako hainbat, eta kontu bitxia da hau, Elorrion), non printzipioen inguruan eztabaidatu baitzen eta Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak bidalitako galdetegian zeuden galderekiko posizioak erabaki baitziren. Kontseiluaren jarrera zera izan zen: kolaborazioa erabatekoa izango zen, "Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak proposatutako helburuaren garrantzi" dudarik gabekoa zela eta. Ekarpenean hori hausnarketa organiko propio batean oinarritu zen, horretaz kontseilariak eta euskal kooperatibismoaren beste ordezkari batzuek egindako aurreko ekarpenetan oinarritua, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak bere galdetegia plazaratu zuenetik abiatuta. Hala, Batzordearen ordezkariak Biltzarra prestatzeko Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren bileretan parte hartu zuten, esaterako, Bruselan 1994ko maiatzaren 5ean izandako bileran.

Batzordearen iritzitik abiatuta, Kontseiluaren hausnarketa organikoa izan zen oinarritzko balioak ez zirela berrikusi behar; bai ordea "berrinterpretatu eta biziberritu", mundu kooperatiboak "bai kritikari bai munduko arazo handien konponbideei zego-kienez, jarrera berri bat, aktiboagoa eta deliberatuagoa, hartzeko" helburuarekin. Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren adierazpenaren bigarren zirriborroari egindako komentarioek zirriborro horretako atalen azterketari eta zuzenketari ekin zioten, eus-

kal kooperatibismoaren ikuspuntutik. Hala, Batzordeak landutako dokumentuan, aldatetarako proposatu ziren kooperatibaren izendapenean, "afiliazio" kontzeptuan ("atxikipen" kontzeptuarekin ordeztu zena), "demokraziarenean", "finantzaketa parekidearenean", "kooperatiben arteko lankidetzarenean", "autonomiarenean", "zerbitzuarenean", "hezkuntzarenean" eta "komunitatearenean".

Manchesterreko azken Adierazpenean, nazioarteko mugimendu kooperatiboaren, kooperatibismoaren berezitasunaren eta XXI. mendean gauzatu beharreko konpromiso kooperatiboaren garrantziaren arrazoari heldu zitzaion. Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak ohartarazten zuenez, kooperatibek etengabeko bilakaeran egon behar zuten, aldaketa jarraikiaren ardatzari lotuta, "leherketa demografikoa, gorantz doan korporazio multinazionalaren boterea, komunitateek aurre egin beharreko krisiak, ingurumenaren degradazioak dakartzan arazoak eta aldatetaren dinamikara egokitzeko erronkak eta antzeko arazoei" aurre egiteko xedez. Konpromisorik agerikoena "negozioak egiteko modu kooperatiboari laguntzea" zen. Era berean, "kooperatibistek euren erakundeek defendatzen dutenaren, erakundeon funtzionamenduaren eta beharrezko egiten dituen zergatien irudi argia proiektatu beharko dute. Irudi horrek argia izan beharko luke kooperatibei lotutako pertsona guztien prestakuntzan, kooperatibek erabiltzen duten publizitatean, gobernuekiko erlazioetan eta eguneroko jardueretan". Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak, beste herrialde batzuetako erakunde askoren artean Kontseiluaren laguntza baliotsuaz, definitutako balioak hertsiki kooperatiboak (autolaguntza, autoerantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, parekidetasuna eta elkartasuna) eta etikoak nahiz osagarriak izan ziren (zintzotasuna, gardentasuna, erantzukizun soziala eta bokazio soziala).⁸³

**Manchesterreko
deklarazioaren inguruan,
Kontseiluaren
hausnarketa organikoa
izan zen oinarrizko balioak
berrinterpretatu eta
biziberritu behar zirela**

Gainerantzean, garai hartako kontseilarietako baten testigantzan, erakundearentzat Martinez Ordorikaren Presidentetzak ekarritako aldi "operatibo eta dinamikoa" jasota geratzen da.⁸⁴ Horren erakusgarri, 1988ko urriaren 11ko arratsaldean egin zitzaion agur beroa, non kontseilari guztiek aitortu baitzioten mugimendu kooperatiboa egituratzeko prozesuari txertatu zion "dinamismo inbidiagarria"; eta baita haren portaera beti "alai, ireki eta aberasgarria" ere.⁸⁵ Izan ere, jaio eta bost urtera, Kontseilua behin betiko eraturik zegoen, "jaiotza agiritik" haragoko identitate propio batekin eta estatuko nahiz nazioarteko eremuan sendotuta, euskal mugimendu kooperatiboaren ordezkari gisan.

⁸³ *Revisión de los principios cooperativos*, 1993ko abend. eta *Comentarios al segundo borrador de la Identidad Cooperativa*, 1994ko iraila; *Actas de las reuniones mantenidas por la Comisión de reconsideración de los principios de la ACI*, 1993ko martxoa-uztaila; Alejandro Martínez Charterina, "Los valores y los principios cooperativos", *Revista de Estudios Cooperativos*, 61 zk., 1995, 35-45.

⁸⁴ AGT

⁸⁵ A. 1988.10.11.





II. KAPITULUA

TRANSIZIOA, 1989-1998

KOOPERATIBEN LEGE BERRIA

Osaera demokratiko berri horrek espresatzeko espazio publiko berrien bilaketa sustatu zuen

Kooperatibismoaren etxea

Luis Irazabalen presidentetza berria iritsi zenean, kooperatibismoa egituratzeko prozesua amaitu egin zen, ia federazio guztiak eratu baitziren, garraioena izan ezik, garraioena geroago sortu zen eta. 1988 eta 1989 bitartean, federazio horiek guztiak sortu ziren eta prozesuaren aldi berri bat ireki zen, Kontseilua berregituratzeko helburuarekin, errealitate kooperatibo berriari erantzuteko.¹

Horretarako, 1990eko martxoan, eta Kontseiluaren ohiko lan eskemari jarraituz, batzorde bat sortu zen. Batzorde hori Alfonso Gorroñogoitia, Jose Maria Merinok, Jose Maria Susok eta Juan Luis Arrietak osatu zuten. Bere helbururik behinena "Kontseiluko kideen ordezkariak irizpideak egokitzea da, behin betiko arauketa zehazten den bitartean". Batzordearen lanak aukera eman zuen ekainean izandako bilkuran federazio berriak ordezkatzeko zituzten kontseilariak beren kargua har zezaten. Ekitaldian egindako interbentzioan, Irazabal presidentek "hasi berri den aldi berriaren garrantzia" azpimarratu zuen". Izan ere, Kontseiluaren osaeran izandako aldaketa horrek euskal kooperatibismoa, haren erakunde ordezkatzailleak eta, beraz, aldaketa horiek babestu beharreko legeria ulertzeko beste modu bati ireki zizkion ateak. Kontseilari berrien zerrendan hauek zeuden: Daniel Garai eta Alfredo Montoya landako kooperatiben federazioa ordezkatzuz; Arantxa Laskurain, kontsumokoak ordezkatzuz; Alfonso Gorroñogoitia eta Koldo Urkijo, lan elkartukoak ordezkatzuz; Luis Maria Mallona, hezkuntzakoak ordezkatzuz; Juan Maria Otaegui eta Juan Angel Beldarrain, kreditukoak ordezkatzuz; Mari Carmen Abrisqueta, kontsumokoak ordezkatzuz; eta Jose Ramon Zubizarreta, hezkuntzakoak ordezkatzuz.²

Osaera demokratiko berri horrek espazio publiko berrien bilaketa sustatu zuen, non Kontseiluaren izaera azaldu ahal izango baitzen, euskal kooperatibismoaren erakunde ordezkatzaille zen aldetik. Horren erakusgarri, 1990eko Euskadiko Gizarte Ekonomiako Nazioarteko I. Biltzarraren prestaketan eta garapenean izandako parte-hartze suharra. Biltzar hura, erakundeak hartutako esanahi eta identitate berria lau haizetara zabaltzeko benetako plataforma izan zen; are gehiago, jardunaldi haietan nazioarteko ordezkariak izandako presentzia handia kontuan hartuta. Irazabalen Presidentetzaren garai hartan, gainera, Euskadiren instituzionalizazioa gertatu zen, Kontseiluaren ekimenez, Kooperatibismoaren Mundu Egunaren bidez. Urteroko ekitaldi hori, euskal kooperatibismoaren baieztapen, nazioarteko ahaidetasun, barne biziki-

Luis Irazabal, EKGK-ko presidentea 1989an



¹ 1989ko aurrekontu memoria

² A. 1990.3.14; 1990.6.14.

³ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 11 eta 17

detza eta kanpo proiektioaren ekitaldia izaten da. Erakundearen sustapen eta hedapen kooperatiborako lanari lotutako ekimen berri bat izan zen.³

Sustapen jardura indarberritzearekin batera, Kontseiluak azken bultzada eman zion estatutu erregulazioari. 1986an dekretu proiektu batekin hasitako prozesua aparkatuta geratu zen mugimendu kooperatiboaren egituraketa amaitu artean. Orduan, egitura horrek itxura bat hartu zuenean, berreskuratzea erabaki zen, azaroaren 15eko 206/82 Dekretua 1989ko errealitate berrira egokitze helburuarekin. Prestatzeko eztabaidan, Kontseiluak egiteko obligazioa zeukan ordezkaritza demokratikoaren gaia landu zen; eta baita Administrazioaren eta unibertsitateen presentziaren jarraitutasunaren edo egin beharreko aldaketen inguruko gaiak ere. Batzorde bat jarri zen martxan, non honako hauek parte hartzen zuten: Juan Luis Arrietak, Idazkari gisan; eta unibertsitateak ordezkatzeko zituzten biek, aldaketei letra juridikoa jartzeko gaitasun egokienak baitzituzten. Pertsona horiek, batez ere, Kontseiluaren osaera, bere Batzorde Iraunkorra eta presidentearen nahiz idazkariaren funtzioak eguneratzean zentratu ziren.

Garai horretan Kontseilua euskal kooperatibismoaren nazioarteko ordezkaria izateak ahalbidetu zion, urtero, Euskal Herrian Kooperatibismoaren Mundu Eguna sustatzea



Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren eraketa, Alfonso Gorroñogoitia buru

1992ko Kooperatibismoaren Nazioarteko Eguna, Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileei eskainia, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Martinez Ordorika (Lan sailburuordea), Luis Irazabal (EKGK-ko presidentea), Jose Ignacio Arrieta (Lan sailburua) eta Alfonso Gorroñoitia, Mondragoneko sortzaile ez ezik, EKGK-ko kontseilari ere bazena



Uda hartan, Batzordearen proposamenaz eztabaidatzen hasi ziren, hala zegoen-eta aurreikusita. Hainbat zuzenketa egitea onartu zen bilkuran, eta beste batzuk baztertu egin ziren, esaterako, presidentea soilik federazioen ordezkarien artean aukera zitekeela zioena. Dekretu proiektua urte bukaeran prestaturik geratu zen. Proiektuan zehazturik zeuden erakundearen ezaugarriak eta eskudantziak, presidentearen eta idazkariaren funtzioak, Kontseiluaren eta Batzorde Iraunkorren osaera, etab. Oro har, kontua zen erakundearen funtzioak eta ezaugarriak garai berrietara egokitzea. 1990ean aurrekontuak izan zuen hazkundeak ezin hobeto islatu zuen erakundeak bizi zuen hazkundera, bai helburuetan bai jardueretan.⁴

Kontseiluaren araudiak kontuan hartzen zuen Kontseiluak berak bere gain hartzen zuen erantzukizuna federazio berrien koordinazioan, haien azpiegitura beharrei erantzun eta haien zalantzazko garapen eta ekintzek behar zituzten laguntzak

⁴ A. 1989.4.13; 1989.5.11; 1989.7.13; 1989.11.16; 1990eko aurrekontu memoria



emateko helburuaz. Horrekin batera, helburu klasikoak zeuden, hala nola arbitrajea, antolamendu sozioekonomikoa legez eta instituzionalki hobetzea gai kooperatiboetan; parte hartzea espazio publikoetan eta gaiaren sustapena eta azterketa, Administrazioarekiko ekintza eraginkorraren bitartez. Dekretua 1990ean onartu zen, geldialdi labur baten ondoren, tartean Lehendakaritza Saileko Lege Garapenerako Zuzendaritzak egindako kontsiderazioak jaso ziren eta.⁵

Hasi berria zen aldi instituzionala ondoen islatzen duen mugarria, agian, egoitza berriaren inaugurazioa izan zen, Nafarroako Errege-Erreginen kalean, Gasteizen. Gorroñogoitiak orduko presidente zen Irazabalek proiektuan izan zuen "protagonismo pertsonala" oroitzen du, hainbesterainokoa non kontseilari askoren (tartean bera) alde-tiko hastapenetako mesfidantza giroan gauzatu baitzen. Mesfidantza hori oso arrazoizkoa zen. Izan ere, higiezina helburu zuen inbertsioak aparteko diru hornidura behar zuen, eta aurrekontua 120 milioi pezetara iritsi zen. Eta ezin da ahaztu diru kopuru horrek erakundearen austeritate bokazioari eragiten ziola, bokazio horren maxima ahalik eta diru publiko gutxien ahalik eta eraginkortasun handienarekin gestioztatzea izaki. Kontuan hartu behar da, horri dagokionez, urte hartako aurrekontuak ia bikoiztu egiten zuela 1989koa, zeina berez altua baitzen, lehen esan dugunez.

Nafarroako Errege-Erreginen kaleko lokal berrien inaugurazioa, 1990ean. Luis Irazabal kooperatiba gaietako sail eskuduneko karguekin, Jose Ignacio Arrieta Kontseilaria eta Juan Luis Martinez Ordonika Sailburua; zinta moztzen, Ordonika, Arrieta eta Irazabal

⁵ A. 1990.3.14.

**1986an Arbitraje
Kooperatiboari buruzko
Lege aurreproiektu bat
onartu zen Kontseiluaren
barruan**

Arbitraje kooperatiboa

Hala ere, Kontseiluaren egoitza berriaren esperientzia arrakastatsua izan zen. Federazioei “estaldura eman” eta haien “koordinazioa” errazteko erakundeak zeukan berariazko borondatea sinbolizatzen zuen. Gorroñogoiak gogoratzen duen bezala: “denboraren joanean, balorazioa positiboa da, izan ere, Kontseiluak bereganatu zituen funtzioetako bat, kooperatibetako zenbait zerbitzu zentralizatzea izan zen, eta federazioak ondoan izanez gero, ba hobeto, komunikazioa arinagoa zen, etab.”. Hala bada, egindako ahalegin ekonomikoak eta proiektuak sortutako eztabaidak, azkenean, “euskal kooperatibismoaren benetako etxea” itxuratu zuten. “Etxea” ezin hobeto prestatuta zegoen. Kontseilua eta federazioak biltzen zituen, “taldekatzeko operatibo horrek dakartzan eskalako ekonomiekin”, hau da, diru publikoen gestio arduratsu eta neurritsua ahalbidetuz. Hala, hiru urte geroago, Gorroñogoiaren (proiektuaren kontra sutsuen egin zutenetako) balorazioa aldatu egin zen: “inbertsio handia izan da eta bete-betean asmatu da; gainera, Kontseilua eta federazioak sendotzeko elementu inportantea da”.⁶

Erakundeak, ordu arte, ez zuen lehentasunezko arretarik jarri “Kooperatibari dagozkion gaietan auziak arbitratzearen” funtzioan. Hau da, gune kooperatiboan bizikidetzaz zaintzeaz eta kooperatiben artean eta, bereziki, kooperatiben barruan bazkideen artean sortutako auzi eta eztabaidetan esku hartu eta bitartekaritza egiteko betebeharrak ari gara. 1986an Arbitraje Kooperatiboari buruzko Lege aurreproiektu bat onartu zen Kontseilu barruan; hura izan zen erakundeak Eusko Jaurilaritzatik jasoa zuen sustapen juridiko kooperatiboko eskumenaren mugarrietako bat. Mugarri hura bat etorri zen eta, neurri handi batean, inspirazio iturri izan zuen auzitegien lan gainkarga prebenitu eta murrizteko egokitasunari buruz Europako Kontseiluak egin zuen Gomendio batekin; horretarako, gobernuek neurri egokiak hartu behar zituzten arbitrajea ekintza judicialaren ordezkotzat eraginkorra izan zedin.⁷

Gomendio horrek, Kontseiluak Lege bidez (70. art., 2.f puntua) jasotako funtzioa osatzen zuen zentzu horretan, eta gainera, bere historia laburra gidatzen zuten interes eta iritziak adosteko prestutasunaren onura zekarkion. Horren eraginez, erakundeak aurreproiektua landu eta hainbat juristari aurkeztu zien. Juristok aurreproiektua baztertze aholkua eman zuten, errekurtsio antikonstituzional bat ekidite-

⁶ Gorroñogoiak, *Presente y futuro*, 11; JMST; A. 89.9.14; 89.11.16; 1990 ekitaldirako aurrekontu memoria

⁷ Santiago Merino, María Pilar Rodríguez eta Fernando San José, *Manual de Arbitraje Cooperativo*, CSCE, Gasteiz, 2001



Kontseiluaren bilkura bat Luis Irazabal presidentea zela. Ezkerretik eskuinera, Jose Luis Araiko, Valentin Zamora, Felix Ormaechea, Jose Maria Larramendi, Alfonso Gorroñogoitia, Javier Mongelos, Luis Irazabal, Juan Luis Arrieta, Jose Maria Merino, Juan Angel Beldarrain eta Jose Maria Suso

ko, horrek Kontseiluak zerbitzua prestatzea atzeratuko baitzuen. Hala bada, aurre-proiektua baztertu egin behar izan bazen ere, bertantxe bildu ziren funtzio horri dago-kionez Kontseiluak etorkizunean egingo zuen erregulazioa inspiratuko zuten jarraibide nagusiak.

Hor zen, batetik, arbitrajearen ikusmolde orokor bat, zeinaren helburuak izango baitziren bai bazkideak bai kooperatibak eta kooperatiba horiek sor litzaketen elkar-teak. Gainera, arbitrajea bi fasetan banatzen zen: alde batetik, Arbitraje Batzorde Berezia eta, bestetik, arbitroaren figura, figura biok elkartu barik, lehena instrukzio kontuetaarako utziz, eta bigarrena, berriz, ebazpen kontuetaarako. Hala, arbitroa, ezta-baidagaia pertsonalki bere gain hartzeaz arduratzen zena, bere ardurapean laudoa emango zuena izango zen beti. Figura horri prestigioa emateko xedez, sektore koo-peratiboan ahalik eta profesionalizaziorik eta espezializaziorik handiena izatea bermatuko zen. Gainera, zerbitzu hori dohainekoa izatea xedatu zen.⁸

1988an, federazioak eratzeko prozesua amaitu ostean, Kontseiluak gai horretan ekimena berrartzea erabaki zuen. Jose Maria Suso, Euskal Herriko Unibertsitateko kontseilari ordezkaria, araudiaren lehen zirriborroa idazteaz arduratu zen. Zirriborroa

⁸ *Ibid*, 76-79

⁹ A. 1988.11.8, 1989.1.12 eta 1989.2.9; JMST

Aldi berriko lehen urteen azken erpin gisan, nabarmentzekoa da Kontseiluak egindako funtzio aholku emailea

positiboki baloratu zen. Testuari buruzko eztabaida bilkuran Irazabal presidenteak baieztatu zuenez, “tresna erabat baliagarria” zen eta ez zekarren “euskal legegintzak euskal arbitraje kooperatiboari uko egin beharra”. Azken Araudia Kontseiluaren bilkurak onartu zuen 1989ko otsailean, eta berehala argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.⁹

Araudi hori oso garrantzitsua izan zen, zeren eta arbitraje kooperatiboko zerbitzu bat abiaraztea ekarri baitzuen eta gaiari buruzko geroko araudia garatzeko lagungarri izango ziren planteamenduak txertatu baitzituen. Hala, arbitrajeak kooperatiben elkarren arteko erlazioari ez ezik, kooperatiben eta bazkideen artekoari eta, azkenik, bazkideei eurei ere, euren arteko kereiletan, eragiten zien. Gainera, auzigai izango ziren eta arbitraje jarduna behar zuten gaiek izan beharreko baldintzak ezarri ziren. Horrez gain, bestalde, Kontseiluak esku hartzeko bi faseak definitzen ziren: lehena, arbitrajea ulertze-ari buruzkoa, eta bigarrena, arbitroen esku hartzeari buruzkoa. Arbitroak federazioen eta hiru lurralde historikoetako Abokatuen Elkargoaren proposamenez formulatuko ziren. Halaber, esku hartzeko modalitate horren izapidean zehazten ziren, esaterako, adiskidetzeko exigentzia, hasierako alegazioen fasea, frogen bilketa eta ondorioen bilketa. Bestalde, etorkizunean arbitrajea dohainekoa izango zela aurreikusten bazen ere, momentuz araudiak kostu partikular eta komunak finkatzen zituen auzipean zeuden alderdientzat. Azkenik, alderdientzat Laudoa derrigorrezkoa izango zela eta eskudun agintari judizialaren aurrean betearazpena lor zitekeela ezartzen zen.¹⁰

Dekretu horren eta 1993ko Kooperatiben Lege berriaren artean igarotako urteetan, arbitraje eskaerak ez ziren asko izan, etorkizunean izapidetuko zirenen aldean. Eskaera horietako asko baja kasuan bazkideen kapitalerako ekarpenen likidazio araubideari buruzkoak izan ziren, eta baita emaitzen banaketa araubideari buruzkoak ere. Urte haietan, Kontseiluaren jarduna, etorkizunean funtzio hori erabiltzea ahalbidetuko zuten tresna juridikoez hornitzean egon zen zentratuik, erabilpen eta zabalkundean baino. Gauza bakoitzak bere garaian etorri behar zuen, baina garrantzitsuena zera zen: azkenean, 1982. urte jadanik urrunean legegilearen eskutik jasotako beste jarduera bat abiarazita zegoen.

Asoziazio mugimenduaren amaierarekin irekitako aldi berriko lehen urteen azken erpin gisan, nabarmentzekoa da Kontseiluak egindako funtzio aholku emailea. Arbitraje lanaren ondoan (zeina garai hartan hasi baitzen, ikusi berri dugun bezala), zeregin aholku emailea Kontseiluak abiarazitako lehenengoetako bat izan zen, ez bazen lehenengoa izan. Garai hartan eztabaidatu zen dekretu arauemailearen proiektu-

¹⁰ Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko Arbitraje Araudia, 1989ko otsaila

¹¹ A. 1989.11.16.



tuán, esplizituki jasotzen zen, 2. artikuluan, baldintza hori funtsezkotzat jotzen zela erakundearen identitatearentzat: "Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, kooperatibak eta beren erakundeak sustatu eta ordezkatzeko dituen organo gorena, Gobernuaren eta Eusko Legebiltzarraren erakunde aholku emalea da kooperatibei eragiten dieten gaitan".¹¹

Kontseiluak, urte haietan, mugimendu kooperatiboarekin lotutako askotariko araudien gaineko txostenak ebatzi zituen: kooperatibak eta lan sozietate anonimoak eratzeko laguntzak; gizarte ekonomian prestakuntza sustatzeko laguntzak; Euskadiko

Urteko memoria aurkezteko prentsaurrekoa, Luis Irazabal presidente zela (laugarrena ezkerretik hasita), 1990ean

¹² A. 1989.3.9; 1989.11.16.

Funtzio aholku emaile horrek funtsezko protagonismoa izan zuen Kooperatiben lege berria promulgatzearen inguruan

gizarte ekonomiaren eredua eta irudia hobetzeko laguntzak; gizarte ekonomiako enpresen asoziazio eta ordezkariak egiturak indartzeko laguntzak; Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoaren erregulazio berria, kreditu kooperatibei eragiten ziena, etab.¹² 1992an, esaterako, era orotariko 14 agindu, dekretu eta lege eman ziren Hezkuntza, Industria eta Lan Saitetatik, eta iradokizunak eta zuzenketak egin ziren.

Legeria kooperatibo berria

Funtzio aholku emaile horrek funtsezko protagonismoa izan zuen erakundearen historian mugarriztat jo daitekeen eta jo beharra dagoen honetan: Kooperatiben Lege berria promulgatzearen inguruan egindako lanean. Ekimen horren lehen pausoak 1988an egin ziren; orduko hartan, Kontseiluak erabaki zuen Gobernuaren aurrean proposamen bat aurkeztea "Kooperatiben Euskal Legearen egokitze (historikoa) lortze aldera, non Kontseiluaren tratamendua bera (Kontseiluak araudi berri bat prestatuz aurreratua zuena) bilduko baitzen. Prozesu biok uztartu egin ziren azkenean, eta 1990 inguruan erabaki zen legegintzako aldaketak eta dekretu arauemaile bat proposatzea baino, asoziazio mugimenduaren egituraketak sortutako inpaktua eta europar merkaturaren integrazio hurbila aski garrantzitsuak zirela legeria berri bat sortzera animatzeko. Legeriak, gainera, Kontseiluaren funtzioen tratamendu berri bat bermatu beharko zuen. Kontseiluaren proposamen horri Administrazioak emandako oniritziarekin, jarraian aztertuko den prozesu bati ekin zitzaion; aurrerapen gisara, hona hemen Gorroñogoitiak Legea promulgatu zen unean esandako berba sentituak: "Ez dut uste, benetan, Administrazioaren/Administratuaren arteko sinbiosiari dagokionez, Lege hau aldarrikatzeko prozesuan izandakoa bezain adierazgarria izan den aurrekari askorik egon denik".¹³

1990 eta 1992 bitarteko urteetan Kontseiluaren akten liburukiek izandako hazkunde ikaragarriak, non liburukion lodiera hirukoiztu eta laukoiztu egin zen aurreko eta ondorengo urteen aldean, Legea prestatzeko martxan jarritako lanaren tamaina islatzen du, behin Gobernuaren oniritzia eskuratuta. Aldi hura konplikatu samarra izan zen, aldaketa politikoek berriro ere Kontseiluari eragin baitzioten, kontuan hartuta 1991n hiru presidentetza izan zirela. Kontseilariak, hartutako esperientziari esker, inguruabar hori aurreikusten jakin zuten.

1990eko abenduan, Gorroñogoitiak, bere ohiko argitasunarekin, "Goren Kontseiluaren barne erregulazioan gertatzen den omisio bat bete beharra" planteatu zuen. Aipatutako 33/1987 dekretuak Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza zeukan

¹³ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 15; A. 1990.3.14.

pertsona jartzen zuen Kontseiluaren Presidentetzan, nahiz eta bete gabeko, absentzia edo gaixotasun kasuak ere agertzen ziren, Kontseiluak berak xedatu beharrekoak. Baina iraganean lortutako egonkortasunak hori lehentasuna ez izatea eragin zuen; Gobernu aldaketak sortutako testuinguru politiko berriak ezustean harrapatu zituen kontseilariak eta segituan jabetu ziren presidente aldaketak sor zezakeen arazoaz. Gorroñogoitiak, hain zuzen ere, “bidean den Gobernu aldaketak dakartzan administrazio izapideak” eta Kontseiluak legezko testuan zegoen aurreikuspenari jartzen zion arreta txikia aipatzen zituen. Azken ebazpena, Irazabal presidentearen proposamenez, hauxe izan zen: Presidentetza, bete gabeko, absentzia edo gaixotasun kasuetan, adin handieneko kontseilariaren esku geratzea. Gainera, eztabaida berria aprobetxatu zen Kontseiluaren barne egituraren eta egitura funtzionalaren erregulazio berri baten beharra azpimarratzeko.¹⁴

Kontseilari beteranoaren interbentzioa iragarlea izan zen zeren, sei hilabete geroago ozta-ozta, Irazabal beste erakunde lan batzuekin hasi baitzen; hori dela eta, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza bere gain hartu berria zuen Javier Sanzek ordezkatu zuen Presidentetzan. Aldaketak bere garrantzia izan zuen. Sanz Deustuko Unibertsitatetik zetorren jurista bat zen eta Eraginkor aholkularitza kooperatiboan lan egindakoa zen. Baziren urteak Kontseiluko kide zela eta Gorroñogoitiarekin lankidetzan aritua zen aktiboki Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren sorkuntzan. Autonomia Erkidegoan izandako gobernu aldaketek Kontseiluaren Presidentetzara altxatu zuten, eta aldi labur baina oso emankor bati eman zion hasiera. Haren presidente aldiaren laburra urte hartan izandako aldaketa politiko berriei zor zaie, izan ere, hiru gobernu desberdin izan ziren eta, ondorioz, hiru presidentetza Kontseiluan. Hil horietako jarduna, haatik, bizia izan zen oso; eta horretan zerikusi handia izan zuen presidente berriak organoaz eta organoaren potentzialtasunez zeukan ezagutza handia. Izan ere, “ekimen handiko presidentea bazinen, gauza asko zeneukan irabazita”, kontseilarien gaitasuna eta jarduerak gauzatzeko arintasuna zirela eta.¹⁵

Hala, Presidentetza labur horretatik geratu zen memoria pertzepzio honek markatu zuen, alegia, “organoaren bileretan tonu orokorra altxatu egin zela eta bilerok azken aldiari errutinan sartu samarturik eta geldituta zeudeneko” pertzepzioak. Eta hori bat dator Sanz bera Kontseiluaren agintean izan zeneko hileen gainean dituen oroitzapenekin: “Ezari nituen metodologietako bat zera izan zen: kontseilariak ez etortzea eskuak poltsikoetan sartuta, baizik eta etxeko lanak eginda; ekar zezatela lana eginda”. Hala bada, hil haiek dinamismo handikoak izan ziren erakunde barruan: Kontseilua behin betiko arautzeko azterketarekin jarraitu zen; epe luzerako lehen ges-

¹⁴ A. 1990.12.5.

¹⁵ JST

tio planaren hasiera; kooperatibismoa sustatzeko funtzioa (Kontseiluak bere gain hartua zuena) zehazteko neurrien katalogo bat formulatzea, non, besteak beste, kooperatiba gaiei buruzko doktorego tesiak argitaratzea azaltzen baitzen...

Nabarmentzekoa da, daukan sinbolismoagatik, Kontseiluak federazioei lokalak laga eta erabiltzeko hitzarmena, 50 urterako eta dohainik. Hitzarmen horri esker, lokalaren gozamina, Eusko Jaurlaritzarena zena, federazioei egokitu zitzaien baita ere. Era berean, Kontseiluak autonomia instituzionala lortzeko bidean oso inportantea izan zen ekimen bat jarri zuen abian: Presidentetzaren izendapenaren erreforma, halako moldeez non presidentetza ez baitzitzaion automatikoki Gizarte Ekonomiako zuzendariei egokituko eta Kontseiluaren aukeraketa demokratiko baten emaitza izango baitzen. Horrek gaiari buruzko araudia aldatzeko beharra ekarri zuen, identifikazio hori ezarri zuen dekretua barne; eta horrek azaltzen du onarpena hainbeste luzatu izanaren zergatia.¹⁶

Lege berriaren ezaugarri nagusia lantzeko erabilitako "goranzko prozedura" izan zen

Sanz Presidentetzan egon zeneko hilabeteetan izandako ekimen uholde horretan (gehienak haren ordezkioak, Felipe Yarrantuk formalizatu zituen azkenean), garrantzitsuena Adituen Batzorde bat sortzea izan zen, Euskadiko Kooperatiben Legea egokitzeko. Batzorde hori, bai euskal kooperatibismoaren historia juridikoan aurrekaririk ez zegoelako, bai Batzordeko kideen kalitate intelektuala zela eta (ez alferrik, kooperatiba gaietan jurista handia zen Narciso Paz baitzegoen buruan), Kooperatiben Lege berriak formalizatu zuen funtsezko bidea izan zen.

Lege berriaren ezaugarri nagusia, 1982tik indarrean zegoenetik eta Estatuan martxan jarritako beste batzuetatik guztiz desberdindu zuena, lantzeko erabilitako "goranzko prozedura" izan zen, Narciso Pazek berak egindako definizioaren arabera. Batzordeak, bada, federazioek Kontseiluari zuzendutako kezkei buruz deliberatu eta definizio arauemailea egiten zuen. Behin osoko bilkuran onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako zegoakion Sailak aztertu eta lantzen zituen. Azkenean, Legebiltzarrean aurkeztuko zen aurre-legegintzako zirriborroa osatzera pasatzen ziren. Hala, Batzordeak "gorantz" zetorren mugimendu horren bideratzaile gisan jardun zuen, eta horrek, Lege berria Espainiako kooperatibismoaren historia juridikoan mugarri bat izatea ekarri zuen. Laster batean, bai beste arau autonomikoek bai estatuko erregulazioak berak, euskal legegintza hurbiletik jarraitzea eragin zuen.

Badira hainbat adibide aipatutako Adituen Batzordeak eta, beraz, Kontseiluak berak Legea lantzeko prozesuan egindako lanaren erakusgarri. 1991ko urriaren 4an eratu zen eta Kooperatiben Euskal Legeari egiten ahal zitzaizkion aldaketan idazketa

¹⁶ Gorroñogoitia, *Presente y futuro*, 12-12; JST

juridikoa agindu zitzaion. Aldaketa horiek Kontseiluan eztabaidatuz joan ziren, behin Eusko Jaurlaritzak Kontseiluari horretarako baimena eman ondoren. Narciso Paz izan zen presidentea; Javier Sanz, Jose Maria Suso, Juan Larrañaga eta Alejandro Elejabarrieta kideak izan ziren, eta Alfredo Ispizua, berriz, idazkaria.

Haien lana, lehenik, kooperatiben federazioen ekarpenei buruz eztabaidatzea izan zen; horretarako, legeria kooperatiboari buruzko hainbat kontsulta material erabili zuten. Prozesua zehatza izan zen. Kide bakoitzak zenbait gai hautatu zituen federazioek iradokitako multzotik. Hala, Larrañaga, araubide ekonomikoan aritu zen; Suso, sozietate organoetan eta desegite eta likidazio araubidean; Salaberria, laneko kooperatibetan eta taldeen erregulazioan; Paz, sozietate eraldaketan, tipologia eta talde kooperatiboetan; Elejabarrieta, Kontseiluaren tratamenduan eta zehapen araubidean; eta Sanz erregistroan. Federaziotik etorritako horiei Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren bidez kooperatiba gaietan interesa zuten beste organo, enpresa eta erakunde batzuetatik iristen zirenak gehitu behar zaizkie.

Laneko fitxa bat egin zen, non kide bakoitza Lege proiektuaren zenbait gai zehatzetan zentratzen baitzen, horien txostengile gisan jardunez; gero, haien aldatze-

Adituen Batzordeari Kooperatiben Euskal Legeari egiten ahal zitzaizkion aldaketan idazketa juridikoa agindu zitzaion

1993ko Legea prestatzeko Batzordearen bilera, ezkerretik eskuinera: Jose Maria Suso, Javier Larrañaga, Narciso Paz, Javier Sanz, Alfredo Ispizua, Alejandro Elejabarrieta, Javier Salaberria



Kontseiluaren ikusmolde berriak eutsi egiten zion “kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko organo gorenaren” eta “euskal herri administrazioen erakunde aholku emailearen” izaerari

ko egindako proposamenak (mugimendu kooperatibotik jasotako aholkuek ekarritako zehaztapenekin) Batzordean eztabaidatu eta onartzeko geratzen ziren. Ondoren, Batzordeak bere legegintza proiektuaren proposamena aurkeztu zion Kontseiluari eta, behin onartuta, Eusko Jaurlaritzako arduradunek zuzenketen azterketa egin zuten, Legebiltzarreko eztabaida eta talde politikoen zuzenketa izapidera pasatzeko. 1993ko otsaileko bileran, Kontseilua aipatutako zuzenketa aztertu eta eztabaidatzen hasi zen, Batzordearen esanari jarraituz, eta haletako hainbatekin adostasuna agertu zuen, Eusko Jaurlaritzara bidalitako irizpen baten bitartez. Lege berria 1993ko ekainaren 24an onartu zen azkenean.¹⁷

Lege horretan Kontseiluaren ikusmoldea nolakoa zen azaltzeko, baliagarria da atzera egitea Batzordeak erakundearen figura nola ulertzen zuen ikusteko. Kontseiluaren eztabaidetan denetariko kontuak izan ziren, hasi formaletatik (“Kooperatiben” edo “Kooperatibismoaren” izendapena, esaterako) eta garrantzi handiko kontuetaraino, esaterako, kooperatibismoaren ordezkari funtzioa, zeina, “publiko” kalifikatzailea erantsita, ñabartu egin baitzen. Garrantzitsua da azpimarratzea erakundearen ibilbide historiko osoa zein neurritan geratu zen islaturik bere legegintza tratamendu berrian. Hala, “nortasun juridikoari eta jarduteko independentziari” buruzko atala bereizi eta garrantzi handiagoa ematea erabaki zen, behin Kontseilua “kooperatibak sustatu eta ordezkatzeko organo publiko” gisan formulatu zenean. Hau da, erakundearen izaera publikoa aitortu bai, baina ondoren, aurreko urteetan bai materialki (egoitza berri baten bidez) bai juridikoki (ondoz ondoko dekretu eta arauketa bidez) formalizatuz joan zen hau azpimarratzen zen: Kontseiluak, Elejabarrietak Batzordean adierazi zuen legez, erabateko “independentziaz jarduten zuela hala Eusko Jaurlaritzarekiko nola Eusko Legebiltzarrekiko”.¹⁸

Formulazio horrek gidatu zuen Kontseiluaren ikusmolde berria; Kontseiluak, izan ere, “kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko organo goren” eta “euskal herri administrazioen erakunde aholku emaile” izaerari eusten zion kooperatiba gaietan. Ikusmolde dual horrek aukera ematen zuen ordezkari kooperatiboko espaziotik argiago bereizteko, eta Administrazioarantz lerratuago jartzeko. Horren erakusgarri, bere “nortasun juridiko propio eta jarduteko erabateko ahalmena” argiro azpimarratu izana. Eta esaldi horrek Batzordeko eztabaidan horrenbeste azpimarratu nahi izan zen “independentziaren” birformulazio argia erakusten du.

Gainerakoan, eta mugimendu kooperatiboaren egituraketaren ostean beharrezko zenez, Kontseiluaren funtzioak argitu egin ziren eta ordezkari zarena galdu egin

¹⁷ Adituen Batzordearen Aktak Kooperatiben Legea Egokitzeke; A. 1993.1.28; 1993.2.11; JMST; JLAT; JST

¹⁸ Adituen Batzordearen Akta, 19

zen. Izan ere, ordezkartzarena federazioetara pasatu zen, eta haien bitartez, aurrerago eratu beharreko Konfederazio batera. Kontseiluak, haatik, kooperatibismoaren sustapen eta zabalkundearen funtzioei eusten zien. Hain zuzen ere, zabalkundearen funtzioa askoz ere hobeto zehaztu zen aurreko legean baino. Baita Administrazioarekiko lankidetzarena ere, hala sustapenean nola proiektu kooperatiboan gaineko txosten juridikoan. Izaera aholku emailea zuen funtzio hori ere hobeto trataturik zegoen, zeren eta argi geratzen baitzen Kontseiluaren txostena beharrezkoa zela gai horietan guztietan, nahiz eta "loteslea" ez izan. Hona hemen Kontseiluari zegozkion beste funtzio batzuk: asoziazio mugimendurako interes komuneak ziren zerbitzuak antolatzea; Autonomia Erkidegoko legezko eta erakunde araubidea hobetzeko ekarpena; eta arbitraje kooperatiboaren gestioa. Gestioa, hain zuzen, nabarmen indartu zen bere definizioan, aurreko urteetan Kontseiluak egindako lan juridikoari esker. Hala bada, gestioa kooperatiba bazkideetara hedatu zen, eta ez bakarrik kooperatibetara; gainera, araudi kooperatiboetan, arbitrajearen mende jartzeko obligazioa sartzeko beharra adierazi zen eta auzipean jartzeko aukerak zituzten gaiak garbitu egin ziren.¹⁹

Horrez gain, Kontseiluaren osaera hobeto zehaztuta geratu zen, euskal unibertsitateetako ordezkariak berariaz sartu baitziren eta federazioek Kontseiluan zeukaten ordezkartzaren gehiengoa azpimarratu baitzen; gainera, gehiengo baten ordezkartzarik ez zeukaten asoziazio erakundeetako ordezkariak sartzeko aukera ere bildu zen. Halaber, Kontseiluaren finantzaketa iturriak zerrendatu ziren. Horiek ez zeuden aurreko legezko testuan bildurik; bai ordea garapen araudian. Erakundearen osaera eta egitura, aukeraketa sistema, presidentearen eta idazkariaren eskudantziak, laneko araubidea, etab., hala ere, araudi espezifiko baten bidez zehaztu gabe geratu ziren.

Balorazio orokor gisan, esan dezakegu 1993ko Legeak irekia izaten jarraitzen zuela, eta aurrekoa baino askoz ere argiagoa zela, zeren eta ezartzen zituen funtzioen mugapena baliagarria baitzen federazioen eta etorkizuneko Konfederazioaren esku-dantziekin aurrez aurreko edozein talka ekiditeko. Hala ere, funtziook ez ziren zehatz-mehatz mugatzen, izan ere, "kasu askotan modu oinarritzko eta ez mugatzailean" ezartzen ziren. Horrek aukera ematen zion Kontseiluari askotariko funtzio zehatzetan jarduteko. Funtzio horiek "neurri handi batean, Kontseiluaren, dauden bitarteko materialen eta giza bitartekoen eta Euskal Herri Administrazioen nahiz Kooperatiben eta haien ordezkartzaren organoen borondatearen" mende egongo ziren.²⁰ Komeni da kontu hori gogoan izatea, etorkizunean garrantzizkoa izango baita, hain zuzen ere,

Kontseiluaren osaera hobeto zehaztuta geratu zen, euskal unibertsitateetako ordezkariak berariaz sartu baitziren eta federazioek Kontseiluan zeukaten ordezkartzaren gehiengoa azpimarratu baitzen

¹⁹ Buitrón, *Análisis estructura y delimitaciones*, 155-159; *Glosa a la Ley de Cooperativas de Euskadi*, EKGK, Gasteiz, 1999, 521-526; Euskadiko Kooperatiben Legea, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1995

²⁰ Alejandro Elejabarrieta, *Glosa a la Ley de Cooperativas*, 524-525

KONTSEILUA, FEDERAZIOAK, KONFEDERAZIOA

Nortasun instituzional berria

Bai Adituen Batzordearen lanaren amaiera bai Lege berriaren promulgazioa, erakundearen Presidentetza Felipe Yarrituren eskuetara pasatu zenean gertatu ziren. Yarritu Gizarte Ekonomiako Zuzendaria zen, EAJ-PSE-EEren arteko gobernu berriaren kariaz. Presidentetza hori luzea izan zen aurrekoen aldean, ia hamarkada osoa hartu baitzuen; gainera, oso garai garrantzitsuan hasi zen. Izan ere, hasi zeneko urtea Lege proiektua prestatu zeneko urtea izan zen eta 1993a, berriz, promulgazioaren urtea. 1993an, halaber, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipioen deklarazio berria eztabaidatu zen nazioartean, eta Kontseilua, euskal kooperatibismoaren ordezkari gisan, deklarazio horren berrazterketan murgilduta egon zen. Kontua da Kontseiluak indartu egin zuela ordezkari-tza rol hori trantsizio urte haietan, nahita, gerora Konfederazioak jaso beharko lukeen ondare bat sendotzea bilatuko balu bezala. Hala, 1994an, egindako lan onak zerikusi handia izan zuen Euskadi Lan Kooperatibismoaren IV. Mundu Konferentziaren egoitza izenda zezaten. CICOPAK antolatutako gertaera handia izan zen, nazioarteko ehunka ordezkari bildu zuena. Lan elkartuko federazio berriak aktiboki kolaboratu zuen, Kontseiluarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

Felipe Yarritu, EKGK-ko presidentea 1992an eta 2009an



Yarritu prestigio nabarmena zeukan kaudimendun erakunde bateko presidentea zen. Kontseilua mugimendu kooperatiboa egituratzeko gai izan zen, nahiz eta mugimendu horren tradizio historikoak ez zuen izan ordu arte ordezkari-tza erakunde-rik, garai batean non Administrazioaren funtzionamenduak erakundeon beharra zeukan sektore pribatuaren eta sektore publikoaren arteko komunikazio egokia sustatzeko orduan. Bai herri Administrazioaren aurrean bai kooperatiben aurrean aginte moral eztabaidaezina zeukan erakunde bateko Presidentetzan zegoen Yarritu. Erakunde hori gai izan zen Lege berri bat prestatzeko eta Lege horren bidez mugimendu kooperatiboa egoki prestatu zen agertzen hasi berriak ziren arazoei eraginkortasun handiagoz aurre egiteko, krisi eta, batez ere, Europako Merkatu Bakarreko testuinguru batean. Erakundeak hamar urte bete zituen 1993an, hain juxtu.

Urriaren 23an egindako ekitaldia oso ospakizun xumea izan zen, erakundearen ohiko austeritate ildoari jarraituz. Ildo hori, gainera, indartu egin zen krisi ekonomikoaren testuinguru tarteko; eta kontuan izan behar da krisiak bereziki eragin ziola Estatuari urte hartan. Kontseilua martxotik zebilen ospakizun jarduerak lantzen, hots: Jardueren Memoriaren aurkezpen ofiziala; Kooperatibismoaren Mundu Eguna; eta Legebiltzarreko taldeetako ordezkari-ek Kontseiluaren egoitzara egingo zuten bisitaldia. Ospakizun instituzionala aipatutako egunean zentratu zen, non, kontseilari zahar eta berrien aurrean, Eusko Jaurlaritzako eta kooperatiba elkarte berrietako ordezkarien



10. urteurrena ospatzeko bilkura, 1993an, ezkerretik eskuinera: Pablo Ibañez de Garaio, Juan Angel Beldarrain, Mari Carmen Abrisketa, Arantza Laskurain, Alejandro Martinez Charterina, Jose Ramon Zubizarreta, Juan Luis Arrieta, Felipe Yarritu, Daniel Garay, German Muruamendiaraz, Javier Iurrettagoyena, Javier Sanz, Alfonso Gorroñoigoitia eta Luis Maria Mallona

aurrean, Alfonso Gorroñoigoitiak, testu bat irakurriz, iragandako hamarkada ekarri baitzuen gogora. Irakurraldi hartan laburbildu zituen, batetik, erakundearen historia, eta bestetik, euskal kooperatibismoan funtsezko figura den horren nortasuna. Gorroñoigoitiaren hitzek ihes egiten diote poetika abstraktuari gauzen esentziara jotzeko, betiere hotsandiko eta espiritualtasunez ziprztindutako doinuaz, non Arizmendiarieta maisuaren irakaspenak igartzen diren.²¹

Gainerakoan, Kontseiluaren bilkurek, urte haietan, azken faseko ohiko hipe-raktibotasunari eutsi zioten. Arrieta Idazkariak proiektu arauemalleen gaineko informazioa ematen zuen, eta horiei buruzko ebaluzioa eta txostena autonomia erkidegoko Gobernuari igortzen zitzaizkion, batzordeek edo zenbait kontseilarik azter zitzaten eta aho batezko irizpena eman zezaten. Bertan, federazioekin, lankidetzaz hitzarmenekin eta halako ekimen jakin batzuen finantzaketarekin lotutako kontuak ere aurkezten ziren. Era berean, behin Lege proiektua aurkeztuta, saio horietan denbora luzea eskaintzen zitzaion Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipio berrien gaineko

Kontua da Kontseiluak indartu egin zuela ordezkari-tza rol hori trantsizio urte haietan

²¹ 1993.3.3 B.; Gorroñoigoitia, *Presente y futuro*

Jose Antonio Ardanza lehendakariak EKGKri egindako ongietoria, Kontseiluaren 10. urteurreneko ospakizuna zela eta:

Lehenengo lerroan, ezkerretik eskuinera:
Juan Angel Beldarrain, Alfonso Gorroñogoitia, Paulino Luesma, Jose Antonio Ardanza, Felipe Yarritu, Arantza Laskurain, Juan Luis Arrieta.

Bigarren lerroan, ordena berean: Humberto Cirarda, Daniel Garay, Alfredo Montoya, Javier Sanz, Juan Luis Martinez Ordorika, Mari Carmen Abrisketa, German Muruamendiaraz.

Hirugarren lerroan, ezkerretik eskuinera:
Pablo Ibañez de Garaio, Alejandro Martinez Charterina, Luis Maria Mallota, Javier Divar, Jose Ramon Zubizarreta, Luis Irazabal.



eztabaidari. Halaber, arbitrajearekin lotutako kontuak ere mahai gainean jartzen ziren eta, aldizka, baita erakundearen aurrekontu egoerari buruzko txostenak ere.

Erakundearen lanaren bizitasunaren erakusgarri, badago apirilaren 13ko txosten bat 13 Dekretu proiektu zerrendatzen dituena. Kontseiluak aztertu eta zuzendu egin behar izan zituen proiektuok, hasi "toxikomano ohiak kontratatzeke laguntza programa batekin (birgaitzea eta birgizarteratzea helburu) eta "enpresa sustatzaile berriei laguntzeko neurrietaraino"; eta tartean, baita "gizarte ekonomian prestatzeko laguntza" proiektu bat ere. Bada, halako hamahiru dekretu proiektu izan ziren, kontseilariak aztertu zituztenak, idazketa juridikoa zuzenduz, okerrez edo omisioez informazioa emanez, etab.²²

Hala ere, 1993az geroztik Kontseiluak abiarazitako zereginik handi eta funtsezkoena hausnarketa sakonerako prozesu bati ekitea izan zen, Lege berriak erakundearen identitatean eragingo zituen aldaketen inguruan. Prozesuaren xedea estatutu sozialak definitzea zen. Izan ere, erakundearen ezaugarrien artean bat, bere jardura eta ahale-

²² 1993.6.16 B.; Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko hainbat dekretu proiekturi buruzko txostena, 1993.4.15

ginetan funtzionala izatea zen; hori dela eta, bereizkuntza prozesu horrek zekarren eztabaidak helburu jakin eta praktikoa batean oinarriturik egon behar zuen, antzeko erakunde batzuek ezaugarri zuten hutsaltasun erretorikotik beti ihes egiteko xedez.

Zeregin hori landu eta ebazteko moduan, presidente berriak rol garrantzitsua jokatu zuen. Alfonso Gorroñogoitiak, Kontseiluaren bilakaeraren benetako "kronikagileak" (hala izaterik nahi gabe), bere agintaldiaren bukaeran, Felipe Yarrituren presidentea aldia gogora ekartzeko enkargua jaso zuen, Yarrituk erakundeari agur esan behar ziola eta. Ikusi dugun bezala, Gorroñogoitia Kontseiluaren lehen 10 urteak gogora ekartzeaz arduratu zen lehenago eta enkargu berri horretan erakundearen izandako esperientziaren memoria ixteko aukera ikusi zuen, zeren eta Yarritu baitzen "Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko azken presidentea, eta harekin partekatu zituen zeregin eta neke franko". Bada, egotzi zion ekarpenik garrantzitsuena "Kontseiluaren identitatea eta nortasuna osatu eta berretsi" izana izan zen, eta era berean, nabarmendu zuen Yarrituk, bere ikuskatze lanarekin, "Kontseiluaren jardun publikoa eraginkorragoa eta zorrotzagoa" egiten lagundu zuela.²³

Nortasun bereizkuntzari lotutako zeregina estatutu sozialen eta erakundearen barne araudiaren idazketan gauzatu zen materialki, horiek biak erakundearen jardura markoak ziren aldetik eta, beraz, nortasun juridiko eta instituzional berriaren arauen emanazio markoa ziren aldetik, behin federazioak sortuta, Kooperatiben Konfederazio bat sortzea planteatzen zenean (Yarritu, hain zuzen, proiektu horren defendatzaile sutsua izan zen, kontseilari gehienek iritziaren kontra, horien artean Gorroñogoitiaren beraren iritziaren kontra). Izan ere, presidente horrek adierazi zuen moduan, "Kontseiluaren funtzionamendu araudiak erakundearen helburuak argi zehaztu eta dagokien ekintzak abiarazteko oinarri izan behar du.

Hala, 1993ko udaz geroztik, Kontseiluak bere bilkuretako zati handi bat araudi erregulatzaile berriari finkatu beharreko "funtzioen analisiari" eskaini zion. Eta zeregin hori zabaldu egin zen urtearen bukaeran, Kooperatiben Lege berria onartu zenean. Printzipio kooperatiboaren zabalkundeari dagokionez, kontseilariak bat etorri ziren esateko publizitate hutsaren kontzeptu itxia gainditu egin behar zela eta "horiek praktika kooperatibora bihurtu behar zirela, jardura sektore bakoitzarentzat halako jokaera kooperatiboko kode bat osatuko duten soluzioak eskainiz", "lan batzorde baten antzeko" parte hartze sistema baten bidez.

Bestalde, heziketa eta sustapen kooperatiboa sustatzeko funtzio osagarriari dagokionez, kontseilariak adostu zuten hezkuntza benetako giltzarria zela, zeren eta

1993az geroztik Kontseiluak abiarazitako zereginik handi eta funtsezkoena hausnarketa sakonerako prozesu bati ekitea izan zen, Lege berriak erakundearen identitatean eragingo zituen aldaketan inguruan

²³ AGT, *Evocación de la Presidencia de Felipe Yarritu*, datarik gabeko izengabea, 2000

10. urteurreneko ospakizuna: Ardanza lehendakariaren ongietorri hitzaldia, kontseilariekin berbetan eta oroipen eskulturari begira



**Nortasun bereizkuntzari
lotutako zeregina
erakundearen estatutu
sozialen eta barne
araudiaren idazketan
gauzatu zen materialki**



balio kooperatiboei loturiko heziketa egoki batek bakarrik ekarriko baitzuen benetako "enpresa kooperatiboaren" definizioa. Hori dela eta, inportantetzat jo zen federazioek garatzen zituzten prestakuntza jardueren finantzaketa etengabe babestea; eta babestea, baita ere, kooperatiba gaiei buruzko ikerketa akademikoak eta prestakuntza kooperatiboko programen formulazioa berrituko zuten ikasketak. Baina, oroz gain, eztabaidetan gero eta argiago esan zen Kontseiluarekin egongo ziren federazioek ez zutela konformatu behar era orotako laguntzak eta diru laguntzak jasotzearekin, eta gai horietan ekimenez jardun behar zutela. Gainerakoan, komunitatearen garapenerako ekarpena ez zen kolektibo kooperatibistara mugatu behar, izan ere, inguruan zegoen komunitatera zabaldu behar zuen, Arrasateko esperientzia historikoaren ildotik.

Eztabaida horietan, zeregin aholku emailea inportanteenetakotzat jo zen, izaera aholku emailea zuen erakunde publikoa izatearekin estu lotuta baitzegoen, Lege berriak hala aitortuta. Hori dela eta, horren garrantzia indartu nahian, kontseilariak bat zetozen adierazteko inportantea zela Kontseiluaren arauzko azterketa izapidea gainditzeko ez zuten arauak indargabetzeko ahalmena izatea. Horrez gain, erakundeak adieraziazia zuen "arauzko txostenen batzorde" izeneko lan batzorde bat eratzeko asmoa. Batzorde horrek federazioetako adituen kolaborazioa eska zezakeen. Hala berean, autonomia erkidegoko legezko araubidea eta araubide instituzionala hobetzen laguntzeari dagokionez, bilkuran bat etorri ziren esateko mesedegarria izan zitekeela Kontseilua "kooperatibei eta kooperatiba taldeei dagozkien gaietan proposamenak lantzeko ekimena duen organoa" izatea. Gainera, jarduera hori aski inportantea zen "horretarako izendatutako kontseilarien dedikazio aktiboa eskatuko duela" onartzeko. Horien azterketek, proposamenek eta iritziek, era berean, kanpoko teknikari adituen kolaborazioa eska zezaketen.

Arbitrajearen funtzioa etorkizun handikotzat jotzen zen, "indartu beharrekoa" eta kooperatibei nahiz bazkideei eurei ezagutzera eman beharrekoa. Funtzio hori mantendu eta hobetzeko, beste lan batzorde bat prestatuko zen, "Arbitraje Batzorde izena hartuko zuena". Bazen beste funtzio bat ez zena horren garrantzizkoa baina garai hartan erakundearen lanean eragin handia izango zuena, hots: "Interes komunezko zerbitzuak antolatzea" federazioekin. Aldi baterako, Kontseiluak hartu zituen, Konfederazioa martxan jarri arte. Kontseilarien irizpena hauxe izan zen: funtzio hori, etorkizunean, Kontseiluari egoki zekiokoela, baldin eta xedea federazioetatik haratagoa bazen eta kooperatibismoaren espektro osora zabaltzen bazen. Horrez gain, izaera iragankorreko beste funtzio batzuk ere aztertu ziren, hala nola Administrazioarekiko lankidetzat Lege berria betetzeko, mugimendu kooperatiboaren aldi baterako ordezkari

Arbitrajearen funtzioa etorkizun handikotzat jotzen zen, "indartu beharrekoa"

²⁴ EKGkren funtzioen analisia, 1993ko iraila; EKGkren funtzioak gauzatzeko oinarritzko arauak, 1993ko urria; EKGkren aurrekontu xehatua, 1993ko abenduaren 14a

ritza edo euskal mugimendu kooperatiboaren egituraketa instituzionala sendotzea eta garatzea.²⁴

Funtzio horien guztien gaineko eztabaidetan nagusitu zen iritziaren arabera, Kontseiluak ez zuen bere langile kopurua handitu beharrik; hala ere, bai aurreikusten zen letradu aholkulari bat kontratatzea, bereziki arbitrajearen funtzioan eta gatazka kooperatiboan ebazpenean jarduteko. Erakundearen ohiko funtzionamendua aldatzea ere ez zen beharrezkoa. Kontseilariek erakundeetan eta parte hartzen zuten ekitaldietan (esate baterako, 1994ko uztailan Javier Sanz Kontseiluaren ordezkari izendatu zuten Kontseilu Ekonomiko Sozialean) egiten zutenari eta erakundearen funtzioak egiteko biltzen ziren batzordeei jarraipen eraginkorra egiteko tresna, Kontseiluak jarraituko zuen izaten. Bestalde, hala presidentek nola idazkari nagusiak egiteko espezifikoa zituzten; azken horrek, adibidez, Administrazioarekiko lan aholku emailearen jarraipenean edo Kooperatibismoaren Mundu Egunaren antolaketa. Bitartean, biek jarraituko zuten egiteko espezifikoetan kolaboratzen; garai hartan, esaterako Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipioen azterketan aritu ziren batera. Oro har, Presidentziak era berezian egiten zituen zenbait ordezkartza jarduera alde batera utzita, esan daiteke Kontseiluaren jarduera gehienek eskatzen zutela edo Presidentziaren, Bilkuraren eta Idazkaritzaren arteko partaidetza, edo bestela Idazkaritzaren partaidetza, zegokion Batzordearekin lankidetzan.

1993ko abenduan Estatutu Sozialen proposamena onartu zen osoko bilkuran; Estatutuetan erakundearen identitate berria jaso zen, Lege berriaren filosofiara egokitua

Funtzionatzeko ildo horietan oinarrituta, 1993ko abenduan Estatutu Sozialen proposamena onartu zen bilkuran. Proposamena, orduan, Lan Sailaren esku geratu zen behin betiko izenpetzeko. Estatutu horietan erakundearen identitate berria jaso zen, Lege berriaren filosofiara egokitua. Hau da, "kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko organo" eta "izaera aholku emailea duen erakunde publiko" izaera berretsi zen, "nortasun juridiko propioarekin" eta "Gobernuarekiko zein Legebiltzarrarekiko independentea bere funtzioen garapenean". Osaera ez zen aldatu Lege berriak ezarritakoarekiko: Eusko Jaurlaritzak izendatutako bost kide, horien artean Gizarte Ekonomiako Zuzendaria; Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateek izendatutako bi kide; federazioek izendatutako hamaika kide gehienez ere, kontuan hartuz horiek izendatzeko irizpideak barne araudiak ezartzen zituela eta lau urterako izendatzen zirela.

Presidentetzak, momentuz, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren titularrari loturik jarraitzen zuen.

Konfekoopen sorrera

Kontseiluak irekitako hausnarketa prozesuaren bigarren fasea Yarranturen agintaldi urte-etako eta Gorroño goitiak identifikatutako beste ardatz honetan zehatz daiteke: eraginkortasun handiago baten bilaketa erakundearen jardunean. Behin funtzioak bereizi eta zehaztuta, eztabaida prozesu luze baten ondoren, kontua zen horiek gauzatzea, ahalik eta eraginkortasun handienarekin eta, gainera, gastuaren kontrol eta zainketa zorrotza eginda.

Orduantxe etorri zen lehenengo tirabira. Izan ere, Kontseiluko presidentek asoziazio mapa instituzionala biribiltzearen aldeko apustua egin zuen, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren figura sortuz (Konfekoop), kontseilari askoren iritzia aurka, kontseilariok ez baitzuten ikusten argi erakunde horrek izan zezakeen funtzioa, nahiz eta legeria berriak etorkizuneko proiektutzat jo. Bien bitartean, Kontseiluak eskatu zien federazioei modu autonomoagoan administratzen hasteko, Kontseiluaren horrenbesteko babesik behar ez izateko, hala finantzaketari nola langileen lagapenari zegokienez. Hala, 1995eko apirilean aipatutako Konfederazioa gai monografiko gisan aztertu zeneko bilkura baten sarreran, Yarrantuk azpimarratu zuen Arrieta Idazkariari agindu ziola handik aurrera soilik salbuespen gisa joateko Federazioetako Kontseilu Errektorera, Kontseiluan eta Konfederazioa martxan jartzeko zereginen zentratuta egon zedin. Federazioek onartu egin zuten Kontseiluak federazioetan zuen inplikazioa modu drastikoan murriztea, baina berme batzuk eskatu zituzten, esaterako, haien egitura eta programa bereziak kofinantzatzeko laguntzak mantentzea.²⁵

Egiazki, negoziazio horietako ardatza, Yarranturen hitzetan, hauxe zen: bai federazioen bai Konfederazio berriaren funtzioak argituz joateko Kontseiluak zeukan beharra, egoerak ez zezan irudi nahiz begiramen galerarik ekar. Hori dela eta, lehen fasean funtzio horiek zehaztu eta argitu egin ziren. Izan ere, 1994an iritsitako argitze horretatik aurrera ekin ahal izan zitzaion aldi berriari. Aldi horretan, kontua zen koope-

**Kontseiluak irekitako
hausnarketa prozesuaren
bigarren fasean
eraginkortasun handiago
bat bilatu zen
erakundearen jardunean**

²⁵ 1995.4.10; 1995.11.13 B.

Javier Salaberria Konfekoopeko lehen presidentearen bilera Ardanza lehendakariarekin, Felipe Yarritu EKGK-ko residentea ere bertan zela



ratibismoaren beste ordezkariak erakunde horiek euren eskudantzia propioak zehaztea eta, are garrantzitsuagoa dena, eskudantzia horiek dinamizatzeko gai izatea, Kontseiluaren etengabeko parte hartzerik gabe.

Horrek guztiak lehenbailehen gertatu behar zuela argi geratu zen Presidentetzak komunikazio plan baten ondorioak aurkeztu zituenean bilkuran. Plan hura Kontseiluaren irudi publikoa aztertzeko landu zen. Diagnostikoa suntsitzaile samarra izan zen, zeren eta, bertan nabarmentzen zenez, "Kontseiluaren inguruan ez ezagutza handia zegoen; eta bazegoen, halaber, irudi eta funtzioen nahasmena ere, kooperatiben federazio, Eusko Jaurlaritza eta baita enpresa erakundeekiko ere". Detektatutako egoera zela eta, Yarrantuk publikoki aitortu zuen bere etsipena, zeren eta horrek kalte egiten baitzion "Kontseiluak izan nahi duen irudiari. Izan ere, Kontseilua erakunde publikoa da eta bere egitekoa kooperatibismoa sustatzea da; ahots propioa du, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren garapen sozioekonomikoari eragiten dioten aspektuetan beharrezko solaskide soziala da eta argi eta garbi bereizten da Federazioetatik, balizko Konfederazio batetik eta baita Eusko Jaurlaritzatik ere".²⁶

Desberdintze hori, bada, Kontseiluaren irudia (eta beraz, haren identitate propioa) indartzeko ez ezik, haren egonkortasun finantzario eta instituzionala indartzeko ere beharrezkoa zen. Izan ere, urte haietan izandako krisi ekonomiko handiak aurrekontua murriztera behartu zuen Eusko Jaurlaritza eta horrek, jakina, Kontseiluari eragin zion. Dirua, gogora ekarri du Gorroñogoitiak, inoiz ez bezalako garrantzia hasi zen hartzen erakundearen gestioan. Izan ere, Kontseiluaren aurrekontua mugatua zen, are gehiago, "oso mugatua" zen, krisi ekonomikoko koiuntura hartan eta, hala ere, federazioen eskariei aurre egin behar zitzaizkien eta kontuan izan behar da eskari horiek, behar-beharrezkoak izanda ere, gero eta pisu handiagoa hartzen ari zirela erakundearen funtzionamenduan. Ezin da ahaztu kontseilari gehienak federazioetako ordezkariak zirela eta izaten ziren eztabaidetan, batzuetan, zeuzkaten bi eskudantzien arteko tentsioa azaltzen zela (kontseilariak eta federazioetako ordezkariak ziren aldetik). Hala, zein lehentasun izan behar zuten kontseilari lanetan?: federazioen interesak babestea edo, aitzitik, horien gainetik Kontseiluarenak jartzea, hots, mugimendu kooperatibo osoarenak?²⁷

1995 itxi eta 1996 irekitzen duten hilabete horietako bi dokumentuk sortutako eztabaidaren sakontasuna uzten dute agerian. Eztabaidak, batetik, erakunde batzuen eta besteen artean funtzioak argitzea zuen ardatz eta, bestetik, prozesu horretan Kontseiluak zuen parte-hartzea zen eztabaidagai. Lehenengoan, Gorroñogoitia kontseilariak erakundearen egoeraren gaineko diagnostikoa egin zuen, hurrengo urteko

Etaparen berriaren federazioek euren eskudantzia propioak zehaztu eta eskudantzia horiek dinamizatzeko gai izan behar zuten, Kontseiluaren laguntzarik gabe

²⁶ 1995.12.18 B.

²⁷ AGT

aurrekontuaren onarpena zela eta. Hark adierazi zuenez, Kontseilua federazioak herrestan eramateko lan ikaragarria egitera lotuta zegoen eta, aldi berean, federazioek gero eta baliabide gehiago kontsumitzen zioten; gainera, Kontseiluaren gestio ahalmena ahitu egiten zen, federazioek lider kohesionatzailea izateko eskatzen zioten eta.

Kontseilari ospetsu baten iritzia zen, ziur aski Kontseiluaren zutabe ideologi-koetako batena, ordezkari karismatikoenen arteko batena. Eta ohi zuen bezala, planteamendu etiko bat, edo are gehiago, planteamendu moral bat ziurtzat joz hasi zen: "Kontseiluaren helburua ez da bere handitasuna, baizik eta mugimendu kooperatiboari ahalik eta zerbitzurik onena emateko bitartekotza lana". Eta hortxe zegoen gakoa, zeren esaldiak, federazioak ez ezik, kooperatibak eta horien bilbe ekonomiko eta ideologikoa ere biltzen baitzituen. Hori dela eta, Kontseiluaren helburuak "federazioen autofinantziazioa, ahal dela erabatekoa" lehenbailehen bermatzea izan behar zuen.

Hau da, krisi testuinguruan Kontseiluaren bidez diru publikoak jasota bertan goxo geratzeko arriskuan zegoen asoziazio mugimendu baten aurrean, kontseilari beteranoak eskatzen zuen mugimendu hori ez zedila rol pasibo horrekin etsi eta rol aktiboa har zezala (gogoratu lehenago aipatutako lan "proaktiboa" bereganatuz joan zela Kontseilua), poliki-poliki, federazioak autodeterminatzaera behartuko zituen finantza banaketaren bila. Izan ere, federazioak Kontseiluaren mende zeuden bitartean, Kontseiluak baliabide publikoen mendekotasuna zuenez, ezinezkoa izango zen kooperatibak "Herri Administrazioaren nahikeriatik babestea (...), zeren Administrazioaren erabaki eta ondoriozko eragin asko gestoreen edo talde politikoen gogo, talentu eta antzeko ausazko faktoreen mende baitaude".

**Kontseiluaren helburuak
"federazioen
autofinantziazioa, ahal
dela erabatekoa"
lehenbailehen bermatzea
izan behar zuen**

Kontseiluaren eskudantzien arteko bat federazioak diruz laguntzea zen eta eskudantzia horri eutsi egin behar zion aldi baterako behintzat, federazioen ahuleziak eta horien euskarri ekonomikoa (aldi baterako) izateko funtzioak hala egiteko eskatzen zuen eta. Dena den, Gorroñogoitiak gogora ekarri zuenez, eta hala egin zuen hamar urte lehenago ere, nahitaezkoa zen, betiere, "diru publikoa zuzen erabiltzea" eta "baliabideak txikiak direnez", oso ondo aukeratu behar zen diru hori zein sustapen xede eta jardueratarara bideratu. Irizpideak honako hau izan behar zuen: mugimendu kooperatibo osoarekiko, eragin eta zerbitzurik handiena zekarten ekimenak finantzatzea bakarrik. Hori dela eta, kontseilari beteranoak diru laguntza publikoa bateratzea aholkatzen zuen, ordu arte "egiturei eusteko" eta federazioetako "programa berezietarako" ematen ziren laguntzak bilduz. Gainera, iradoki zuen komeni zela diru laguntzen portzentajea jaitsiz joatea (1995ean, Kontseiluaren aurrekontuaren %50era iritsi ziren) eta, azkenik, diru laguntzetan "egituren" eta "programen" arteko banaketa orekatua-

goa izatea, zeren eta ordu arte lehenengo atalean zentratzen baitziren bigarrean bainoago.²⁸

Presidentetzak bere egin zuen politika hori. Hala, "federazioen artean] dirua banatzeko mundu ekaiztsuan zorrotasuna eta zentzu" hertsia aplikatzen hasi ziren "nahiz eta kongsakratutako praktiken haize kontra joan, diru hornidura horiek sozietateen eraginkortasun eza estaltzeari amaiera emanez, garai hartan halaxe gertatzen zen eta". Hain zuzen ere, praktika horiei esker, Kontseilua "Papa Noelena" egiten ari zen artean oso egoera instituzional ahulean zeuden federazioentzat (lan elkartuko federazioa salbuetsiz); izan ere, federaziook "borrokan ibiltzen ziren elkarren artean diru hori eskuratzeko, haien finantza iturri nagusia baitzen".

"Praktika kongsakratu" horien ondorioz, lehenengo eta behin, federazioen eraginkortasun gabezia iraunkorraren arazoa sortzen zen, diru hornidura publiko eskuzabaletara jota estaltzen zena. Baina are larriagoa zena: finantzazioa banatzeko borroka Kontseiluaren beraren funtzionamenduan sartuta zegoen. Izan ere, kontseilarietako asko federazio horiek aukeratuak izaki, kontseilariak, batzuetan, ordezkatzeko zuten federazioaren interes partikularrak gidatuta ibiltzen ziren, euskal kooperatibismoaren interes orokorra, babestu beharrekoa, ahaztuz. Eta horri gehitzen badiogu krisi ekonomikoa, eta krisiaren ondoriozko diru laguntzen murrizketa (dirua eskuratzeko federazioen arteko borroka –eta federazioen eta Kontseiluaren arteko borroka– biziagotzen zuena), egoera instituzionala larria zen. Eta ez da ahaztu behar, koadroa osatzeko, erakundeak betidanik izandako austeritate jarrera, batez ere diru publikoaren gestioari dagokionez; eta hori agerian geratu da lehen aipatutako Gorroñoigoitiaren adierazpen antologikoren baten bidez. Hala, larrialdi egoera, instituzionala ez ezik, morala ere bihurtu zen, eta erakundearen identitateari bere esentzian eragiten zion.²⁹

Egoera, haren iritziz, ezin eutsizkoa zen. Bost aldiz aurkeztu zuen Gestio Plan hura eta beti izan ziren "liskar dialektikoak bilkuran, batetik, Presidentetzaren eta, bestetik, federazioetako ordezkari diren kontseilari batzuen artean". Eta, haren iritziz, arazoaren gakoa non zegoen adierazi zuen: "Batzuetan, zenbait kontseilari nahasten dituzte federazioetako interesak eta Kontseiluaren beraren interesak", eta hori kontraesana zen, zeren eta batzuek interes pribatuak ordezkatzeko eta defendatzeko zituzten bitartean, Kontseiluak interes publikoez arduratu behar baitzuen.

Haren iritziz, Legearen bertutea izan zen Kontseiluaren identitate berria eta, bereziki, mundu kooperatiboaren askotariko interesen dimentsio publiko eta adostaila zehaztu izana. Eta hori guztia iraganari aurre eginez, iraganean, Kontseiluaren izaer-

Presidentetza federazioen artean dirua banatzeko "zorrotasuna eta zentzu hertsia" aplikatzen hasi zen

²⁹ AGT; Gorroñoigoitia, *Evocación de Felipe Yarritu*

Haren iritzi, Legearen bertutea izan zen Kontseiluaren identitate berria eta, bereziki, mundu kooperatiboaren askotariko interesen dimentsio publiko eta adostailea zehaztu izana

ra askoz ere konplexuagoa izaki, nahasmendua sortzen baitzen. Baina Yarrantuk susmoa zuen kontseilari askok ez zutela dimentsio publiko eta adostaile hori bereganatu, eta kontseilari horiek ez ziren gai Kontseilua zer zen esateko ere, "edo estrictu sensu Kontseilu bat, edo Konfederazioaren antzeko zerbait, edo bien arteko nahasketa bat, edo batek daki zer".

Testuinguru horretan zehaztu zen Kontseiluaren kolaborazio finantzarioa federazioetan, horrenbeste non, Legearen aurreko bi urteetan organo horrek izandako identitate falta dela eta, "baliabide gehienak federazioetara transferitzen baitziren, Kontseilua bera finantza hornidura txiki batekin utziz, hain txikia ezen diru laguntzak eskatu behar izan baitzituen funtzioaren bat betetzeko, esaterako, oraintsuko Kooperatibismoaren Mundu Biltzarrerako". Hori guztia, federazioak Kontseiluaren funtzioak bete bitartean gertatu zen, legeak, gerora, federazioei funtzio horiek aitortu bazizkien ere. Eta, azkenik, hori guztia gertatu zen erakunde horien guztien kokaleku partekatua egoitza berbera zelarik. Horrek, korporazio irudiari buruz agindutako analisiek erakusten zutenez, erakunde horien guztien arteko nahasmendu kezagarria sorrarazi zuen bezero instituzional eta kooperatiboek zegoikienez. Presidentearen ustez, ordu arte bizi izandako egoera hauze: federazioek Kontseilua "fagozitate" zuten, izan ere, federazioek Kontseiluaren espazioak eta funtzioak bereganatu eta aurrekontuaren zatirik handiena xurgatu zuten.

Egoera birbideratzeko unea zen, beraz. Eta horretan ahalegindu zen, haren hitzetan, Kontseilura iritsi zenetik. Gainera, krisi koiuntura hartan, inoiz baino beharrezkoagoa zen, Kontseiluaren aldetik, erakunde horien finantzaketa argitzea. Proposamena argia zen: kontseilari guztiek hartu behar zuten konpromiso irmoa "Kontseilua indartzeko, bere funtzioak erabat garatuz", eta, trukean, Kontseiluak federazioei eta Konfederazioari laguntzen jarraitu behar zuen, printzipio honetan oinarrituz: "Elkarrenganako errespetuan eta bere buruari laguntzen dionari laguntzean".

Horrenbestez, Gorroñogoitiak aipatutakoaren ildotik, Yarrantuk "egiturei eusteari" edo, bestela esanda, federazioen babes zuzenari bideratutako diru laguntza nabarmen murriztuko zela iragarri zuen. Diru laguntza hori, beraz, %50 izatetik %33 izatera pasatuko zen, eta mende berrian, berriz, %24 izatera. Federazioek, halaber, Kontseilutik finantzaketa eskatzen zuten jardueren gaineko plan xehatuak bidali beharke zituzten, eta konpromisoa hartu behar zuten Kontseiluaren eskumenak inbaditzea ekiditeko. Azkenik, etorkizunera begira, finantzaketa horien banaketak Kontseiluaren eskumena izateari utziko zion eta Kooperatiben Konfederazioaren eskuetara pasatuko zen. Gerora, 1996 eta 1997 bitartean, proposamen horiek guztiek arazuko edukia jaso zuten, eta horretarako "Mugimendu kooperatiboaren asoziazio entitateei zuzendutako transferentziak zehazteko arau" batzuk landu ziren, Kontseiluaren bilkurak 1996ko martxoan onartu zituenak.



EKGKren eta Eusko Legebiltzarreko Presidentetzaren arteko kontaktu instituzionala, ezkerretik eskuinera: Juan Luis Arrieta, Alfredo Ispizua, Izaskun Bilbao, Javier Salaberria, Konfekoopeko presidentea

Handik gutxira, ekainean, Konfekoop-Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Eratzeko Batzarra izan zen, zeinaren lehenengo presidentea Javier Salaberria izan baitzen. Konfederazioak Kontseiluaren babes handia izan zuen, batez ere Presidentearen babesa; izan ere, presidenteak uste zuen erakunde berri horrek Kontseiluari laguntzen ahal ziola, mugimendu kooperatiboaren gestioa bere gain hartuko baitzuen, eta gestio horrek, ikusi dugunez, barne arazoak sortzen zituen funtzionamenduari dagokionez eta kontraesanak ikusmolde publikoari eta ordezkaritzan federazioek zeukaten garrantziari dagokienez. Yarranturen iritziz, Konfederazio sendo batek Kontseiluak federazioekiko zeuzkan obligazio neketsu batzuk kentzen lagunduko zuen, eta hala, Kontseilua federazioen beharrek itota geratzea saihestuko zen. Behin Kontseiluak mugimendu kooperatiboa egituratzen lagundu zuenean, egokiena zen mugimendu horrek bakarrik egitea aurrera, eta horretarako Konfekoopek hortxe egon behar zuen. Konfekoopek bere eskumenen artean zituen federazio bakoitzak sektorialki zeuzkan guztiak, bereziki kooperatiben eta federazioen ordezkaritzan esparru instituzionalean, eta baita Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren eta europar kooperatiben aurrean ere.³⁰

Hala ere, Presidentetzaren babes hori ez zen hain argia izan kontseilarien artean. Eraketaren aurreko prozesua ez zen lasaia izan eta Yarrantuk egindako hautua oso

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, zeinaren lehenengo presidentea Javier Salaberria izan zen, Kontseiluaren babes handia izan zuen, batez ere presidentearen babesa

³⁰ *Reflexiones en torno al plan de gestión del CSCE, 1996ko urtarrila*

Konfekoopek bere eskumenen artean zituen federazio bakoitzak sektorialki zeuzkan guztiak, bereziki kooperatiben ordezkariak

polemikoa izan zen. Hala, eztabaida berriak sortu eta federazioen finantzaketa zela-eta lehendik bazeuden eztabaidak biziagotu egin ziren. Zorionez, hori guztia Konfekooopen sorrerarekin bukatu zen. Erakunde bion arteko elkarrizketa eta lankidetzeta espirituari esker, bien funtzioen mugarritze prozesu bati ekin zitzaion. Prozesu horrek hamar-kada oso bat iraun zuen ia, 2007ra arte ez baitzen behin betiko itxi, zeren eta Konfederazioak urteak eman baitzituen bere ahalmen instituzional guztia martxan jartzen.

Eraberrituta

Behin Konfekoop sortu zenean, Kontseiluak erakunde bion arteko jarduerak formalizatzeari ekin zion lehenbailehen. Hala, lehen fase batean, Euskal Gizarte Ekonomiarako Elkarren Bermerako Sozietate bat sortu zen (Oinarri), non biek parte hartu baitzuten bazkide babesle gisara. Sozietate berri hori erakunde biok partekatzen zuten sustapen kooperatiboko funtzioaren lehen gauzatzea izan zen, eta bere xedea hauxe izan zen: gizarte ekonomiako enpresen finantzaketa egokia erraztea eta horien finantza gestioa hobetzea, abal finantzario eta teknikoaren bidez.³¹

1996an funtzioak argitu zireneko lehen emaitza izan zen Oinarri; horrek bi erakundeen arteko akordio emankorra ekarri zuen, partekatzen zituzten funtzioei ahalik eta eraginkortasun handiena emateko. Eraginkortasun horrek, batzuetan, sozietate autonomoak sortzea ekarri zuen. Prozesu hori hasteak iragandako eztabaidak gainditzea eragin zuen eta aukera eman zuen Kontseiluak errendimendu osoz (mugimendu kooperatiboaren eta Konfederazioaren babesle lehenetsi behar izan zuelak) bultzatu ezin izan zituen zenbait jarduera bultzatzeko.



³¹ 1996.6.10; 1996.10.14 B.

Horrek ahalbidetu zuen, garai hartan, arbitraje kooperatiboaren funtzioa berrikustea. 1995ean, Santiago Merino Goi Mailako Teknikari izendatu zuten; hura zen Kontseiluko pertsonalaren organigrama txikiko hirugarren kargu egonkorra. Eta handik gutxira Letradu Aholkulari bihurtu zen. Kargu berria, batez ere funtzio hori indartzeko jarri zen eta erakunde horri zegokion eskusiban. Gainera, proiektio handikoa zen. 1997an, arbitraje araudia erreformatzeko aukeraren inguruko hausnarketa prozesu bat hasi zen, eta horretarako proposamen dokumentu bat agindu zitzaion Merinori. Zegokion batzordea eratu zen, non Pablo Larrabide eta Alejandro Martinez Charterina kontseilariak parte hartu baitzuten. Batzorde hori Letraduak egindako dokumentua aztertzeaz arduratu zen, arbitraje prozedura egin berrietan parte hartutako arbitroen lankidetzaz. Batzordeak Konfekoopeko presidente zen Javier Salaberriaren iritzia ere jaso zuen. Kontuan izan behar da Konfekooopen sorrerak, kooperatibak eta kooperatiben interesak ordezkatzeko erakunde goren izandako Kontseilua ordezteka ekarri zuela, eta horrek komenigarri egin zuen arbitrajearen funtzioa berrikustea, jadanik ezin baitzen funtzio goren horretan oinarritu.

Ordu arte, gainera, arbitrajea garrantzi txikiko funtziotzat jo izan zen Kontseilua definitzen zuten beste batzuekiko, esaterako, kooperatibismoaren sustapen eta zabalkundearekiko. Hala ere, Presidentetzak urte haietan hasitako berrikuspen markoan ondorioztatu zenez, funtzio hori, adiskidetzeko funtzioari ezinbestez lotua, lehentasunezko lekuan egon behar zen erakundearen. Izan ere, bai Teknikaria bai berrikuspen Batzordea bat etorri ziren esateko Kontseiluaren adiskidetzeko funtzioa indartu behar zela, arbitrajearen ordezkari aukera ez baztertzaila gisan. Hau da, iragan urteetako esperientzia ikusita, kontu asko arbitrajera iristen ez zenez eta Kontseiluak sustatutako alderdien arteko adostasunen bidez konpontzen zirenez, beharrezkoa zen adiskidetzeko maila arbitrajearen maila berera igotzea eta hori Araudian agertzea. Gainera, legeria berriak erakundearen izaera publikoa azpimarratzen zenez, beharrezkoa zen "arbitraje prozedura dohainekoa izatea, behintzat arbitroen ordainsariei dagokienez".³²

Batzordearen dokumentuaren inguruan Kontseiluan izandako eztabaida proposamenetako baten jatorrian zentratu zen, eta hori, hain zuzen ere, arbitrajeko eta adiskidetzeko euskal auzitegi baten eraketa zen. Proposamenari ezezkoa eman zitzaion, langile kopuru handiegia eskatzen zuelako, eta horrek erakundea ezaugarritzen zuen gastu publikoaren zorrotasuna zailduko zukeen. Hala ere, egoki ikusten zen Kontseilutik bereizitako erakunde bat sortzea baina nortasun juridiko propio barik eta presidente, idazkari eta arbitroen gutxieneko egitura batekin. Horiek izan ziren

Presidentetzak urte haietan hasitako berrikuspen markoan ondorioztatu zenez, arbitrajea, adiskidetzeko funtzioari ezinbestez lotua, lehentasunezko lekuan egon behar zen erakundearen

³² Santiago Merino, *Hacia un nuevo servicio de arbitraje y conciliación*, 1997ko ekaina; JLAT

**Zerbitzu berri hori
arrakastaz martxan jarri
izanak enpresak hartutako
bide ona islatzen zuen;
bide hori Kontseiluak jarri
zuen helburu,
federazioekiko eta
Konfederazioarekiko
eztabaidan**

Arbitraje Kooperatiboko Euskal Zerbitzuaren hasi-masiak. Zerbitzu hori, erabat formulaturik, 1998ko martxoan onartutako Arbitraje Araudian agertu zen.

Erabakiak Kontseilua bere etorkizuneko ibilbidean ezaugarritu zuten eta Oinarriren sorreran aztertua izan zen premisetako bat jarri zuen: funtzioetako zenbait zerbitzu edo sozietate autonomoei lagatzea. Araudi berriaren 1. artikulua zioenez, Kontseiluari arbitrajearen eta adiskidetzaren erregulazioa administratzea bazegokion ere, Kontseiluak erabakiko zuen, eraginkortasuna ahalbidetzeko, funtzio hori erakunde autonomo eta Kontseiluaren mendeko honen bidez egikaritzea. Zerbitzuaren egoitza Kontseiluarena bera zen, autonomia erkidegoko edozein lekutan bildu eta aritu bazi- tezkeen ere, jardun horretan euskal kooperatibistei hurbiltasuna eskaintzeko helburuaz. Zerbitzuak bazuen presidente bat, eta kargu hori zuzenbidean ezagutza handia zuen edozein kontseilariri egokitu zekiokkeen; idazkari nagusi bat, Kontseilukoa bera zena; eta arbitro batzuk edo arbitraje elkargo bat. Zerbitzuaren jarduna oso bizia izan zen, eta denetariko kontuen inguruan erabakiak hartu eta bitartekotza lanak egin zituen. Hala, lehen enkarguetan, bitartekotza lanak egin zituen bazkide kooperatibis- tek ez kooperatibisten kontrako demandetan, kooperatibaren estetikari eragiten zio- ten muntaketa lanak zirela eta; kooperatibek bazkideen kontra jarritako demandan, galera ekonomikoak ekarri zituzten lan praktikak zirela eta; edo bazkideek beren koo- peratibei jarritako demandan, beren informazioarako eskubidea kontseilu errektoreek eskaintzen ziotena baino harago zabaltzeko.³³

Zerbitzu berri hori arrakastaz martxan jarri izanak enpresak hartutako bide ona islatzen zuen; bide hori Kontseiluak jarri zuen helburu, urte batzuk lehenago erakun- dearen helburuak argitzeari buruz federazioekiko eta Konfederazioarekiko eztabaidan. Ildo berean, urte haietan, ekimen txikiagoak (baina erakundeak jasotako funtzioak gau- zatzea bilatzen zutenak) abiarazi ziren, hala nola Elkartasunerako eta Lankidetzarako "Txindu" izeneko sari deialdia, urtero egiten zena; eztabaidarako foro sozioekonomiko bat, ekonomia eta gizarte gaietan Kontseiluaren lana beste euskal erakunde batzuekin lotu nahi zuena; eta, berezi-bereziki, kooperatibismoa zabaltzeko ekimen berriak. Horien artean, bazegoen Deustuko eta Euskal Herriko unibertsitateekin lankidetzan aritzeko hitzarmen bat, kooperatibismoari buruzko doktorego tesiak argitaratu eta zabaltzeko. Ekimen hori Sanz presidente izan zen garaitik zetorren, eta egonkortasun instituzional berriak berreskuratu eta martxan jartzea ahalbidetu zuen.³⁴

³³ Merino, Rodríguez eta San José, *Manual de Arbitraje*, 86-90, 100-108, 185-197

³⁴ *Plan de Gestión*, 1998





III. KAPITULUA

HEDAPENA, 1999-2009

KONTSEILUA MENDE BERRIAN

Finantza autonomia

1 999ko uztailaren 7an, Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudi berria argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Hala, aurreko kapituluaren amaieran aipatutako Kontseiluaren funtzioen berrikuspen prozesua bukatu egin zen. Prozesua bi fasetan jarri zen martxan, Yarritu presidente zelarik, Kontseiluaren eta euskal mugimendu kooperatibo berria egituratzen zuten erakundeen arteko muga zehazteko helburuaz. Hala bada, arduradun nagusiak aipatu zuen “fagozitazio” mehatxua lausotu egin zen.

Araudi berriak, berritasun gisan, Kontseilurako Presidentetzaren hautapena demokratizatzea ezartzen zuen eta hori urte hartako uztailaren 26an gauzatu zen, kontseilariak, zuzeneko hautapen sekretu bidez, Alfredo Ispizua aukeratu zuten entitateko presidente, eta Javier Sanz, berriz, presidenteorde. Kontseiluak demokratikoki aukeratutako lehen presidentea erakundearen eskarmentu handia zuen pertsona bat zen, izan ere, bere lehen urteetan, egoerak hartaraturik, bertako idazkaria izan zen Emilio Olabariaren ordez zen eta ordurako ibilbide luzea egina zuen erakundearekin lankidetzan, teknikari gisan, eta gerora, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzako zuzendari gisan.¹

*Alfredo Ispizua, EKGK-ko presidentea
1990etik 2009ra*



Ispizua iritsi zenean, Kontseiluaren Bilkura izendatu zen, eta Letradu Aholkulari karguaren izendapen ofiziala Santiago Merinori eman zitzaion. Figura berri hori Arbitraje eta Adiskidetze Zerbitzu berria abian jartzeaz arduratuko zen eta erakunde barrutik zetorren, gastuak ez garestitzeko helburuaz eta teknikari horren profesionaltasun kontrastatua zela eta. Presidentetza berriaren lehen ekintza hausnarketa estrategikorako lehen prozesua martxan jartzea izan zen. Prozesu horretan, Kontseilua fase historikoki berri batean sartu zela islatzen zen. Fase horrek mende berriaren hasierarekin bat egiten zuen eta antolamenduari dagokionez, egonkortasunerantz zuzentzen zen hainbat funtziotan; gainera, espazio handia uzten zuen berrikuntza eta etorkizunaren aurreikuspenari eskainitako ahalegin hori pentsaezina zen 5 urte lehenago, asoziazionismo kooperatiboa abiarazi berri zelarik, helburuak trantsizio egoeran zegoen erakunde baten funtzionamendua arautzean zentratzen zirenean. Ordurako, ordea, mende aldaketaren atarian, Kontseiluak bazuen behar bezalako egonkortasun instituzionala euskal mugimendu kooperatiboaren geroa begiztatzen saiatzeko.

¹ 1999.7.26 B.

Egonkortasun horrek asko zor dio Ispizuaren aurrekoak bultzatutako gestio jakintsu eta, batzuetan, polemikoari. Izan ere, gestio hori funtzioen mugapen zorrotzera, partida ekonomikoen eta erabakitzeko guneen berreskurapen indartsu batera eta erakundearen funtzionamendua juridikoki arautzeari azken bultzada ematera. Prozesu hori, aipatu dugun bezala, presidente berriaren etorrerarekin bukatu zen. Hala ere, entitatearen egonkortze instituzional horrek ez zuen arrakastarik izango, bidearen bukaeran, autonomia finantzario eta ekonomiko egoki batekin batera etorri izan ez balitz; bereziki urte batzuk lehenago, partida publiko txikiek eta federazioen beharrek hartararuta, mugimendu kooperatiboaren sustapenerako aurrekontu gastuen inguruko krisi eta polemikak sortu zirenean.

Soluzioa ordu arte gutxien sakondu zirenen arteko bide batetik etorri zen. Eta lortutako egonkortasun testuinguru berriari esker, bide horri arreta handiagoa jarri ahal izan zitzaion. Hala 1982ko Legeak nola 1993koak deuseztatutako edo eraldaketa sozietarioa izandako kooperatibetako derrigorrezko erreserba funtsak eta ondasun banaezinak gestionatzeko agindu zioten Kontseiluari. Ordu arte, diru sarrera horiek bildu eta gestionatzeko agindu hori modu ia administratiboan konpontzen zen: "Garai hartan, kooperatibek egiten zizkiguten transferentziak biltzen ziren, alta ematen zitzairen eta kito, ez zen gehiago gestionatzen".² Izan ere, hortik aurrerakoek zera eskatuko zuket: batzorde espezifiko bat eratzea, bazterrean gelditutako kooperatibak erregistratzeko denbora luzeagoa eta lan handiagoa izatea, erreserbako baliabideak kuantifikatzea, etab.

Hala ere, 1998ko Gestio Planean -eta urtea ez da anekdotikoa- dagoeneko aipatzen zen "herri administrazioarekiko lankidetzari" buruzko atalean, kooperatiben eraldaketa eta likidazio gaietan, jarrera aldaketa izan zela. Arrazoia ulertzeko erraza zen eta jatorria hauxe zuen: kooperatiben mundua legeria berrira egokitzeko modua nola joan zen formalizatuz. Lehenengo legean, gogoratuko dugun bezala, Administrazioaren eta Kontseiluaren beraren politika kooperatibei -estatutuak egokitzeko orduan- malgutasun handia eskaintzea izan bazen, legeria berriarekin tarte hori askoz ere estuagoa izan zen; eta hala, beren estatutu sozialak egokitzerik lortu ez zuten kooperatibak deuseztatzeko prozesuan sartzen hasi ziren, ezarritako epea amaitu eta iraganekoak bezain jarrera onberarik ez baitzen hartu.

Hori hala, urte haietan, kooperatiba elkarrekin ugari desagertu egin zen legea dela-eta. Hori gertatu zen Kontseilua, egindako aldaketa eta erreformei esker, jarduteko moduan zegoen une batean. Izan ere, aipatutako Gestio Planean dagoeneko jakinarazi zen Kontseilua "bereziki interesaturik zegoela gai horretan, ateratzen zen azken

Urte haietan sakondu zen arloetako bat izan zen desegindako kooperatibetako derrigorrezko erreserba funtsen eta ondasun banaezinen gestioa

² JLAT

Soluzioa ordu arte gutxien sakondu ziren bideetako batetik etorri zen, kooperatibetako derrigorrezko erreserba funtsen eta ondasun banaezinen gestiotik

ondasunen banaketan soberakina baitzegokion, egonez gero, hala Derrigorrezko Erreserba Funtsekoa nola kooperatibaren ondasun likidokoa (...) Inola] Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsetako soberakina".³

Yarrituren Presidentetza aldiaren bukaeran, zenbateko horiek gestionatzea inportantea zela ulertu zen, izan ere, horrek beharrezkoa zen finantzaketa autonomia ekar zezakeen, ordu arte autonomia hori murrizta edo ezdeusa izan baitzen, federazioen baliabide eskaria zela eta. Hori dela eta, "ex lege edo bestelako deuseztapen gaietan" garatu beharreko jardueren azterketaz arduratuko zen lehen batzordea sortu zen. Batzorde horrek mendearen azken bi urteetan zehaztu ziren hiru gai hauek landu zituen: prozesu horietaz arduratuko zen etorkizuneko batzordearen ezaugarriak; egin beharreko interbentzioaren oinarritzko eskema bat lantzea; eta, azkenik, likidatutako edo eraldatutako kooperatibetatik etorritako ondasun ekonomikoen helburuak zehaztea.

Kontseilu barruan izan zen debatea oso aberatsa izan zen eta orientazio nagusi gisan, kontuan hartu zen gai horretan Estatuaren gainerako zatian nola jardun zen. Hala, prozesu horietatik etorritako kopuruak bitan banatzea onartu zen: %50 likidatutako edo eraldatutako sozietateari zegokion federaziora zuzenean joango zen (edo bestela Konfederaziora, halako sozietaterik ez balego), eta beste %50 Kontseilura; kopuru biok kooperatiba sustapenari eta kooperatibismoaren zerbitzura jardungo zuten entitateen sorkuntzari lotutako gaietara bideratu behar ziren. Helburu horrekin, Sozietateak Azkentzeko Prozesuetan Esku Hartzeko Batzorde bat (CIPES) eratu zen. Batzorde hori hauek osatu zuten: Eduardo Fernandezek, Javier Sainzek, Pablo Larrabidek, Santiago Merinok eta Juan Luis Arrietak, idazkari ibili eta presidente izan zenak. Bilkuraren Batzorde Delegatu horrek behar ziren ahalmen guztiak hartu zituen bere gain, sozietateak desegiteko prozesuetan esku hartzeko kasuetan dagokien erabakiak hartzeko.⁴

Batzorde horrek landutako lehen proposamenetako batek -Sanzek, Larrabidek eta Merinok sinatua- adierazten zuen legez, "zentzuzkoa dirudi kopuru likidatzaile bat klase sektorial bateko kooperatibismotik etorritako Funtsak sektoreko Kooperatibismoaren entitate ordezkatzaillearen esku uztea, kooperatibismoa bera sustatzeko eta hala, likidatutako edo eraldatutako sozietatearen "errauts" ekonomikoetatik sektorean errealitate kooperatibo berriak erretzeko; eta zentzuzkoa dirudi, halaber, espedienteen gestioan eraginkorrakoak izateko, Kooperatiben Federazioen eta Kooperatiben Goren Kontseiluaren artean lankidetzak formulak bilatu behar izatea".

³ *Plan de Gestión, 1997*

⁴ 1998.9.28 B.; *Propuesta al pleno del CSCE relativa a la configuración y funciones de la CIPES, 1998ko iraila*

Helburu horrekin landu zen, bi hilabete geroago, "Aplikatzeko helburuen zerrenda, kooperatiben azkentze edo eraldaketa sozietarioko kasuetatik etorritako ondasunen kargura". Bertan zehazten ziren finantzatzeko moduko ekimenak, hala Kontseiluaren nola federazioen nahiz Konfederazioaren eskutik, ondasun horien kargura.⁵

Finantza baliabide berri horiek banatu edo gestionatzeko normatibizazio hori guztia jarraitzeko nekeza suerta daiteke, baina derrigorrez aipatu eta azaldu beharrekoa da, zeren eta erakusten duena, tankera juridikoko titulu astun-luzeen azpitik, Kontseiluak finantzaketa bide horretatik lortu behar zituen baliabide ekonomiko guztiei bilatu nahi izan zien tratu arduratsua baita. Hau da, Kontseilua, gastu publikoa kontrolatzeko duen zentzu zorrotza dela medio, baliabide horien gestiotik erator litekeen edozein arazori aurrea hartzen saiatu zen, baliabideon banaketa zorrotza finkatuz, eta baita helburua ere, hots, kooperatibismoa sustatzea. Erakunde guztiek partekatutako helburua izaki, logikoena zen ondasun horiek denok partekatutako ekimenetara bideratzea, kooperatibismoaren mesedetan.

Ekimen horien artean bat, Kontseiluak, deszentralizazioa eta Konfekooppek eta elkarlaneko kooperatiben federazioak (Erkide) partekatutako beste funtzio bat garatzea ahalbidetuko zuen sozietate berri bat sortzea izan zen, Oinarrik duenaren antzeko mekanismo bati jarraituz. Era autonomoan gestionatutako sozietate bat, erakunde horietako azpiegitura bat ere gizentzen lagunduko ez zuena, eta kooperatibismoaren sustapena helburu izango zuena. 2002an sortutako sozietate hori Elkar-Lan izan zen. Lan elkartuarekin loturiko ekimen berrien sustapen lanaren bigarren fasea zen, Erkideren eskutik. Emaitzak oso positiboak izan ziren, eta federazioak laguntza eskatu zion Kontseiluari, sustapen zeregin horretan urrats bat gehiago egiteko. Kontseiluaren

Desegindako kooperatiben erreserba funtsak banatu edo gestionatzeko normatibizazio horrek erakusten du Kontseiluak zein tratu arduratsua bilatu zien finantzaketa bide horretatik lortu behar zituen baliabide ekonomiko guztiei



⁵ 1998.9.28; 1998.11.9; 1999.6.14 B.; *Propuesta al Pleno del CSCE relativa a la configuración y funciones de la CIPES*, 1998ko iraila eta *Relación de destino de aplicación...*, 1998ko azaroa

Elkar-Lan lan elkartuarekin loturiko ekimen berrien sustapen lanaren bigarren fasea zen

balorazioa aldekoa izan zen. Gaia aztertu zeneko bilkuran adierazi zen bezala: “zentzuzkoa dirudi pentsatzea kooperatiba berrien sorkuntza sustatu eta sustatzaileak bideratu, babestu eta haiei laguntza emateko dedikazio eskusiboa duen entitate (...) bat eratzen badugu, eskura genitzakeen emaitzak gaur egun lortzen ditugunak baino hobekuntza izango liratekeela, zeren eta sustapen lana modu sistematizatuago batean egingo bailitza-teke”.⁶

Halaxe sortu zen, bada, bigarren mailako kooperatiba hori, enpresa kooperatiboak sustatzea helburu zuena eta, ondorioz, baita enplegu kooperatiboak sortzea ere. Elkar-Lanek askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu dohainik. Gauzatu nahi den edozein proiektu kooperatibori buruzko orientazioa eta enpresa aholkularitza eskaintzen ditu; baita bideragarritasun ekonomikoari buruzko analisiak egiten ere. Gainera, prestakuntza kooperatiboak, arreta espezializatu eta profesionala eskaintzen dizkio proiektu kooperatiboak sustatzen dituen edonori. Era berean, laguntza eta diru laguntzen gaineko informazio zerbitzua ere bada. Eskaintzen dituen zerbitzuak askotarikoak izaki, haren bezeroak ere denetarikoa dira: sustatzaile, aholkulari eta kontsultoretatik hasita, haien enpresak kooperatiba bihurtu edo ezerezetik sozietate kooperatibo bat eratu nahi duten enpresari txiki edo langileetara. Gainera, beren jarduerak dibertsifikatu nahi dituzten sozietate kooperatiboak, toki garapenerako agentzietara eta herri administrazioari ere zuzenduta dago.

Elkar-Lan sortu izanak Kontseiluaren apustu irmo bat islatu zuen, alegia, zenbait funtzio jakin garatzeko entitate instrumentalak bultzatzeko eta eratzeko, zeren eta, aurreko hamarkadan edukiak garbitu arren, funtzio horiek lausotu egiten baitziren federazioetara eta Konfederaziora heltzen zirenean. Horietako bat eredu kooperatiboak sustatzearena zen, enpresa arloari zegokionez. Hori zen Elkar-Lanen funtza. Eta ezin luzatuzko behar bat zen, zeren eta, Kontseiluak bere 2003-2005 plan estrategikoan detektatu eta ohartarazten zuen bezala, Euskal Herrian enpresa kooperatiboaren sorkuntza tasa txikia baitzegoen, beste autonomi erkidego batzuen aldean.⁷

Plangintza eta emaitzak

2000. urtean, 1993ko Legea aldatu egin zen, eta hura izan zen kooperatibismo gaietan ordu arte izandako azken lege erreforma handia. Handik hiru urtera, Kontseilua, kooperatibismoa zabaltzeko eta prestakuntza kooperatiboak sustatzeko duen funtzio partekatuaren barruan eta ordenamendu juridiko kooperatiboaren legezko hobekuntza eta hobekuntza instituzionalari laguntzeko konpromisoaren markoan, testu berri

⁶ *Plan de Gestión, 2002ko otsaila*

⁷ *Plan Estratégico 2003-2005, 2002ko irailaren 23a*

horren iruzkina argitaratzeaz arduratu zen, aurreko Legeaz argitaratua zuen aurreko iruzkinarekin irekitako bideari jarraituz. Lege berriak ez zuen eragin handirik izan Kontseiluaren eta kooperatiba mugimenduaren arteko funtzioen banaketan, ezta funtzionamenduan ere; honenbestez, eta gauza nabarmengarria den arren, ez du arreta handiagorik merezi.

Arreta handixeagoa merezi du, ordea, erakundeak, mende berriarekin, hasten duen jardueren zabalkundealdiak, Alfredo Ispizua presidente berria delarik. Alfontso Gorroñogoitia kontseilari beteranoak azpimarratu du Kontseiluko arduradunen azken belaunaldi hau lehenengoa baino aski hobea dela gestio gaietan; erakundeak mugitzen zuen jarduera eta finantzaketa bolumen aparta ikusita, agerikoa zena. Kontua da Kontseilua erabat berriturik sartu zela mende berrian, behin federazioen egonkortasunak –finantzaketa muga ezin zen aurrekontu arrunteko %50 baino handiagoa izan zedin Konfederazioarenak aukera ematen baitzuen guztiek partekatzen zuten esparruan lankidetzan aritzeko, hau da, kooperatibismoaren eta bere balioen sustapenean aritzeko.

Eskudantziak sinplifikatu izana, Kontseiluak eskuratutako autonomia ekonomikoaren babesarekin, ederki islatu zen garaiko bilkuretako aktetan. Aurreko hamarkadari hasiera eman zioten urteetako bolumen handien aurrean, mende berriko aktek berriz ere erakusten dute bolumen txikiago bat eta kontsultatzeko askoz ere arinagoak dira. Mende berriko lehen urte horiek ebaluatu zituzten gestio dokumentuetako batek zioenez: "Federazioak eta Konfederazioa sortu ondoren, erakunde bakoitzari dagokion rola, eta baita Kontseiluak haiekiko duen autonomia maila ere, argitu egin dira. Adostasun argia dago Kontseiluak bere helburu eta lehentasunak zehazteko duen autonomiari buruz. Izan ere, helburu eta lehentasun horiek federazioenak ez bezalakoak izan daitezke, bien arteko interrelazioak oso handiak izatea alde batera utzirik".⁸

Kontseilua, ordurako, "ondo koipeztatutako makina bat zen" eta, gainera, oso "teknifikatuta" zegoen. Halaber, bereak eginak zituen mende berriko herri administrazioko nazioarteko orientabideetan orduan zebiltzan gestioko bikaintasun estrategiak. Erakundearen funtzionamendu oinarriak urte bakoitzaren hasierako urteko gestio plan batean zentratzen ziren, eta horretarako, konpromisoak, estrategiak eta hiru urteko plan estrategiko bat zerrendatzen ziren. Plan estrategiko bakoitza, martxan jarri aurreko sei hilekoan landu, eztabaidatu eta onartzen zen. Lan talde espezifiko bat izendatu eta proiektua kanpoko aholkularitza batek ikuskatzen zuen. Plan estrategiko horrek lan ildo orokorrak eta zenbait konpromiso arautzen zituen, oro har, planteatutakoen laurdena betetzen zutenak. Gainerakoak urtero ebaluatzen ziren. Ikus daitekeenez, beraz, kontua zen hau ekiditea: Kontseiluaren lanak justifikaziotik libre egongo zen urte anitzeko kontu batean lausotuta geratzea.

Kontseilua erabat berriturik sartu zen mende berrian. Funtzionamenduaren oinarriak urte bakoitzaren hasierako urteko gestio plan batean zentratzen ziren

⁸ Plan Estratégico 2003-2005, 2002ko irailaren 23a

Eusko Legebiltzarrean 2008an EKKG-ko kontseilari ohiei egindako omenaldia:

Lehen lerroan, ezkerretik eskuinera: Jose Maria Merino, Jose Maria Zeberio, Pablo Larrabide, Luis Irazabal, Emilio Olabarria, Alfonso Gorroñogoitia, Izaskun Bilbao, Juan Angel Beldarrain eta Asier Albizu.

Bigarren lerroan: Jose Ramon Zubizarreta, Alfredo Ispizua, Juan Luis Arrieta, Gotzon Gondra, Xabier Unzurrunzaga, German Muruamendiaraz.

Hirugarren lerroan (mahai atzean), ezkerretik eskuinera: Luis Maria Mallona, Javier Sanz, Javier Mongelos, Jose Maria Larrañaga, Angel Larrañaga, Patxi Ormazabal, Ignacio Uribarri, Felix Ormaechea.



Zabalkunde instituzionalaren garai berri honen giltzarria, hala ere, lehen garaietan ezarritakoa izan zen: funtzionalitatea, edo, gauza bera dena, egindako inbertsioa justifikatuko duten epe labur eta ertainerako konpromisoak hartzea. Izan ere, iraganeko aitzindarien ondarea materialki presente zegoen, erakunde berri honen eskutik: Kontseilari Ohien Foroa. Foro hori urteko bilera bat edo bitan datza, non lehen-go kontseilariei, Kontseiluak egiten dituen jardueri, dauden proiektuei eta kontseilari ohiek erakundeari planteatzen dizkioten proposamen edo iradokizunei buruzko informazioa ematen zaien.

Iraganeko aitzindarien ondarea materialki presente zegoen, erakunde berri honen eskutik: Kontseilari Ohien Foroa

Izan ere, lan ikaragarri eta garrantzitsuena -hots, mugimendu kooperatiboa abiaraztea eta alderdi instituzionala sendotzea- egin ondoren, kontua zen gestio isil eta eraginkorra ahalik eta gehien indartzea, lankidetzan oinarrituz, eta ez gehiegi berritzea, zeren bidea ondo markaturik baitzegoen, izan ere, kooperatibek ondo zehaztua zeukaten. Biltzen zituzten federazioekin eta federaziook biltzen zituen eta publikoki ordezkaten zituen Konfederazioarekin, eta baita kooperatiba ikasketetako unibertsitate institutuekin ere, lan egin beharra zegoen estrategikoki. Urtero, Kontseilua erakunde horiekin harremanetan jartzen zen, beren helburu estrategikoekin lotutako jardue-

rak aurkez ziezazkioten. Hala, aurrekontu erabilgarriaren eta funtzioekiko egokitzapenaren arabera, Kontseiluak hainbat mailatan partaidetzen zituen.

Helburu horiek iragandako azken hamarkadan izandako identitate debatearen faseetan zehar ezarritako berberak ziren: "kooperatibismoaren sustapena eta zabal-kundea; Administrazioekiko erlazioa garatzea; printzipio eta balio kooperatiboak sustatu eta kooperatibetara eta gizartera gerturatzea". 2002. urteari begira, esaterako, helburu horiei loturiko ekimen eta jarduera ugari kontuan hartu eta positiboki ebaluatu ziren: lan elkartuko kooperatibetan prestakuntza beharrak diagnostikatzeko programa bat; eskola ikasleei zuzendutako programa bat, "Nekazaritza Kooperatiboa" izenekoa; esparru sozietarioan prestakuntza jarduerak; esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk eta bizikidetzako kooperatiboko foroak; prestakuntza kooperatiboan berrikuntza pedagogikoari buruzko proiektu bat, Erika izenekoa; enpresan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean prestakuntza eguneratzeko proiektu pilotu bat... Proiektu horiek guztiak federazioen batekin edo ikasketa kooperatiboko zentzoren batekin lankidetzan garatzen ziren. Urte hartan, era berean, Elkar-Lan abiarazi zen.⁹

Bilkuraren hileko bilerek aukera ematen zuten batzorde delegatuen deskargu osoa egiteko. Batzorde horiek eguneroko gestioa egituratu eta adostutako estrategia praktikan jartzen zuten. Alde batetik, Araudiaren Aplikazio Batzordea, zeinak Sozietateak Azkentzeko Prozesuetan Esku Hartzeko Batzordearen (CIPES) eta Arbitraje Kooperatiboaren Euskal Zerbitzuaren diseinu estrategikoan esku hartzen zuen; Zerbitzuen Batzordea; eta Sustapen eta Komunikazio Batzordea. 1999-2002 Plan Estrategikoak batzordean kide anitzekin egin beharreko lantzat jotzen zuen zeregin hori, eta gerora, bilkuran egin beharreko lantzat, aurreikusitako proiektu eta jarduerak ondo burutzeko orduan estrategia operatiboena zelakoan; hala, batzorde bakoitzak urtero kontuak ematen zituen, hala egindako lanari buruz nola lortutako aurrekontu zuzkidurari emandako erabilpenari buruz.¹⁰

2003-2005 Plan Estrategikoarekin, gestioan hobekuntza izan behar zuten zenbait puntu azaldu ziren. Federazioekiko lankidetzari dagokionez, adostasuna egon zen "bere lehentasunak zeintzuk diren jakiteko kontsultarako prozedura egonkor" bat formalizatzeko beharrean. Gainerakoan, Kontseiluaren identitatea sendotuta agertzen zen, bai Administrazioaren aholkulari eta kontsultore gisan bai balio eta printzipio kooperatiboaren sustatzaile, babesle eta zabaltzaile gisan. Ez da batera anekdotikoa garai honetan bizitasunez aipatzen hasi izana kultura kooperatiboaren edukiari eta, batez ere, "balio kooperatiboaren" kontzeptu abstraktu baina argigarriari buruzko aipamenak. Halaber, ez da kasualitatea urte horietan Mondragon Taldeko kongresu kooperatiboek gai horri bizitasun handiz heltzen hasi izana, aipatutako balioak galtzen ari zirela egiaztatu ondoren.

Izan ere, lan ikaragarri eta garrantzitsuena egin ondoren -hots, mugimendu kooperatiboa abiaraztea eta alderdi instituzionala sendotzea-, kontua zen gestio isil eta eraginkorra ahalik eta gehien indartzea, horrekiko lankidetzan oinarrituz

⁹ *Plan de Gestión*, 2002ko otsaila

¹⁰ 2000.2.28; 2001.2.19 B.; *Plan de Gestión*, 2000ko otsaila

Kontseilua gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion etika kooperatiboari eta haren birsorkuntzari buruzko eztabaidari

Hori dela eta, Kontseilua gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion etika kooperatiboari eta haren birsorkuntzari, batez ere euskal gazteen esparruan; izan ere, gazteek (inkesta eta ikerketa soziologikoen arabera) enpresa eta gizarte eredu honen gaineko ezjakituria sakona agertzen zuten. Sozietate kooperatiboetan lan munduratzeko apustua egiten zuten gazteen artean ere, lan "kapitalistaren" inertiak eramana izateko joera zegoen, eta horrek guztiak berezitasun kultureleko proiektu kooperatiboa hustu egiten zuen edukiz. Kontseiluaren gestio planetan argi geratuenez, hori gertatzen ari zelarik, kontrakoa jazotzen zen, izan ere, "enpresa kapitalistak ari dira balio kooperatiboak bereganatu eta garatzen. Enpresak kapitalistok, langileek kapitalean parte hartzea sustatzen ari dira, eskulan baliotsuari eutsi eta enpresen erantzukizun soziala beren gain hartzeko, marketin korporatiboko tresna gisan; gainera, enpresako giza baliabideen etengabeko prestakuntzaren alde egiten dabilta, etab.". Beraz, kooperatibak porrot egiten ari ziren Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren 1995eko Biltzarrean zehaztutako balioen transmisioan.

"Ekintzaile gazteenen belaunaldiek kooperatiboa baino eredu sozietario hobekak ezagutzen dituzte eta horiek hautatzen dituzte. Horrek talka egiten du eredu kapitalistako enpresetan balio kooperatiboak (partaidetza, gizarte erantzukizun korporatiboa, etab.) izaten ari diren goranzko balorazioarekin". Horixe izan zen Kontseiluaren bilkuraren konstatazioa 2003-2005 urteetarako gestioaren plangintzan. Arazoak gaur egun jarraitzen du. Eta hor dago Elkar-Lanen garrantzia, eredu kapitalistaren mesedetan eredu kooperatibistari uzteko ibilbideari buelta emateko sozietate gisan. Gainerakoan, Kontseiluak hutsune sakona detektatu zuen balio kooperatiboak jenduarrean jakinarazteko arloan. Konpondu beharreko hutsunea zen, euskal herritar ekintzaileen belaunaldi berrien artean kooperatibismoa dinamizatzea galarazten zuen eta. Nahitaezkoa zen gogoeta bide eta propaganda kooperatiboa berritzea eta oso garaiz kanpo zegoen erretorika humanistiko bat baztertzea, erretorika horrek ez baitzuen belaunaldi berrien sentiberatasun ideologiko txikiarekin konektatzen. Beharrezkoa zen, Kontseiluaren arabera, gazteengandik gertuago zeuden kontu materialagoak azpimarratzea: enpresa proiektuaren errentagarritasuna; bere iraunkortasuna, ez bakarrik bazkideentzako, baita ezartzen deneko komunitate osoarentzat ere, etab.

2005ean Kontseiluak eta Konfekoopek Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzarako sinatutako Esparru Akordioak arazo horien gainean jardutea bilatu zuen, erakunde bion eta Administrazioaren arteko finantza eta administrazio lankidetzak indartuz, enpresaren eta gizartearen alorretan, kooperatibismoa sustatzeko eta bere balioak nahiz kultura komunikatzeko. Era berean, Kontseiluak urteko Komunikazio Plan bat prestatu zuen Administrazio eta unibertsitateekin aldizkako kontaktuak izateko, bai Administrazioari bai unibertsitatei erabakitako arazuko proposamenen berri emateko, eta baita jarduerak lortzeko eta lortutako helburuen berri emateko ere.¹¹

¹¹ *Plan Estratégico 2003-2005*, 2002ko irailaren 23a; 2007.2.22 B.

Bitartu

Mende berriko urteek aurrera egin ahala, Kontseilua orainaldira egokituaz zihoan polemika handirik gabe. Bere indargune nagusia, ordezkariak adierazten zuten legez, elkartzeko organo izatean zetzan, non mugimendu kooperatiboa ordezkatzaren erakunde guztiak, unibertsitateak eta sektore publikoa sartzen ziren. Horrek baterako jarduerak garatzeko plataforma egoki bihurtzen zuen, elkarren bermerako sozietatea den Oinarri, Elkar-Lan eta antzeko ekimenetan islatzen ari zen bezala. Gainera, federazioekin eta Konfederazioarekin partekatzen zuen espazio fisikoan, Nafarroako Errege-Erreginen kaleko egoitzan, kooperatibismoaren egoera eta erronkei buruzko informazio eta esperientzia historiko ikaragarria biltegitratzen zen, eremu publikoaren eta pribatua elkartu eta gurutzatzeko erakundea zen aldetik. Gainera, baterako sustapen lan hori egiteko eskuragarri zituen baliabideak ikaragarri ugartu ziren.

Hala ere, oraindik asko zegoen egiteko, izan ere, erakunde bizia zen, etengabeko aldaketa eta egokitzapenean murgildua, eta haren gaitasunek, gero eta gehiago izanik ere, betiere zuzendu beharreko zenbait gabezia zegoela erakusten zuten. Gabeziok, auditoria azterketek eta plan estrategikoetako lehen orrietan azalduetako deskarguek ondo detektatzen zituzten. Erakundeak, bereziki, komunikazio estrategia on baten falta zeukan; eta horrek txikitu egiten zuen bere jardueren inpaktua, bai euskal gizartean bai komunitate kooperatiboan bertan. Giza baliabideetan zeukan egitura, gainera, hain zen murrizta ezen zenbait funtzio arintasunez garatzea oztopatzen baitzuen. Letradu Aholkularia sartu zenetik aldaketarik izan ez zuen egitura bat zen. Garai hartan, hain zuzen, 2002an, Lourdes Igartuak utzia zuen administrazio arduradun lanpostua, eta haren lekua Ricardo Morenok hartu zuen (eta 2009an Jon Azpiatzuk). Aldaketa horietatik harago, zentzu horretan ez zen ezer aldatu. Pertsonaleko diseinua mantendu egin zen, zeren eta ororen ginetik filosofia “frantziskotarrarekiko” leialtasuna jarri baitzen, horixe baitzen kontseilari ohien foroa osatzen zuten aitzindariak hautatu zuten filosofia. Helburu handinahiak sakrifikatu bai, baina trukean, eta aldizkako auditoriek hala erakusten zuten, egiazta zitekeen erabilitako euro bakoitzak bazuela funtzio, helburu eta justifikazio zehatz bat.

Beste arazo batzuk errazago ebatzi ziren. 2002an baita ere, Batzordeen funtzionamendua birbanatzeko premia zegoela antzeman zen, batzuen lan gaitasuna agerikoa baitzen. Hori dela eta, 2003an Ikerketa, kendu egin ziren Zerbitzu eta Sustapen eta Komunikazio Batzordeak. Birbanaketa horren xedea izan zen bere ekintzen arintasun eta “egikaritasun” maila handitzea, bilkurak erabakimena eskuordetzen zion gaitetan. Sustapen eta Araudiaren Aplikazio Batzordeak mantendu egin ziren eta autonomia, erantzukizun, ekimen eta gestio irizpideak bereganatu zituzten. Izan ere, irizpide horiek Kontseiluaren bilkuraren jarduna eta bere plangintzak definitzen zituzten.

2005ean Kontseiluak eta Konfekooppek Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzarako sinatutako Esparru Akordioak kooperatibismoaren ea gazriaren arteko harremanaren arazoaren gainean jardutea bilatu zuten



Bitartuko bilera Tomas Arrieta Lan Harremanen Kontseiluko presidentearekin, 2008an

Era berean, 2006 eta 2007 bitartean, eta arrazoi bera tarteko, Kooperatibak Azkentzeko Prozesuetan Esku Hartzeko Batzordea desagertu egin zen. Batzorde hori Araubide Juridikoko Batzordean integratu zen eta haren helburuan zera biltzen zen: desgite kooperatiboen gestioa eta Kontseiluak jasotzen zituen kontsulta publiko nahiz pribatuei erantzutea, eta horietaz Letradu Aholkularia arduratzen zen.¹²

Urte horietan izandako jarduera berritzeak berriz ere eragin zion horren funtsezkoa den Kontseiluaren identitate berrian, hots, gatazka kooperatiboak ebatzi eta bitartekaritzatza lana egiteko esku hartzeari dagokion arloan. Arbitraje Zerbitzuaren aldaketa, bada, zerbitzura txerta litezkeen hobekuntzak detektatzea ahalbidetu zuen esperientziaz beteriko hamarkada baten ondorio izan zen. Hala, aldeko egoera iritsi zenean, hau da, abenduaren 23ko Arbitrajeari buruzko 60/2003 Lege berriaren bidez, Zerbitzuaren diseinuari txertatutako berrikuntzekin, Kontseiluak berraztertzeari ekin behar zitzaioela iritzi zion. Xede horrekin, 1998ko martxoaren 16ko bilkuran onartutako arautegia indargabetu zuen eta arautegi berri bat prestatzeari ekin

¹² *Plan Estratégico 2003-2005, 2002ko irailaren 23a*

zior, jardueraren xede nagusia lortze aldera. Horrenbestez, xede hori ez zen kooperatibisten edo kooperatiben arteko arazo jakin batzuei laguntza juridikoa eskaintzeko xede koiunturazko eta berehalakoa, baizik eta mugimendu kooperatibo osoan gatazkak ebazteko benetako kultura bat ezartzea.

Arautegi berria 2004ko irailaren 21eko EHAAn agertu zen. Arautegi horretan biltzen ziren teknika juridikoaren arloko zenbati hobekuntza, azken urteetako esperientzia praktikoarekin detektatutako arazoentzako konponbide berriak eta, bereziki, arbitraje arautegian jasotako berrikuntza inportanteak. Puntu honi dagokionez, onena izango da berrikuntza horiek hitzez hitz zerrendatzea, nahiz eta testu juridikoen ohiko estilo propioaz -batez besteko irakurlearentzat horren luze eta abstraktua dena- azalduta egon: "arbitrajea zuzenbidez ebartziko da, salbu-eta alde biek esanbidez ekitatearen alde egiten dutenean; epeen zenbaketa egun natural bidez egingo da; lera berean, ebazten dal alde guztien arteko adostasunik behar ez duen etendura arrazoi gehiago zehaztea; arbitraje eskaera izapidetzeko onartzeari buruz arbitroei deliberatzeko ahala ematea, eta baita eskumenari buruz erabakitzekoa ere; aldean alegazio idazkien izaera segidakoa, eta ez aldi berekoa; prozedura aldean akordio bidez amaitzeko esanbidezko aukera, arbitroentzat loteslea izango dena; laudoa emateko moduari dagokionez, teknologia berriak erabiltzeko aukera; laudoa notario protokoloan ez jasotzea, alderen batek hala eskatzen duenean izan ezik; laudoa inpugnatzeko modu berri bat aurreikustea; edo arbitrajearen doakotasunaren norainoko mugatua".

Gainera, gatazkak ebazteko modalitate alternatiboak ugaltu egin ziren, Arautegian Zerbitzuaren erabiltzaileek Adiskidetzeta edota Bitartekotza prozedurak hautatzeko aukera sartzean. Zerbitzuak Kontseiluak egindako arbitro zerrenda bat izango zuen, kooperatiba federazioen proposamenez. Horien irizpideak eta jarduna erabateko independentziatik abiatzen ziren. Arbitraje bakoitza, hala ere, arbitro bakarrak edo hiruk -kasu horretan arbitroen elkargo bat eratuko zen- ebartziko zuten. Halaber, bitartekariaren zerrenda bat egongo zen, aurrez aurreko aldeek zerbitzu hori eskatuz gero. Adiskidetzeta, azkenik, Idazkariak berak edo Letradu Aholkulariak gauzatuko zuen.

Kooperatibetan Gatazkak Judizior Kanpo Ebazteko Euskal Zerbitzu berriari Bitartu izena jarri zioten, eta Kontseilua osatzen zuen. Modu autonomoan ziharduen, baina nortasun juridiko propioa gabe, hierarkian Kontseiluaren mende. Bazuen Presidentetzeta bat eta Idazkaritza bat, Juan Luis Arrietaren esku zegoena, eta hari Letradu Aholkulariak laguntzen zion. Letradu karguaren titularra Santiago Merino zen, baina 2007ko azarotik aurrera, aldi baterako, Gotzon Gondrak dauka kargua. Kargu hori garrantzi handikoa zen, arbitraje, adiskidetzeta nahiz bitartekotza jarduera guztia bideratzen baitzuen. Zerbitzu berriaren funtsezko xedeen artean bat, ahal zela, gerta litezkeen gatazkei aurrea hartzea zen, aipatu dugun moduan, kooperatibisten eta kooperatiben arteko gatazkak ebazteko. Kontua zen izan litezkeen gatazka guztiak

Bitarturen funtsezko xede nagusia zen, ahal zela, gerta litezkeen gatazkei aurrea hartzea, kooperatibisten eta kooperatiben arteko gatazkak ebazteko ohitura bat sustatuz



Bitarturen aurkezpen liburuxka

prebenitzea eta kooperatibistak gatazken ebazpenean prestatzea, ikastaro, programa eta abarren bitartez. Horren guztiaren helburua zera zen: Kontseiluaren txostenek erakusten zutenez, hala bertako zereginaren ezagutzari nola esku hartutako gatazken kopuruari zegokienez, ikaragarri handitu zen espazio batean hobeto jardutea.¹³

¹³ Reglamento sobre procedimientos de resolución de conflictos en las cooperativas vascas, Bitartu-CSCE, Gasteiz, 2004

BERRIKUNTZA ETA HAUSNARKETA

Sozietate sustatzaile berriak

2005ean, Kooperatiben Goren Kontseilua egoerarik onenean zegoen erakundearen geroari buruzko hausnarketa estrategikorako prozesu serio bat abiarazteko. Egoera on horretara, euskal kooperatibismoaren sustapenean ziharduen erakunde publiko gisan, oinarritzko funtzioen praktikan lortutako eraginkortasunari eta bikaintasunari esker iritsi zen (luze aipatu diren arren, merezi du funtzio horiek berriz zerrendatzea: sustapena, zabalkundea, arbitrajea, kontsulta, aholkularitza eta kolaborazioa). Gainera, federazioak, Eusko Jaurlaritza eta unibertsitateak ordezkatzan zituzten kontseilarien osaera zela eta, sinergiak ondo bereizitako bi ildotan hedatzeko aukera zegoen. Alde batetik, osaeraren heterogeneotasunean (administrazioa, mugimendu kooperatiboa, unibertsitateak) eta, aldi berean, erakunde horietako bakoitzaren homogeneotasunean. 2005eko azaroko data duen hausnarketa estrategikorako azken txostenak azaltzen zuen legez: "sinergia horien hedapenean dugu Kontseiluaren indarra".

Kontseiluaren aurreko helburu estrategikoak jada landutako bi gaitan zentratuta zeuden: eredu kooperatiboaren komunikazio publikoaren defizita murriztea eta bere kulturak euskal gizarte barruan zeukan krisian esku hartzea. Eusko Jaurlaritzarekiko Akordio Markoa, Elkar-Lanen eraketa, Batzorde berriak eta Sozietateak Azkentzeko Prozesuetan Esku Hartzeko Batzordea sendotzea eta arbitrajea Bitartu sortzearen bidez berritzea: horiek guztiak, helburu horiei erantzuteko ahalegina ziren. Hori horrela izanik ere, hausnarketa berrian, asegabeko zenbait puntu zegoela egiaztatu ahal izan zen, batez ere prestakuntzan eta balio kooperatiboaren hedapenean liderra izaki, erakundeak jasotzen zuen ezagutza publikoa kontuan hartuta. Detektatutako hobetu beharreko beste eremu bat, bere interbentzio eta funtzioen hierarkizazio eskasa zen, horrek helburu estrategikoak eta urteko helburuak lehenesteko (eta ondorioz, ebaluazio haztatuari buruzko) zenbait arazo ekartzen baitzuen.

Hausnarketa egin zeneko garaia egokia zen, argi zegoen-eta mugimendu kooperatiboa aldatzen ari zela. Egokia zen, alde batetik, mugimendua osatzen zuten eragileei zegokienez (rol esanguratsua jokatzan zuten erakundeak biltzen baitziren ordezkaritza, sustapena eta abarreko arloetan, hala nola Konfekoop, Elkar-Lan, etab.). Arlo hori aberasten ari zen progresiboki, eta horrek espazio horretan zuen rola birkokatzer behartzen zuen Kontseilua, nahigabeko edozein gainjarpen ekiditeko, aurreko hamarkadetan hala gertatu zen eta. Gainera, barne osaerak, uneoro, euskal mugimendu kooperatiboa osatzen zuten eragileen aniztasun gero eta handiagoa islatzera ere behartzen zuen.

Bestetik, argi ikusten zen, baita ere, zeukan inportantzia ekonomikoa gorabehera, kooperatibismoan aldaketa sozial sakona gertatzen ari zela. Sortzen ziren kooperatiben kopurua behera zihoan aurreko aldiekiko, eta egindako azterketek islatzen zuteenez, bai Mondragon inguruan (batez ere bertako prestakuntza eta ikerketa sozialeko

instituetan, esaterako, Lankin edo Otoran) bai federazioetan nahiz Konfederazioan egindakoek islatzen zutenez, aipatutako krisi kulturalak bizitasun handiz eragiten zien kooperatibistei, batez ere gazteenei, gazteen artean mugimenduaren balio klasikoak galtzen edo fosiltzen ari baitziren. Eta larriena hau zen: antza, inongo eremutan ez zegoen ordezeko eraginkorrik. Euskal kooperatibismoa, beraz, bere arrakasta ekonomikoaren inertziak mugitzen zuen, gizarte, komunitate eta autogestio proiektu gisan pizten zuen gogo beroak bainoago, XXI. mendean.

Hain juxtu ere, arlo honetan, beste batzuetan bezala, eragile batzuen inportantzia gero eta handiagoak, aldaketa sozialaren analisigile ziren aldetik (esaterako, Konfekoop edo Mondragon), lankidetzaren ereduak abiaraztea eskatzen zuen, "krisi kultural" horri heltzeko estrategia eraginkorragoak garatzeko. Eta horretan, Kontseiluaren rola, "kooperatibismoa sustatu eta hedatzeko goren organoa" zen aldetik, oso zen garrantzitsua, bertan bideratzen ziren aipatutako sinergiak zirela eta. Bestalde, Administrazioarekiko kolaborazioaren arloan ere baziren sakondu beharreko eremuak. Kontseiluaren kontsulta eta aholkularitza lana "eskarien aurreko posizio erreaktiboan zegoen, eskaintza arauemailerantz bideratutako posizio proaktiboan baino"; horrek posizio pasiboan jartzen zuen erakundea eta arlo horretan zeukan eraginkortasuna murriztu egiten zen, ekimena beti Administrazioari baitzegokion. Hori ez zen batere positiboa, batez ere kontuan hartzen badugu Kontseiluak beti nahi izan duela posizio "proaktiboa" lortzea.

Era berean, Konfekoop progresiboki sendotzen zihoala eta, organismo horrek araei buruzko gaitan zeukan parte hartzea Kontseiluaren parte hartzeari gainjarri zekioken; hori dela eta, erakunde bion artean koordinazio eraginkorra egon behar zen arlo horretan. Izan ere, hausnarketa estrategikoan, Konfederazioa Kontseiluko kide gisan progresiboki integratzearen aldeko apustua egin zen. Horrek bion arteko koordinazioari mesede egingo zion, zerbitzu komunak eta gestio egitura berriak batera ezartzeko aukerak hobetuko zituen, eta kontseilarien -federazioen ordezkariak izaki- iritzi aniztasun potentziala diluitzen lagunduko zuen, Kontseilu barruan izango ziren debateetan federazioen arteko posizio koordinatuago bati lagunduz. Gainera, horrek Kontseiluaren osakerak mugimenduko eragile berriei egokitu zitzaien, esaterako Konfederazioari.

Helburu horiek bete egin ziren, etorkizun hurbilean sarrera formalizatuko den zain, 2005ean, Konfederazioaren, Patxi Ormazabal lehendakariarekin, Kontseiluaren, Alfredo Ispizua lehendakariarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren Akordioa sinatzearen bidez. Akordio horrek aukera eman zuen euskal kooperatibismoaren hiru erpinon arteko harreman eredu berri bat zehazteko. Eredu berri horrek hiruren arteko harreman eta komunikazio kanal sendoagoak ezartzea ahalbidetzen zuen, batez ere Euskadiko Herri Administrazioaren erpinari dagokionez. Izan ere, hark, azkenean, mundu kooperatiboan zuen inplikazioa gainditu egiten zuen departamentuen ikuspegitik, eta benetako departamentu arteko ikuspegi bat hartzen zuen. Erakunde bion arteko harre-

Konfekoopen, EKKGren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren Akordioa sinatzeak aukera eman zuen euskal kooperatibismoaren hiru erpinon arteko harreman eredu berri bat zehazteko

man tradizionala, Lan Saileko Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin izaten zena, Gobernu osoarekiko harreman bateratu batekin gainditu zen. Hala, Kontseiluaren eskari garrantzitsuenetako bat bete zen: Administrazioak mugimendu kooperatiboa Autonomia Erkidegoko elkarrizketa sozial eta ekonomikoaren ardatzen artekotzat hartzea, eta ez gizarte ekonomiara eta ekonomia hori gestionatzeaz arduratutako Sailera mugatutako gertakaritzat. Akordioa, legebiltzarreko talde guztiek onartu zutena, aski ona izan zen, zeren eta Kontseiluak rol garrantzitsua izan zuen haren lorpenean, bai bultzadari bai lidergoari dagokionez. Gainera, euskal kooperatibismoa adostasun politikoa zuen gaia zen, eta hori berretsita geratu zen berriro akordio politiko honen bidez; horren jakitun zen Kontseilua, Legebiltzarrearekin izandako erlazioen ibilbidean, aurrekontuak onartzeari buruzkoak barne.¹⁴

Akordio horrek, gainera, Kontseiluak eta Konfekooppek partekatutako lan esferen arteko koordinazioa hobetzen lagundu du, izan ere, lan esfera horiek gainjarpen arazo txikiak sortzen jarraitzen zuten, haien bizitasuna tarteko, betiere etengabeko egoitzapenean, euskal kooperatibismoaren behar aldakorrek zirela eta. Esfera horiek, aipatu dugun legez, hauek ziren: kooperatibismoaren eta haren balioen sustapena eta zabal-kundea; prestakuntza kooperatiboa enpresa munduan eta gizartearen; eta, azkenik, entitate kooperatiboak finantzatzeko eredu berri baten definizioa.

Konfekoopekin eta Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako lan horren barruan, hain zuzen, Kontseilua euskal kooperatibismoa garatzeko ideia eta politiketz eztabaidatu eta adosteko zentro bilakatzeko aukeraren gaineko hausnarketa sakon batean murgiltzen hasi zen. Kooperatibismoaren sustapen arloan, Kontseilua elikatzen zuten sinergiak erabili eta sinergia horiek gizartera itzultzea zen kontua. Martxan jartzeko, eragile sustatzaileen arteko konexioaren muin dinamizatzailatzat hartu behar zen erakundea, harremanetarako foroak sortuz, euskal kooperatibismoaren aldaketa sozialaren inguruan ideia eta planteamendu berritzaileak sortzeko. Era berean, Kontseilua konexio eragile bihur zitekeen, Espainian hausnarketa eta sustapen kooperatiboan lider ziren ingurune eta erakundeekin.

Hausnarketa estrategiko horren lehen emaitza Elkar Ikertegia Koop.E. izan zen, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren Anlisi eta Azterketa Zentroa. Erakunde horren jatorrian, 2005ean Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren eta Mondragonen artean izenpetutako hitzarmena dago. Hitzarmen horren bidez, alde biek konpromisoa hartu zuten, besteak beste, euskal kooperatibismoari buruzko azterketa eta ikerketa sustatzeko Zentro bat garatzeko. Gerora, Konfekoop ere ekimen horretan sartu zen, eta azkenean Kontseilua ere bai, ikerketa kooperatiboa sustatzeko funtzioa betez.

¹⁴ *Plan Estratégico, 2009-2012, 2008ko abenduaren 4a; POT*



Entitate berriaren xedea "interesekoak izan zitezkeen gai guztien gaineko ikerketan jardutea zen, hala nola zerga arloa, berdintasuna, dependentziaren legea merkatu nitxo gisara, etab.". Kontseiluak horren Kontseilu Errektorean parte hartzeak bere jardunean gainjarpenak zein bikoiztasunak ekiditen eta jarduerak Kontseiluarenekin osatzen lagunduko zuen.¹⁵

Hausnarketaren beste emaitza bat Forokoop abiaraztea izan zen, orainoan Kontseiluaren eta Konfekoopen ekimenez. "Eztabaidarako Foro Kooperatibo" hau, beraz, organismo biok partekatzen zuten kezka batetik sortu zen, alegia, gai teorikoez eta aplikazio praktikoaz hausnartzeko kezkatik, bereziki identitate kooperatiboaren eta erreferentziatzeko balioen krisiaren testuinguruan, erakunde biok detektatu zutenez. "Eztabaidarako Foro Kooperatiboak" kooperatibismoaren aspektu jakin batzuei buruzko presentziatzeko eztabaida foroaren eredu tradizionala izan zuen inspirazio iturri (jatorrian, Eusko Jaurlaritzak 1982an martxan jarritako Kooperatibismoari buruzko Jardunaldiak daude, non Kontseiluak berak ere parte hartu baitzuen). Baina, segituan, inspirazio klasi-ko hori teknologia berrien sarrerarekin uztartu zen. Teknologia horiek denboraren joanean etengabeko eztabaidarako foro bat lortzeko tresnak ziren. Hala, eredu misto berritzaile bat zehaztu ahal izan zen, urtean bitan "presentziatzeko foro" bat antolatzea ahalbidetzen duena, non mundu kooperatiboaren eta gizarte ekonomiaren arazoak aztertzen diren. Foro hori, gainera, "etengabeko eztabaidarako" beste foro birtual batek osatzen du, non kooperatibismoarekin lotutako edozein eztabaida planteatu daitekeen, edozein parte hartzailearen eskutik, norbanakoa nahiz kolektiboa izan.

Konfekoopekin eta Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako lan horren barruan, Kontseilua euskal kooperatibismoa garatzeko ideia eta politikez eztabaidatu eta adosteko zentro bilakatzeko aukeraren gaineko hausnarketa sakon batean murgiltzen hasi zen

¹⁵ 2005.2.17 B.

Hausnarketaren beste emaitza bat Forokoop abiaraztea izan zen, Kontseiluaren eta Konfekooopen ekimenez

Planteamendu apal batetik abiatuta, entitate biok abiarazitako beste ekimene-tan ohi den legez, espazio honek planteatzen duena da euskal kooperatibismoak ("munduko kooperatibismoaren erreferente" den aldetik) daukan konpromisoa kooperatibismoak aurre egin beharreko erronkei erantzuteko orduan. Erronka horien artean, aipatuko ditugu, esaterako, globalizazioa, identitate zeinuak mantentzea, bide alternati-bo, autogestore eta komunitarioa sustatzea krisi moral sakon baten zantzuak erakutsi dituen kapitalismoarekiko... Eta mundu mailako gertakari baten gaineko hausnarketa hori euskal ikuspegitik sustatzeko, ez dago informazioaren teknologia berriei erabilpen berritzaile bat ematea bezala, teknologia berriek aukera ematen baitute tokiko debatea planetako bazter guztietara hurbiltzeko.

Azken urteotan, Kontseiluaren jardunak ez du ahaztuta utzi kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko ekimenak finantzatu eta babesteko lana. 2006an egindako lan inportanteenetako batzuk aipatzearen, EHUra "Deslokalizazioa eta Berrikuntza enpresa kooperatiboetan" delako dokumentu analitikoaren egiten parte hartu zen; ikaskuntza kooperatiben federazioarekin hainbat lankidetzako proiektu izenpetu zen; horien artean, euskal hezkuntzan immigrazioaren fenomenoak duen eraginari buruzko ikerketa bat. Gainera, derrigorrezkoa ez den hezkuntza -batez ere hezkuntza unibertsitarioan- kooperatiba gaitan prestakuntza eta ikerketa sustatzeko ekimenak martxan jarri ziren federa-zio eta unibertsitateekin.

Gestioaren eraginkortasuna

2007ko ekainean, jarduteko eta funtzioak koordinatzeko metodologia berri bat abiarazi zen Konfekoopekin, kooperatiba gaitan euskal marko arauemailea hobetzeko prozesu barruan: beste urrats bat Kontseiluaren dimentsio publikoko funtzioak partekatzen dituen entitateen artean ahalik eta koordinaziorik eraginkorrena bilatzeko bidean. Bien bitartean, Kontseiluaren dekretu arauemailearen egokitzapena martxan jarri da, mugimendu kooperatiboaren erakunde ordezkatzailleekin partekatutako jarduera espazioetan egindako berrikuntzak jasotzeko eta, era berean, bere osaera mundu kooperatiboan sortutako aldaketei egokitzeko. Erreforma horren funtsezko xedea zera izan da: erakunde-ak euskal kooperatibismoaren erpin guztietako ordezkari izaten jarraitzea. Horrenbestez, dekretu berriak apenas aldarazten duen ordezkariaren proportzioa, baina ordezkariaren organismo berrietara hedatzen du, esaterako, Mondragon Unibertsitatara.¹⁶

¹⁶ 2007.6.21 B.



KONFEKOOP

Kontseiluaren aldi honetako ezaugarri bat aipatzearren, gestioaren txukuntasuna nabarmenduko dugu; horretarako, helburu eta funtzio instituzional eta estrategikoak etengabeko egokitzapenean sartuta daude. 2007ko ekainean, arlo honetan izandako etengabeko berrikuntza islatzen duen gestio tresna berri bat txertatu zen. "Aginte koadro integralaz" ari gara. Tresna hori Kontseiluaren helburu, adierazle eta jarduerak sistematizatzea bideratua dago, markatutako gestio bidea nola gauzatzen den neurtzeko xedez. "Aginte koadro integralaren" bidez, "erakundearen benetako argazki bat, une zehatz batean egina, hartzen da, eta bertan azaltzen dira bai Kontseiluaren helburu estrategikoen eta jardueren arteko erlazioak bai helburuen gauzatze eta betetze maila ere". Gestio instituzionaleko tresna berritzaile horrek sistematizatutako helburuen artean honako hauek aipatuko ditugu: lankidetzeta eta aholkularitza, sustapena eta zabalkundea, hala zuzenki gauzatzen diren jardueren arloan nola beste entitate batzuekiko hitzarmenen bidez lantzen direnak.

Gestio tresna berri honek aukera ematen du ekitaldi bakoitzean markatutako estrategia noraino gauzatu den neurtzeko; baita kontseilarietako lehentasunak jakinarazteko ere, kontseilariok jakin dezaten Kontseiluak nola planteatzen duen estrategia bakoitzaren gauzapena, espero izandakoaren jakinarazpen zehatz eta aldizkako baten bidez. Oro har, gestio modu moderno honen bidez une bakoitzean erakundeak dituen "bizi sintomak" zein diren jakin daiteke, erantzukizun maila bakoitzean zer den inportantea jakiten baita, hasi Presidentetzatik, Idazkaritzarekin jarrai, aholkularitza zerbitzuak, Administrazioarekiko aldizkako kontaktua, etab. Gainera, tresna horrek informazio kantitate handia eskaintzen du, esaterako, lanean diharduguneko entitateekiko gogobetetasunaz, kooperatibetako eta haien federazioen gogobetetasunaz, eta baita laneko azken emaitzez ere, kalitateari, inbertitutako denborari, prestakuntza programei, proiektuei eta abarri dagokienez.

Kontseiluaren gestioan izandako berrikuntza horrek Alfredo Ispizuaren Presidentetzaren azken garaiko ezaugarri asko sinbolizatzen ditu. Aldi hori ekintza isil eta

Kontseiluaren aldi honetako ezaugarri bat aipatzearren, gestioaren txukuntasuna nabarmenduko dugu



EKGKren bilkura 2008an, ezkerretik eskuinera: Imanol Igeregi, Juan Larrañaga, Gonzalo Saez de Ibarra, Juan Luis Arrieta, Alfredo Ispizua, Alfredo Montoya, Juan María Concha, Baleren Bakakua, Patxi Ormazabal

lasaioa izan da, ezusteko handirik gabea, Kontseiluaren jarduna hobetzearen alde, komunikazio hobeko baten alde eta beste entitate batzuekiko eta Administrazioarekiko baterako estrategia baten alde, mugimendu kooperatiboaren mesedetan. Azken finean, gestioa sakonean lantzeko aldi bat da, non, identitate propioaren arloan -denok ezagutua eta denok ezagutzeko modukoa- behin heldutasunera iritsita, posible den hobetzea, berritzea eta bikaintasuna lortzea, gaur egungo management-aren baremo klasikoaren arabera.

Gestioan bikaintasuna bilatu izana, beraz, Kontseiluak joan den hamarkadan lortutako autonomiaren emaitza zorioneko eta azkena izan da, zeina gerora, mende berrian, mugimendu kooperatiboarekiko jarrera eskuzabal batean, erakunde ordezkatzailerekin adostu beharreko eztabaidarako eta jardueretarako espazio baten bilaketan oinarritutako estrategia baten bidez hobetu egin den. Estrategia hori lau urteko plan berrietan islatzen da eta informazio gehiago eskuragarri izatea ekarri du, hogeita bost urte lehenago erakundeak eraiki zuten kontseilari aitzindariak inoiz espero izango ez zuten informazioa. Sakabanatutako informazio hori da, hain zuzen, gestio tresna modernoaren bidez batu behar dena. Horrenbestez, batzordeak, Presidentetzak eta Idazkaritza Orokorrek hobeto erabili ahal izango dute, aurrekontuen eta ekintza planen arteko koherentzia etengabe ebaluatuz, gerta litekeen edozein desbiderapen ekonomiko murriztuz eta, azken batean, Kontseiluren errendimendua kontrolatuz, aurrez ezarritako helburue-

kin etengabe kontrastatuz. Izan ere, berriki onartutako plan estrategikoan, gestioaren bikaintasuna lortzeko bidean beste urrats bat egin nahi izan da, hots: "Kontseiluaren funtzionamendu egitura egonkorra integratzen duten pertsonen ezagutzak egokitzea". Hau da, gestioa pertsonalizatzeko bidea hartu da, eta etorkizun hurbilean, "persona bakoitza garatzeko plan bat zehaztu eta martxan jartzea" planteatu da.¹⁷

Etorkizunera begira

2008an, Kontseiluak 25. urteurrena ospatu duenean hain zuzen, hausnarketa estrategikorako prozesu berri bat hasi da, datozen lau urteetarako oinarritzko jardura ildoak zehaztera zuzenduta. Erakundearen egoeraz eta bere etorkizunerako proiektioaz dagoen dokumenturik argigarriena da. Alde batetik, Kontseiluak bere erreferentziatzko printzipio korporatiboek eusten die: Kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko goren organoa izatea eta kooperatibei buruzko gaietan, Euskadiko Herri Administrazioekin aholkulari gisan jardutea. Era berean, erakundearen osaeraren garrantzia ere zaindu egiten da. Erakundea, euskal kooperatibismoa artikulatzen duten organoetako ordezkariak, Administrazioeko ordezkariak eta unibertsitateetakoek osatzen dute. Osaera horren helburua da interes pribatu eta publikoen interesak adostea, ordezkatuaren iritzia edo borondatearen gainetik, eta kooperatibismoa helburu gisan hartuz, bertako partaideak izan dezaketen helburua gorabehera. Oroitu beharra dago ikusmolde hori ez zela automatikoa izan eta halako debate bat eta argitze nekez bat izan zela aurreko hamarkadaren hasieran. Hori dela eta, horretaz behin eta berriz jardutea logikoa dirudi. Kontseiluak kontseilua bera osatzen duten entitateekiko lortu duen askatasuna eta autonomia ezin da abandonatu ez gauza jakintzat hartu; aitzitik, etengabe zaindu beharra dago.

Mugimendu kooperatiboaren egituratze lana aspaldi gaindituta, Kontseiluarentzat lehentasunezkoa da Kontseilua bera ordezkatzeko entitateekiko sustapen eta lankidetzaren jarduna; izan ere, jardun hori jadanik aipatu ditugun proiektu eta sozietate instrumentaletan gauzatu da, hala nola Oinarri, Elkar-Lan, Elkar-Ikertegia, Forokoop eta abarretan. Era berean, arlo kooperatiboari eragiten dieten araudiei dagokienez, Administrazioaren proposamen eta kontsulta organo zeregina gordetzen du. Gainera, beste funtzio honi ere eusten dio: kooperatibismoa zabaltzeko lagun-garriak diren tresnak sustatzea. Tresna horiek zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez gestionatzen ditu. Azkenik, lehentasun honi eusten dio: zerbitzu zehatzak ematea, hala nola arbitraje kooperatiboa eta baita sozietatearen azkentze eta eraldaketa prozesuetan parte hartze eksklusiboa izatea ere.

Gestioan bikaintasuna bilatu izana, beraz, Kontseiluak lortutako autonomia instituzionalaren emaitza zorionekoa da

¹⁷ 2007.6.21 B. eta eranskinak; *Plan Estratégico 2009-2012*, 2008ko abenduaren 4a



**Kontseiluarentzat
lehentasunezkoa da
Kontseilua bera
ordezkatzeko duten
entitateekiko sustapen
eta lankidetzaren jarduerak**

Kontseiluak, hitz batean esanda, bere funtzio eta mandatuak atxikitzen ditu, eta hori egiteko, ez da bakarrik bere ibilbide historikoan oinarritzen, baizik eta lortu berri dituen emaitzetan. Hausnarketa estrategiko bakoitzak azken aldiaren egindakoaren ebaluazioa dakar. Eta ebaluazioa, berriro ere, positiboa izan da. Aurreko aldiko helburu guztiak betetzeko joan dira, aurrerapen nabarmenen bidez bete ere. Alde batetik, Konfekooperekin partekatutako funtzioak hobetu eta argitu egin dira, izan ere, aurreratu egin da organo bion arteko koordinazioan eta funtzio eta eskumenen berresleipenean; baita koordinazio hori zaintzeko sortutako bitarteko batzordeen jardunean ere. Hobera egiteko, mahai gainean jarri da, esan dugun bezala, Konfederazioaren presentzia Kontseiluan, eta hori helburu gisan mantentzen da etorkizunera begira, osaera hobetu eta euskal mugimendu kooperatiboaren errealitatearekin bat egite aldera. Nolanahi ere, jardueraren eremu horren lorpenik handiena, beharbada, Konfederazioak Kontseiluak Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako lankidetzaren akordioa izan da.

Bestalde, lehen aipatutako gabezia ere aurrera egin da, izan ere, Administrazioaren, entitate kooperatiboaren eta unibertsitatearen beharren aurrean Kontseiluak hartu duen dimentsioa, erreaktiboa ez ezik, proaktiboa ere bai baita. Azken aldiaren planteatutako helburuetako beste bat ere martxan jarri da: kooperatibismoaren

topaketa foro bat Kontseiluan bertan eratzea, Kontseiluaren osaera berezia aprobetxatuz, kooperatibismoaren erronka eta kezkei buruzko debatean erreferentziatzeko agertoki izateko. Horixe izan da Forokoopen lehentasunezko helburua. Bukatutzat jo den beste jarduera bat, nazioartean beste antzeko errealitate batzuk bilatzea izan da, izan ere, "egin diren hurbilpenek adierazten dutenez, ez dago antzeko esperientziarik, modu globalean, ikasteko ezer eskaintzen duenik". Halaber, antolamendu egitura, hots, batzordeak eta haien funtzioak, etengabe ikuskatzea zaindu da, Kontseiluaren eguneroko aritzeko era txertatu beharreko jarduera berrietara egokitzeko helburuaz.

Orain artean esandako ezerk ez du aldaketarik ekarri entitate gisan daukan aginteari dagokionez, kontuan hartuta beste erakunde batzuekin partekatutako edo proiotzat dituen helburu estrategikoetan zehaztutako hainbat funtzio betetzen duela. Hala ere, Kontseiluaren orainaldi hurbilena, bizirik dagoen edozein organismorena bezala, kooperatibismoaren inguruabarrei lehentasunezko arreta jartzetik etorriko da, kontuan hartuta inguruabar horiek, Kontseiluko presidente batek aipatu zuen legez, euskal gizartearenak berarenak direla, betiere, kooperatibismoak gizartearen oparotasun eta justizia sozialaren zerbitzura diharduela jakinda. Horixe izan da Kontseiluaren helburu estrategiko berriak zehazteko hausnarketa markoa.

Helburu horiek guztiak funtsezko printzipio batek definitzen ditu: printzipio horrek erakundeak historikoki jorratutako nortasuna islatzen du, baliabideak austeritatez erabiltzeko zorroztasunean eta kooperatibismoaren garapenean inplikaturako erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzan oinarrituta. Printzipio hori "subsidiarioritasun" printzipioa da, hau da, Kontseiluak mugimendu kooperatiboko zenbait entitate indartzea (babes finantzario eta gestorearen bidez), entitate horiek kooperatibismoari eragiten dieten eguneroko egoeretatik hurbil egonik, organismoaren eraginkortasunari mesede egin baitiezaiokete, legez ematen dizkion eskumenak eta gaitasunak lortzeari dagokionez. Helburu horrekin, erakundea, Konfekoop eta antzeko beste organismo batzuekin batera, oso antolamendu egitura sendoa sortuz joan da, eta ahoari, zalantzarik gabe, Kontseiluaren oraingo etaparen lorpen handienetako bat da.

Etorkizunera begira estrategikotzat -eta subsidiarioritasun irizpide horren mende- jotako funtzioen arteko bat Kontseilua kooperatibismoaren etorkizunari buruzko organo gisan definitzea izan da, elkartzeko, eztabaidatzeko eta adostasunetara iristeko. Forokoop, Eusko Jaurilaritzarekiko lankidetzak Akordioa eta halako tresnak funtsezkoak izango dira helburu hori lortzeko bidean. Hori dela eta, Kontseiluak berehalako helburutzat jo du eztabaidarako foro horren ahalmena hobetu eta handitzea, lehentasunezko interesa duten gaien analisia eta eztabaida bultzatuz, hala nola: nazioartekotzea, ekintzailatza kooperatiboa, kooperatibak ezagutzaren gizartera egokitzea, etab. Gainera, helburu hau ere jarri du: eremu sektorial bakoitzean erreferentziatzeko kooperatiba indi-

Kontseiluak berehalako helburutzat jo du XXI. mendeko kooperatibismoari buruzko eztabaidarako foroa izateko ahalmena hobetzea eta handitzea



*EKGKren 25. Urtemugako ospakizuna
Bilboko Euskalduna Jauregian*

bidualetara hurbiltzeko ahalegina sustatzea, haien kezkek ezagutu eta kezkek tratatzeko eztabaidarako foro birtualak edo presentziakozkoak sortzeko helburuaz. Era berean, Eusko Jaurlaritzarekiko akordio ereduak beste erakunde publiko batzuetara hedatzeko asmo sendoa agertu du.

Beste helburu estrategiko bat, enpresa eredu kooperatiboaren zabalkunde soziala bultzatzea da. Bultzada hori, funtsean, balio kooperatiboaren eremuan eta garapen ekonomikoa nahiz kohesio soziala dinamizatzeko ahalmenean zentratuko da, bereziki gaur egun bizi dugun krisi egoeran: eredu kooperatiboaren baliagarritasuna (2008ko plan estrategikoak adierazten duenez) "esplizitu bihurtu eta jakinarazi egin behar da, baita arazo ekonomikoko aldietan ere. Baliagarritasun hori planteatzeko, erreferentzia hauxe izan behar da: pertsonen protagonismoan, proiektu komun batean lankidetzan aritzeko beharrekiko koherentzian eta sortu, berri eta aurreratzeko kezka indartzeko ahaleginean eragiten duten mundu kooperatiboari lotutako kontzep-

tuak". "Kooperatibismoaren elementu propio, lorpen eta balioak, partaidetzari, elkartasunari eta beste batzuei" lotutakoak hedatzeko, zabalkundea egin beharreko arlo bakoitzean komunikazio kanpaina espezifikoak diseinatuko dira.

Beste helburu bat da kooperatibismoa kooperatibisten prestakuntza unibertsitario, profesional eta zuzenean sartzea. Balioen kulturaren krisia kooperatibismo barrukoa da; hori dela eta, komunikazio estrategia bat ez ezik, heziketa lan arduratsu eta aktibo bat ere martxan jarri beharra dago. Unibertsitateetako, kooperatibetako eta herri Administrazioetako (zeinak hezkuntza politiken diseinuaren ardura baitu) ordezkariak bertan izateak aukera emango dio Kontseiluari hiru erpin horien arteko sinergiak errazteko, eta horrek lagundu egingo dio kultura kooperatiboa aztergai, jakingai eta hausnarketa gai

Kontseiluaren 25. Urtemugako ospakizuna. Juan Jose Ibarretxeren etorrera





EKGren 25. Urtemugako ospakizuna, ezkerretik eskuinera: Juan Jose Ibarretxe, Patxi Ormazabal, Alfredo Ispizua, Joseba Azkarraga eta Pedro Luis Uriarte

bilatzeko helburuari. Kontseiluak, hain zuzen, konpromisoa hartu du bere barruan unibertsitateekin koordinatzeko plataforma bat garatzeko, bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan prestakuntza jarduerak hedatzeko, eta baita kooperatiben barruan prestakuntzara zuzendutako material eta tresna berriak diseinatzeko ere.

Kontseiluak, era berean, bere gain hartzen du, helburu estrategiko gisan, sustapen kooperatiboa, bere lankidetzarekin sortutako eta ikuspegi ekintzailean lider izateko asoziazio egiturak sustatuz (Oinarri, Elkar-Lan, Elkar-Ikertegia); baita Konfederazioarekin eta Mondragon taldearekin batera bultzatutako oraintsuko ekimen baten bidez ere. Ekimenaren izena Promokoop da eta 2008ko martxoan sortu zen. Euskadin Sustapen Kooperatiboa babesteko Funts bat da, izaera estrategikoa duten proiektuak martxan jartzearen bitartez. Proiektuok, gainera, lan horretaz arduratzen diren eragileen arteko interferentzia eta bikoiztasunak ekiditea ahalbidetuko dute. Kontseiluak konpromisoa hartu du entitate horiei erabakimenez laguntzeko, baita enpresa bizitzatik erretiratutako kooperatibisten ezagutza eta gaitasunak aprobetxatzeko ere, izan ere, haien ezagutzak eta trebetasunak eskatzen dituzten kooperatibetako aholkula-



ri gisan lagun dezakete kooperatibistok. Etorriz hurbilera begira, beste helburu estrategiko bat da mugimendu kooperatiboa Kooperatiben Lege berrira egokitzen laguntzea. Lege horren proiektua prestatzeko prozesuan dago.¹⁸

Kontseiluaren 25. Urtemugako ospakizuna; kontseilari ohiei egindako omenaldia

Proiektio estrategiko horrek asmo on asko jasotzen ditu, baina Kontseiluan ez dago lekuri adierazpen testimonial hutsetarako lekuri (egia esanda, ez da sekula egon). Kontabilitatea kanpoko auditorien bidez kontrolatzeak eta gestio tresna oso zorrotza garatzeak aukera ematen diote plan bakoitzaren eta helburuen ebaluazioari jarraipen egokia egiteko. Gainera, Kontseiluak kooperatibismoaren bulkada biziei esker ere funtzionatzen du. Berak ere gogokoa du, kontseilariak eta pertsonal gestoreek beti esaten duten bezala, "organismo bizi" dei diezaioten, beti ere euskal kooperatiben bilakaerarekiko arretatu eta sentibera.

Eta kooperatiben eta gizartearen egungo egoera "erakundeen eta, beraz, kooperatiben jardunerako atzeraldi ekonomikoak sortzen duen ziurtasun ezak" definitzen du, Kontseiluak bere azken Plan Estrategikoan aitortzen duenez. Hain zuzen ere, bere 25. urteurreneko ospakizun publikoa, Billboko Euskalduna Jauregian 2008ko uztailaren 5ean izan zena, oso baldintzatu zuen ezin saihestuzko inguruabar horrek, izan ere, bertaratu-

¹⁸ Plan Estratégico 2009-2012, 2008ko abenduaren 4a

Beste helburu bat da kooperatibismoa kooperatibisten prestakuntza unibertsitario, profesional eta zuzenean sartzea

takoen hitzaldiek horixe izan zuten ardatz, baita Juan Jose Ibarretxerenak ere. Halakoa da erakundearen etorkizuna ere. Ez dago kooperatibarik gizarte ekintzaile bat ez badago, berdintasunari, justizia sozialari eta komunitatearen onurarako lan zorrotzari loturiko ideal utopikoek (eta ez kimerikoek) animatzen duten gizarte bat ez badago. Kontseiluak interesak eta eztabaida kooperatiboa adosteko organo gisan dituen ahalmen guztiak euskal gizartearen dinamizazioari begira jarrita daude, helburu horri jarraiki. Eta bere lehentasunezko lanak egun euskal ekonomiari eragiten dion krisia izango du ikusmugan. Ezin saihestuzko errealitate horren inguruan ardaztuko dira 2012ra begira planteatutako helburu estrategikoak, gestioko beste laurteko bati ekiteko. Eta hala, beste ospakizun baterantz jarraituko du bideak. Berrogeita hamargarren urteurrena, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren bizitzan.



Alfredo Ispizuaren hitzaldia Kontseiluaren 25. Urtemugako ospakizunean

Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua



del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Kooperatiben Goren Kontseiluaren XXV. urteurrena





ONDORIOAK ETA
ERANSKINA

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esentzia historikoa hauxe da: Kooperatibismoaren partaidetza organoa izatea politika publikoetan, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko topalekua den aldetik. Ideiak trukatzeko, ekimenak sustatzeko eta hurrenez hurrengo estrategiak babesteko gune hau euskal Administrazioak sortu zuen euskal kooperatibismoaren egoera hobetzeko helburuarekin, sustapen, zabalkunde, hezkuntza eta informazio juridiko eta teknikoaren bidez.

Erakunde hau eratu eta garatzen hasteko etapa gidatu zuen lehen estrategia organiko garrantzitsua benetako mugimendu kooperatibo bat instituzionalizatzea izan zen; horretarako eratu ziren, hain zuzen ere, sektoreko federazioak. Lanean emandako hamar urte haiek identitateari buruzko debate luze batekin igaro ziren. Denbora tarte horretan, antolamendu kooperatiboa instituzionalizatzeko agintaldiak Kontseiluaren jarduera ardaztu zuen. Hala, erakundea mugimendu kooperatiboaren eskarira egokitu zen eta premia bertute bilakatuta, mugimenduaren beharrei erantzutera ekin zitzaion.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran helburu zentral hori lortu zenean, Kontseiluak federazio berriak babesten eman zuen hurrengo hamarkada ia osoa, finantzaketa eta gestioa eskainiz. Bien bitartean, errealitate instituzional berrirako egoia izango zen kooperatiben Lege berri baten prestaketan murgildu zen eta, aldi berean, bere gaitasun berezietan zentratzeari ekin zion, mugimendu kooperatibo berriaren markoan zentzua ematen zien bitartean. Horra hor, arbitraje kooperatiboko zerbitzu bat abiarazi izana edo Administrazioaren kontsultarako eta aholku emateko ahalmenaren hobekuntza. Azkenik, debate sakon baten ostean, erakunde berri bat eratzearen alde egin zen, non federazio guztiak talde batean sartu eta akordio nahiz sustapen kooperatiboaren gaineko zereginak erraztuko baitziren; horra hor Konfekoop, Euskadiko Kooperatiboen Konfederazioa.

Konfekoopekin, Kontseiluak euskal kooperatibismoaren aldeko kolaborazio maila ona lortu zuen; honenbestez, kolaborazioa, bien arteko jardueretan, lankidetzeta eta enpatia instituzionaleko giroan gertatu da. Bitartean, gaur egun erakundeak daukan autonomia ekonomiko ezin hobek mugimendu kooperatiboaren ongizatea are gehiago sustatzea ekarri du.

Horri guztiari esker, erakunde honen azken etapan, mende berriak ekarritakoan, hainbat sozietate jarri da martxan (Oinarri, Elkar-Lan, Elkar-lkertegia, Forokoop, Promokoop) eta sozietate horiek ahalbidetu dute Kontseiluak bere jarduerak arazko aginduz betetzea eta Konfederazioari berez dagozkionekin osatzea. Sozietate horiek ez dituzte erakunde publiko honi dagozkion eskumenak bereganatu, izan ere, bestelako estrategia bat ahalbidetu dute eskumenok gauzatzeko orduan, euskal mugimendu kooperatiboarekin lankidetzeta formulak zehaztuz, baina beren eskumenei dagokien helburuarekin. Bestalde, Kontseiluak berak bere zerbitzuen autonomia sustatu du, esaterako, arbitraje zeregina Bitarturen bidez, bere ahalmenak euskal kooperatiben eskarrietara aha-

lik eta malgutasun eta egokitzeko ahalmen handienaz eskaintzeko helburuarekin. Era berean, Kontseiluak plangintza eta gestio tresnak bikaindu ditu, eta baita aurrekontu filosofia ere, estatutua eta barne araudia garatuz. Bukatzeko, iragandako azken urteak kooperatibismoaren presentzia instituzionala Herri Administrazioan indartzen eman ditu, mugimendu kooperatiboaren eta jarduera kooperatiboari eragiten dieten departamentuen arteko lankidetzak akordioak sustatuz. Hala, gaur egun, sustapen eta hedapenerako funtzio sorta eraginkor bat jarri du abian eta, organo aholku emaile gisan, Administrazioarekiko lankidetzak indartu, baita gatazkak ebazteko esparruan ere.

Federazioak martxan jarri zireneko garai nahasian buru izan zen Alfontso Gorroñogoitiak, federazioon eskariak baldintzatuta eta bere beste aginte eta esku-dantziak deskuidatu barik, azpimarratu zuen: "Kontseilua, kooperatibarik gabe, ez da ezer. Kasu honetan, kausalitate printzipioa ezin ukatuzkoa da: kooperatibak Kontseilu (edo horren baliokide) barik existitu dira (eta existitzen dira) eta, organo horrek, berriz, ez du inolako zentzurik kooperatiba barik. Ondorioz, (...) Kontseiluaren jardueraren subjektua bakarra da: mugimendu kooperatiboa; eta bere helburua ere bat eta bakarra da: mugimendu kooperatiboaren oparotasuna".

Aipu horrek oso ondo laburbiltzen du Kontseiluak, hogeita bost urteko bizialdian leialki jarraitu duen sortzezko giltzarria. Haren erreferentea kooperatibak izan dira betidanik, lehenik, sakabanaturik eta erakunde antolamendurik gabe zeudenean; hain zuzen ere, horregatik ezarri zen kooperatibok biltzen eta elkartzen saiatzeko legegintza mandatu eta mandatu publikoa gauzatzeko helburua. Bigarrenik, kooperatibak bildu zirenean, ziurgabetasunez beteriko lehen urte haietan federazioak finantzatzuz eta hasierako gestioa eskainiz, Konfederazio bateratu batean ordezkaturako erakunde autonomo gisan sendotasuna hartu ahal izateko. Hirugarrenik, hala dimentsio berezian nola egituratze instituzionalean, zerbitzu autonomo eta sozietate sustatzaile, aholku emaile edo finantzarioak, debate eta hausnarketarako guneak eta Herri Administrazioarekin eta federazioak biltzen dituen Konfederazioarekin berarekin lan koordinatua egiteko mekanismo bat eskainiz.

Kontseiluak, beraz, leialki eutsi dio kooperatibei zerbitzua eta arreta eskaintzeko funtsezko zeregin horri, eta hogeita bost urtean zehar, uko egin dio bere jardunaren subjektu edo objektu izateko edozein nahikunderi; izan ere, 1983. urte urrun hartatik orain arte, bitartekari izateari eutsi dio, hau da, proiektu kooperatiboaren inguruan kooperatibek eta Administrazioak adostutako interesentzako bide izateari.

Kontseiluak organismo bizidun gisan jardun du, etengabeko eraldaketa eta egokitzapenean murgilduta eta, betiere, mugimendu kooperatiboaren beharrei adi. Kooperatibismoak baliatzen dituen helburuei bizia eman die, eta erakunde gisan birkoikatzen jakin du, mugimendu kooperatiboan egitura parte hartzaileak sortuz barrurantz zein kanporantz, esaterako, debaterako eta hausnarketarako foroak eta erakundeak sor-

tuz. Horretarako, funtsezkoa gertatu zaio erakunde publiko gisan bere gain har zitzakeen gastu eta kargak zorrotz kontrolatzea. Hona hemen etengabeko egokitzapena eta aldaketa ardatz dituen jarrera horren emaitza: pertsonal propioari dagokion atal murrizta; bere baliabideen zati handi bat kooperatiben ongizateari eskaini izana; jarraitu izan duen filosofia deszentralizatzailea, Bitartu eta halako zerbitzuen autonomia edo egitura kooperatiboaren behar zehatzen gainean jardutera bideratutako sozietateak sustatuz. Jarrera hori hartu ahal izateko, funtsezkoa izan da erakundeak, hasierahasieratik, bere gain hartu duen austeritate filosofia. Izan ere, pisu instituzional arin bati eutsiz, hala pertsonaleko partidetan nola baliabide propioen erabileran, Kontseilua malguagoa eta arinagoa izan da, eta kooperatibek behar izan dutenean, hortxe egon da, oparotasunaren mesedetan.

Kontseiluak, gainera, uko egin dio iraganean babestu eta administrazio lanaren kulunka gozoan atzera begirako jarreran murgiltzeari. Aitzitik, aurrera begirako erakundeak izan da eta da, etorkizuna gidari duena, etengabeko egokitzapenean dagoen erakunde bati dagokion bezala. Izan ere, alderdi aholku emailean eta Administrazioarekiko erlazioan, erakundeak ez dago bakarrik kontsultei eta galderei erantzun eta konponbideak bilatzera bideratuta; proposamenak egin, erreformak mahai gainean jarri eta ekimen berriak sustatzeko organo bilakatu baita, kooperatibismoaren mesedetan beti ere. Horretarako, funtsezko abantaila hau dauka: sektore kooperatiboaren, unibertsitatearen eta Herri Administrazioaren arteko truke eta lotura gune izatea. Publikoa denaren eta pribatua denaren, ekonomikoa, akademikoa eta administrazioakoa denaren arteko uztardura hori funtsezko balio erantsia da erakundearentzat etorkizunera begira. Balio horrek bere ekarpena egin dezake kooperatibismoari eta euskal erakundeei buruzko hausnarketarako mahai eta foro nagusi gisan, eta gainera, tresna egokia izan daiteke Administrazioako ordezkariekin akordioak bultzatzeko.

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren ehun urteko Adierazpenak azpimarratzen duenez, kooperatiben helburua da bere egituren bidez norbanakoei zerbitzua ematea. Bada, Kontseiluak xede hori bere egin du, zehazki euskal kooperatibismoaren zerbitzura. Zerbitzu horretan 52 kontseilariak jardun dute 1983an sortu zenetik. Kontseilariok honako lan eremuetan parte hartu dute: bilkura, batzorde, zerbitzu eta abarretan. Bertako presidenteek prestasunez jardun dute beti, pertsonalismoetatik eta erakundeko presidentzialismoetatik ihesi; hori hala, etapa bakoitzean nork bere tonu zehatz-zehatza ematea saihestu da. Horrenbestez, Kontseiluaren historia bere hurrenez hurrengo etapa desberdinei garrantzi nabarmena emanaz konta daiteke; horrela, etapa horietakoren batek historia modu erabatekoan definitzea saihestu da. Azkenik, Kontseiluko hiru langileek (Idazkari Teknikoa, Letradu Aholkularia eta Administrazio Arduraduna) erakundearen ahalmena sintetizatzen dute, kooperatibismoaren alde asko egiteko, eta, trukean, Administrazioetik asko eskatu behar izan gabe.

Erakundearen geroa, Erakundea sortu eta 25 urtera, euskal kooperatibismoak berriz bizi duen munduko krisiaren testuinguruan egingo duen gestio zuhurrak markatuko du. Erakundearen eta Administrazioaren artean topaleku eta elkarriketarako organo gisan, kooperatibismo gaitan Administrazioaren aholkulari gisan eta kooperatibismoaren sustatzaile eta zabaltzaile gisan, Kontseiluak kooperatibismoaren presentzia instituzionala indartzen jarraitu beharko du Administrazioari erabakiak hartzeko fororatan. Horretarako, Eusko Legebiltzarraren laguntza argia dauka; horren erakusgarri dugu, aurrekontuan (autonomia erkidegoko aurrekontu orokorren barruan) aho batez eta traba barik onartzen diren partidetako bat izatea. Hala ere, kooperatibismoak, eta gizarte ekonomiak oro har, pisu txikia izaten jarraitzen dute erabakiak hartzen diren mahai politikoetan, eta daukaten solaskidetza apala baino apalagoa da erakunde sindikalek eta enpresa erakundeek dutenaren aldean. Erronka hori ez da atzo goizekoa, izan ere, erakundearen historiaren zati bat da, eta Kontseiluak ez ezik, euskal kooperatibismo osoak ere aurre egin beharko dio.

Gainerakoan, bete beharreko beste eremu bat debaterako espazioak prestatzea izango da, eta lider, gerente eta enpresari kooperatiboak sortzeko ahalmena izango duten kooperatiba elkarteak, enpresako arrisku berriak beren gain hartu, enplegua sortu eta kooperatiba eraginkor eta aurrerakoiak sortzeko gai izango direnak. Kontseilari berriek, bereziki erakundearen azken etapakoek, euskal enpresari kooperatiboen artean ordezkoko belaunaldi bat datorrela erakusten dute. Kontseiluak zaindu egin beharko du ordezkoko belaunaldi hori, etorkizun hurbilean jarraipena ziurtatu eta indarrak biltzeko.

Etorkizun hori euskal egitura ekonomikoan egungo krisiak eragiten duen ziurtasun ezak markatua dago. Baina krisia ez da euskal ekonomiari eta euskal kooperatibismoaren esperientziari ez dagokion zerbait. Kooperatibismoak zuhurtziaz erabil dezake krisia, eta moral berri bat bereganatu, egungo inboluzio ekonomikoa ekarri duen moralaren (edo, hobeto esanda, moral falta argiaren) aurkakoa izango dena. Moral berri horrek kooperatibismoaren irudia, itxaropenerako bide izatearen irudia, berreskuratzea ahalbidetu behar du erlazio ekonomikoen eta laneko erlazioen eremuan. Horretan ere, Kontseiluak badu zeregin franko, hezkuntzazko estrategiak eta estrategia didaktikoak sustatu eta egungo merkatu gizarteari jakinarazten zaizkion balioak ez, bestelako balioak ere badirela erakutsi ahal izateko. Hala, kooperatibismoaren lan egiteko eta aberastasuna banatzeko estrategiari, hots, gizakiarenganako itxaropena eta gizakiaren gaitasun solidarioa eta komunitarioa nagusi den strategiari, lagundu egingo zaio.

KONTSEILARIAK ETA LEHENDAKARIAK, 1983-2008

Kontseilariak	Mari Carmen Abrisketa (Kontsumo Kooperatibak)
	Jose María Aizega (MU)
	Asier Albizu (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
	Jose Luis Araico (Lan Elkartuko Kooperatibak)
	Dionisio Aranzadi (Deustuko Unibertsitatea) †
	Marta Areizaga (Kontsumo Kooperatibak)
	Koldo Arrese (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
	Baleren Bakaikoa (UPV-EHU)
	Juan Barcena (Lan Elkartuko Kooperatibak)
	Jose Angel Beldarrain (Kreditu Kooperatibak)
	Humberto Cirarda (Eusko Jaurlaritza, Lan Saila) †
	Juan Maria Concha (Lan Elkartuko Kooperatibak)
	Jose Carlos Crespo (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
	Constantino Dacosta (Kontsumo Kooperatibak)
	Javier Divar (Eusko Jaurlaritza, Lan Saila)
	Daniel Esnal (Garraio Kooperatibak)
	Jose Antonio Etxeberria (Nekazaritza Kooperatibak)
	Eduardo Fernandez (Irakaskuntza Kooperatibak)
	Daniel Garai (Nekazaritza Kooperatibak)
	Alfonso Gorroñogoitia (Kreditu Kooperatibak)
	Javier Hernando (Eusko Jaurlaritza, Industria Saila)
	Pablo Ibañez de Garaio (Eusko Jaurlaritza, Industria Saila)
	Imanol Igeregi (Irakaskuntza Kooperatibak)
	Sabin Ipiña (Irakaskuntza Kooperatibak)
	Luis Irazabal (Eusko Jaurlaritza, Lan Saila)
	Javier Iruretagoiena (UPV-EHU)
	Juan Pablo Landa (MU)
	Pablo Larrabide (Kreditu Kooperatibak)
	Jose María Larramendi (Kontsumo Kooperatibak)
	Angel Larrañaga (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
	Jose Maria Larrañaga (Kontsumo Kooperatibak)
	Juan Miguel Larrañaga (Kreditu Kooperatibak)

Arantza Laskurain (Kontsumo Kooperatibak)
Luis Maria Mallona (Irakaskuntza Kooperatibak)
Alejandro Martinez Berriochoa (Kontsumo Kooperatibak)
Alejandro Martinez Charterina (Deustuko Unibertsitatea)
Juan Luis Martinez (Eusko Jaurlaritza, Lan Saila)
Jose Maria Merino (Deustuko Unibertsitatea)
Victor Mintegua (Arrantza Kooperatibak)
Francisco J. Mongelos (Lan Elkartuko Kooperatibak)
Alfredo Montoya (Nekazaritza Kooperatibak)
Roberto Motriko (Lan Elkartuko Kooperatibak)
Iñaki Mujika (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
German Muruamendiaraz (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Emilio Olabarria (Eusko Jaurlaritza, Idazkaria)
Felix Ormaechea (Irakaskuntza Kooperatibak)
Patxi Ormazabal (Eusko Jaurlaritza/Lan Elkartuko Kooperatibak)
Juan Maria Otaegui (Kreditu Kooperatibak)
Patxi Plazaola (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Javier Sanz (Lan Elkartuko Kooperatibak)
Jon Sarasua (MU)
Esteban Saez de Sampedro (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Gonzalo Saez de Ibarra (Garraio Kooperatibak)
Maria Isabel Sola (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Jose Antonio Suso (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Jose Maria Suso (UPV-EHU)
Luis Maria Ullibarri (Eusko Jaurlaritza, Industria Saila)
Xabier Unzurrunzaga (Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza Saila)
Ignacio Uribarri (Etxebizitza Kooperatibak)
David Urzainki (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
Maria Virseda (Kontsumo Kooperatibak)
Jose Felipe Yarritu (Eusko Jaurlaritza, Lan Saila)
Valentín Zamora (Nekazaritza Kooperatibak) †
Jose Maria Zeberio (Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza Saila)
Jose Ramon Zubizarreta (Irakaskuntza Kooperatibak)

KONTSEILARIAK ETA LEHENDAKARIAK, 1983-2008

Lehendakariak Humberto Cirarda, 1983 †
Javier Divar, 1986
Francisco Javier Mongelos, 1987
Juan Luis Martinez Ordorika, 1987
Luis Irazabal, 1989
Javier Sanz, 1991
Felipe Yarritu, 1992, 2009
Jesus Alfredo Ispizua, 1999



Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua